

SALMOAK

SARRERA

Jendeak otoitzean agertzen ditu bereziki Jainkoarekin dituen harremanak. Negar, damu, esker on, galde, harridura, aitorpen...: Jainkoaren aitzinean giza bihotzari darizkion hainbat sendimendu. Hitzaren dohaina duenak otoitza poesi bilakatzen du. Eta poemari doinua ezarriz, otoitza kantu. Otoitz, poema eta kantu: horra zer ditugun Salmoak. «Salmo» hitzak hori erran nahi du: soinuz eta kantuz egiteko otoitza.

Ingurugiro historikoa

Israelen historia osoan barna sortu ehun eta berrogeita hamar otoitz-kanturen bilduma dugu Salmoak liburua. Egile askorenak, beraz, eta garai askotakoak, bakotxa noizkoa den xuxen ez daitekeelarik erran.

Salmoen bilduma, dagon bezala osatua zen K.a. III. mendekotzat. Zenbait salmo, ordea, askoz ere zaharragoak dira, Israel bera baino ere zaharragoak batzu, Israelek beretzat hartuak, bere federat egokiturik. Herriaren historiaren miraila da osorik salmoen sor-historia.

Salmoen kokagune berezi bezala, tenplua eta kultua aipa daitezke. Zeren, salmo asko kultuko —besta eta ospakizunetako— sortu baitziren zuzenean; beste asko, berriz, bestelako jatorria ukanik ere, kultuko egokitu. Erran daiteke, beraz, Salmoak liburua tenplu eta sinagogako kantu-liburua izan dela, kristau-elizaren otoitz-liburu bilakatu baino lehen.

Ezaugarri nagusiak

116 salmok, titulua badute, guretzat maiz ulergaitza: batzutan, salmoa norbaiten izenpean ezartzen da, bilduma gisakoak osatuz: «Daviden salmoak» (3—41; 51—71; 108—110; 138—145), «Koreren semeenak» (42—49; 84—85; 87—88) eta «Asafen semeenak» (50; 73—83), nahiz eta

SALMOAK

izen hauek zuzenean egilea ez duten adiarazten; beste batzutan, liturgian erabiltzeko oharrak emaiten dira: salmoa zein doinuz eta musika-tresnaz laguntzekoa den, zein liturgi ospakizunetan erabiltzekoa, etab.; beste batzutan —Daviden izeneko salmoetan bereziki— datu historikoak emaiten zaizkigu, salmoa errege horren bizitzako gertakari bati lotzen zaiolarik.

Hebrearrezko testuan, 150 salmoak bost liburu edo sailetan banatuak dira (1—41; 42—72; 73—89; 90—106; 107—150), zergatik eta zertarako ez dakigula. Sail bakotxa benedizione batez bururatzen da.

Salmoeri bereri behatuz, bestelako sailkapenak ere proposa daitezke. Adibidez, Jainkoari emaiten zaion izenaren arabera: «Jahweh» (3—41; 90—150) edo «Elohim» (42—83).

Tradizionean, bai eta T.B.ko aipamenetan ere, David agertzen zaiku Salmoak liburu osoaren egile. Hala ez izanik ere, iritzi horrek badu oinarriarik, errege hori izan baitzen Israelen kultua antolatu zuena eta Israelgo erlisione poesian eragile nagusietarik. Hain zuzen, 2 Sm 23,1ean «Israelgo kantari ezti» deitzen da.

Salmo bakotxaren «literatur mota» eta sailkapena konduan hartzeak asko lagun dezake barne-zentzuaz hobeki jabetzen. Hameka sailkapen desberdin egin daitezke. Huna gurea:

1. Gorazarreak: Jainko kreatoraren handitasuna eta historian barna bere herriaren alde egin dituenak ospatzen dituzte (Sal 8; 19; 29; 33; 100; 103—105; 111; 113; 114; 117; 135; 136; 145—150). Jainkoa errege gisa goratzen du zenbait gorazarrek (Sal 93; 96 — 99). Hemen sar daitezke «errege-salmoak» eta «Sionen kantak» ere (ik. geroxeago).

2. Eskariak: Salmorik gehienak atsegabe edo hirriskuan Jainkoari zuzendu eskariak dira, eta hunelako egitura izan ohi dute oro har: egoeraren deskripzioa, Jainkoari laguntza-eskea, Jainkoaren alderako konfiantza-aitorpena. Hiru sail berex daitezke: galdea edo deitorea adiarazten dutenak, lagun bakarrarenak (Sal 5—7; 13; 22; 25; 26; 28; 31; 35; 36; 38; 39; 42; 43; 51; 54—57; 59; 61; 63; 64; 69—71; 86; 88; 102; 109; 120; 130; 140—143) edo elkarte osoarenak (Sal 12; 44; 58; 60; 74; 79; 80; 83; 90; 94; 108; 123; 137); konfiantza-otoitzak: hauek ere lagun bakar batenak (Sal 3—4; 11; 16; 23; 27; 62; 121) edo elkartearenak (Sal 115; 125; 129); eta esker on otoitzak, Jainkoak eskaria entzun ondoan eginak (9—10; 30; 32; 34; 40,2-12; 41; 92; 107; 116; 138); galdeak ere maiz esker ona adiaraziz bururatzen dira.

3. Errege-salmoak: Erregearen otoitzak edo erregearen aldeko otoitzak, bai eta «salmo mesianikoak» ere (Sal 2; 18; 20; 21; 45; 72; 89; 101; 110;

SALMOAK

132; 144). *Hauetarik batzu Testamendu Berriak Kristori, Mesiasi, aplikatu diozka.*

4. Beila-salmoak: *Israelen besta nagusietan Jerusalemerat beilari zoatzinek kantatu ohi zituztenak (Sal 120—134). Sail berean sar daitezke Sionen kantak ere, Jerusalem Jainkoaren hiri bezala ospatzen dutenak (Sal 46; 48; 76; 84; 87; 132).*

5. Irakaspen-salmoak edo didaktikoak: *Fededun bakotxari edo taldeari nola bizi, nola jokatu edo beste zerbait irakatsi nahi diotenak. Lau sail xehekiago berex daitezke: historikoak, Jainkoak historian barna eginaren berri emaiten dutenak (Sal 78; 105; 106); liturgikoak, tenpluan sartzeko behar diren baldintzak gogorarazten dituztenak (Sal 15; 24; 91; 95; 134); profetikoak, orakulu, agintza, salaketa eta bestez elkargoaren eskakizunak agertzen dituztenak (Sal 14; 50; 52; 53; 75; 81); zuhurtziazkoak, erran nahi baita, legearen hausnarketa, zintzo eta gaixtoeri buruzko gogoeta eta, bereziki, Jainkoak emaiten duen ordainaren arazoa gai dutenak (Sal 1; 37; 49; 73; 112; 119; 127; 128; 133; 139).*

Halere, sailkapen hauek ez dira zorrozki hartzekoak. Titulu gehienetan, salmo bakotxaren literatur mota adiarazi nahi izan dugu.

Israelen otoitz ditugu salmoak. Jesusek ere kantatu zituen (adib., Mk 14,26), eta aipatu ere bai maiz, ala irakaspenean (Mk 12,10; 12,36), ala otoitzean (Mk 15,34; Lk 23,46). Lehen kristauek ere salmoekin egiten zuten otoitz (ik. Eg 4,24-26). Minez intzirika edo pozez oihuka, konfiantza gozoz edo kexu garratzez, Jainkoarenganat hurbildu nahi duen edonork iturri agortezina ditu salmoak.

SALMOAK

1. SALMOA

Bi bideak

¹ Dohatsua¹ gaixtoen aholkuari jarraikitzen ez zaiona,
bekatarien bidetik ez dabilena,
trufatzaileen artean jartzen ez dena;

² baizik Jaunaren hitza atsegin zaiona
eta hitz hori gau eta egun hausnartzen duena².

³ Ur bazterrean landatu zuhaitzaren iduriko da:
bere sasoinean fruitua dakar, eta ez zaio historik eihartzen,
egiten duen guzia ongi zaio ateratzen.

⁴ Ez da hori, ez, gaixtoen zoria:
haizeak deraman orbelaren iduriko dira.

⁵ Auzi-egunean gaixtoek ez dute xutik iraunen;
zintzoen batzarrean ez da bekataririk izanen.

⁶ Jaunak du zintzoen bidea zaintzen;
gaixtoena, berriz, hutsean da galtzen.

2. SALMOA

Jainkoak bere erregea hautatu

¹ Zer dabilta nazioeak asaldaturik?

¹ **1,1** *Dohatsua*: Lehen bi salmoak dohatsutasun batez hasten eta bururatzen dira, eta Salmo-liburu osoaren sarreratzat har daitezke.

² **1,2** *hausnartzen duena* : Meditazione hau testua ahots ixilean irakurriz egin ohi zen.

SALMOAK

Zer, asmo hutsal horiek gogoan harturik?

² Jaunaren eta harek hautetsi erregearen³ kontra
hitzartu eta altxatzen dira
mundu huntako erregeak:

³ «Hauts ditzagun heien lokarriak,
erauz heien uztarriak!»

⁴ Zeruko tronuan dagonak egiten du irri,
Jaunari zaizkio trufagarri.

⁵ Haserrez mintzo zaiote,
bere suminaz ikara emaiten diote:

⁶ «Nik sagaratu dut neure erregea Sionen,
neure mendi sainduan».

⁷ Iragarriko dut Jaunaren erabakia.
Erran daut: «Nere semea zira⁴,
gaur, nik, sortu zaitut.

⁸ Eska neri, eta nazioek emanen dauzkizut ondare,
eginen zaitut lur osoaren jabe.

⁹ Burdinazko makilaz dituzu hautsiko,
buztinezko ontzia bezala puskatuko».

¹⁰ Entzun zazue, orai, errege horiek;
zentza zaitezte, munduko buruzagi horiek.

¹¹ Zerbitza Jauna errespetuz,
ahuspeka haren oinetan ikaratuz,

¹² oi jende hilkorra,
hura sumindu eta gal ez dezazuen bizia,
bat-batean pizten baitzaio hari haserrea.
Dohatsuak hura dutenak aterbe!

3. SALMOA

Fededun erasotuaren oihua

³ 2,2 *hark hautetsi erregearen*: H.h., *haren gantzutu/mesiasen; hola deitzen zen olio-gantzuketaz sagaratu erregea* (ik. 6. ber.).

⁴ 2,7 *Nere semea zira*: Jainkoak erregea seme-ordetzat hartzen duela adiarazteko formula (ik. 2 Sm 7,14).

SALMOAK

¹ *Daviden salmoa. Bere seme Absalonenganik ihes zoalarik.*

² Zein ugari, Jauna, nere etsaiak!
Zein ugari kontra altxatzen zaizkitanak!

³ Zein ugari nitaz erranka direnak ari:
«Jainkoak ez du salbatuko hori!»⁵

⁴ Bainan zeure besoan, Jauna, naukazu bildua,
zu nere ohorea, zuk altxatzen dautazu burua.

⁵ Nik Jaunari diot oihu egiten,
eta harek bere mendi saindutik ihardesten.

⁶ Etzaten naiz eta lokartzen,
Jauna berme naiz iratzartzen.

⁷ Milaka gizonak inguratzen banaute,
nik beldurrik ez batere.

⁸ Jeiki, Jauna! Salba nezazu, ene Jainko!
Nere etsaiak matel-hezurrean jotzen dituzu,
gaizkileeri hortzak hausten dizkiezu.

⁹ Zureganik, Jauna, salbamera,
zure herriarentzat benedikapena.

4. SALMOA

Jauna bozkario-emaile

¹ *Koru-zuzendariarentzat⁶. Harizko musika-tresnaz. Daviden salmoa.*

² Deitzen zaitutanean, ihardets, Jainko, ene defendatzaile!
Hersturan, lasaitu nauzu!
Urrikal zakizkit eta entzun nere otoitza!

³ Zuek, handi-mandiek,
noiz arte laidostatu behar duzue Jainkoa, nere Ohorea,

⁵ **3,3** Ber.aren buruan hitz bat dakar jatorrizkoak, otoitzerako errubrika dirudiena. Hitzaren erran-
nahia ezezaguna da.

⁶ **4,1** *Koru-zuzendariarentzat*: Edo *Koru-zuzendariarena*; 45 salmok dakartzate hitz hauek. Salmo-
bilduma bat adiarazten dute, tenpluko kantu-arduradun zen levitarrari zagokiona.

SALMOAK

hutsalkeria maitatuz, sasijainkoen⁷ ondotik ibiliz?

⁴ Jakizue: Jaunak harrigarriak egin ditu
bere fededunaren alde,
entzuten nau deitzen dutanean.

⁵ Ikara zaitezte eta ez egin bekaturik,
gogoeta egizue ohe gainean ixilik.

⁶ Eskaint bidezko sakrifizioak
eta fida zaitezte Jaunari.

⁷ Anitz ari dira erraiten: «Nork emanen dauku zoriona?
Erakutsaguzu, Jauna, zeure aurpegi argitsua».

⁸ Neri, ordea, Jauna, poz handiagoa eman dautazu bihotzean,
horiek ogi eta arno ugari dutenaren aldean.

⁹ Bakean etzaten naiz eta berehala lokartzen,
zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziarazten.

5. SALMOA

Goizeko otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Xirulaz. Daviden salmoa.*

² Entzun, Jauna, nere hitzak,
adi nere auhenak.

³ Zaude erne nere oihuari,
ene erregea, ene Jainkoa,
zuri bainago otoizka;

⁴ goizetik duzu nere mintzoa entzuten;
goizetik dauzute neure auzia agertzen⁸
eta zure beha naiz egoiten.

⁵ Zu ez zira gaixtakeria atsegin zaion Jainkoa.
Gaixtoari ez diozu ongi etorri egiten,

⁶ harroa ez dagoke zure begien aitzinean;
Jauna, gaizkile guziak dituzu hastiatzen,

⁷ gezurtiak suntsitzen,

⁷ **4,3** Jainkoa, nere Ohorea: Edo nere ohorea bakarrik, Jainkoa ez baita jatorrizkoan.

⁸ **5,4** neure auzia agertzen : Edo neure oparia prestatzen dut.

SALMOAK

odolzale eta maltzurak higuintzen.

⁸ Ni, aldiz, zure maitasun handiari esker,
zure etxean sartzen naiz,
zure tenplu saindu alde
errespetuz ahuspekatzen.

⁹ Gida nezazu, Jauna, zeure nahiaren bidetik,
etsaiak hor baititut barrandan,
zelai egidazu zeure bidea nere aitzinean.

¹⁰ Horien ahoan deus ez fidagarririk,
horien bihotza gaixtakeria-ziloa,
zintzurra hilobi zabaldua,
mihia, berriz, leun eta zuria.

¹¹ Zigorzkizu, Jainko, beren hobenagatik!
Lur jo bezate beren xedeengatik!
Botazkizu kanporat beren tzarkeria neurrigabeagatik,
zure kontra jeikitzeagatik.

¹² Orduan, zure baitan aterbetuak dira alaituko,
eta ixildu gabe poz-kantuz ariko.
Zuk zainduko dituzu maite zaituzten guziak,
bozkarioz eginen dituzte jauziak.

¹³ Zuk benedikatzen baituzu zintzoa, Jauna,
onginahiz inguratzen erredolaz bezala.

6. SALMOA

Erasotuaren nigarra⁹

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Zortzi hariko musika-tresnaz. Daviden salmoa.*

² Jauna, ez nezazula zigor zeure haserrean,
ez nezazula zentza zeure suminean.

³ Urrikal nitaz, Jauna, hain naiz ahuldua;
senda nezazu, Jauna, hain ditut hezurak ikara,

⁹ 6 Tradizionalezko 7 penitentzi salmoetan lehena; huna besteak: 32; 38; 51; 102; 130; 143.

SALMOAK

⁴ naizen guzia dardara.
Eta zu, noiz arte, Jauna...?

⁵ Itzul, Jauna, libra nezazu,
salba heriotzetik, ona baitzira.
⁶ Hil eta, nehork ez zaitu dei egiten;
Hilen Egoitzan nork zaitu goresten ?

⁷ Akitzen naiz intzirika.
Gauero malkoz bustitzen dut ohea,
nigarrez trenpan uzten etzalekua.
⁸ Begiak nahigabez ditut lausotuak,
hainbeste etsairen artean ahulduak.

⁹ Urrunt eneganik, zuek, gaizkileak,
entzun baititu Jaunak nere nigarrak.
¹⁰ Bai, entzun du nere deia,
onartu Jaunak nere otoitza.
¹¹ Ahalge bite eta izi nere etsaiak!
Gibelerat egin bezate, bat-batean ahalgetuak!

7. SALMOA

Jaunari, juje zuzenari, deika

¹ *Auhen-doinuan. Davidena. Kux¹⁰ benjamindarra zela eta Jaunari abestu ziona.*

² Jauna, ene Jainkoa, zu zaitut aterbe.
Gibeletik ditut: salba nezazu eta libra,
³ lehoinak bezala harrapa ez nezaten,
lepoa eginen dautate
eta nehork ez nau libratzen ahalko.

⁴ Jauna, ene Jainkoa, zerbaitetan huts egin badut,
nere eskuetan bidegabekeriarik baldin bada,
⁵ lagunari gaizkia ordaindu badiot

¹⁰ 7,1 *Kux*: Pertsona hau ezezaguna da.

SALMOAK

eta etsai zuzengabeari barkatu,
⁶ lasterka nezala etsaiak eta harrapa,
lurrean zangopila nezala
eta nere erraiak errautsean barreia!

⁷ Jeiki zaite haserreturik, Jauna!
Altxa nere etsaien furfuriaren kontra!
Xuti zaite, ene Jainko, antola epaiketa!
⁸ Bil daitezela herri guziak zure inguruan,
eta jar zaite heien batzarburu, gain hartan.

⁹ Jauna da herrien jujea!
Aitor zazu, Jauna, zuzena eta hobengabea naizela.
¹⁰ Geldiaraz gaixtoen gaixtakeria, azkar zazu zintzoa,
bihotz-barneak ikertzen dituzun Jainko zuzenak.

¹¹ Jainkoa dut erredola,
bihotz zuzenekoen salbatzailea.
¹² Juje zuzena da Jainkoa,
gaizkilea zigorrik gabe uzten ez duena
¹³ bide-oneratzen ez bada.

Gaizkileak ezpata zorrozten du,
arkua tirantzen eta prest atxikitzen.
¹⁴ Beretzat ditu hiltzeko tresnak prestatzen,
suzko geziak pizten¹¹.

¹⁵ Horra, gaixtakeriaz betea da:
gaizkiaz ernaldtu eta
gezurraz erditzen da.
¹⁶ Ziloa egiten du, barnatzen,
eta berak zabaldu zilorat amiltzen.
¹⁷ Buruaren gainerat erortzen zaio bere tzarkeria,
buru-hezurraren gainerat bere indarkeria.

¹⁸ Goretsiko dut Jauna, zuzena delako,

¹¹ **7,13-14** Hunela ere itzul daiteke: *Berriz ere etsaiek ezpata zorrozten dute, arkua tinkatu eta botatzeko prestatzen; 14 hiltzeko tresnak prestatzen dituzte, suzko geziak pizten; jatorrizkoak ez du subjektua zehazten.*

Goi-goiko Jaunaren izenari diot kantatuko.

8. SALMOA

Jainkoaren handitasuna eta jendearen duintasuna

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Dolareak» doinuan¹². Daviden salmoa.*

² Jauna, gure Jauna,
zein miragarria mundu guzian zure izena!

Zeruek baino hobeki kantatzen du zure ospea!

³ umetxoen eta bularreko haurtxoen ahoz
goresmen hartu duzu zeure kontrako bizkar,
etsai mendekatzailearen ixilarazteko.

⁴ Zeure eriez moldatu duzun ortzia,
han zuk ezarri dituzun ilargi-izarrak ikusita,
⁵ zer da jendea, zu hartaz oroitzeko?
Zer jendea, zu hartaz arduratzeko?

⁶ Jainko baten heintsukoa egin duzu,
ohorez eta aintzaz koronatu;

⁷ zeure eskulanean buru ezarri duzu,
denak haren menpera bildu,

⁸ abere oro, handi ala ttipi,
bai eta landako basihizi,

⁹ zeruko hegaztiak eta itsasoko arrainak,
itsasoetan barna dabiltzanak.

¹⁰ Jauna, gure Jauna,
zein miragarria mundu osoan zure izena!

9. SALMOA

¹² **8,1** «Dolareak» doinuan: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoaren erran-nahia zalantzazkoa da.

SALMOAK

Zapalduaren geriza den Jainkoari gorespen-kanta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Almut labben*¹³. *Daviden salmoa.*

² Jauna, bihotz-bihotzez nahi zaitut ospatu,
zure egintza miresgarriak oro kondatu,

³ zure ohoretan pozik dantzatu,
zure izena, Goi-goikoa, kantatu.

⁴ Nere etsaiak, gibelerat egitean,
behaztopatu eta hil dira zure aitzinean.

⁵ Juje zuzena, juje-mahaian jarririk,
nere eskubidea eta auzia zaindu dituzu.

⁶ Nazioneeri mehatxu egin diozute,
gaixtoak hondatu, heien izena betiko deuseztu.

⁷ Etsaiarenak egin du: betikotz hondatua,
heien hiriak suntsituak, oroitzapena ere galdua.

⁸ Juje da Jauna betiko,
alkia sendotu du auzirako:

⁹ mundua justiziaz du gobernatzen,
herriak zuzenbidez jujatzen.

¹⁰ Jauna ihesleku du zapalduak,
ihesleku larrialdian.

¹¹ Ezagutzen zaituztenak zutan fida daitezela,
zureganat jotzen duena ez baituzu bere gain uzten, Jauna.

¹² Egizue kantu Sionen dagon Jaunari,
aldarrika herrien artean haren egintza bikainak!

¹³ Hiltzailea zigortu gabe uzten ez duenak
ez ditu ahanzten dohakabeen oihuak.

¹⁴ Urrikal nitaz, Jauna, ikus ene atsegabea.
Bazter nezazu heriotzeko ateetarik,

¹³ **9,1** 9--10 salmoak, beste hainbat bezala (25; 34; 37; 111; 112; 119; 145) alfabetikoak dira, erran nahi baita, bertset bakotzeko lehen hitza alfabetoaren letra batez hasten dela, alfabetoaren ordenan; halere, egitura hau ez da beti zorrozki begirutzen. // *Almut labben*: erran-nahia ezezaguna da. *Semearengatik hil* itzul daiteke h.h.

SALMOAK

¹⁵ zure egintzak konda ahal ditzatan
Sion hiri ederreko¹⁴ ateetan,
eta zuk eman garaipenaz alaitu ahal nadin.

¹⁶ Berek egin ziloan sartu dira nazioneak;
berek ezarri sarean trabatu zaizkiote oinak.

¹⁷ Jauna agertu da, justizia ezarri du:
gaixtoa, berak egin gaiztakeriak harrapatu.

¹⁸ Doazila Hilan Egoitzarat gaixtoak,
Jainkoa ahanzen duten nazione guziak !

¹⁹ Ez, Jainkoak ez du ahanzen behartsua;
dohakabeen itxaropenak ezin huts egin.

²⁰ Jeiki, Jauna. Ez bedi nagusi jendea!
Juja nazioneak zeure aitzinean!

²¹ Betezkizu beldur-ikaraz, Jauna,
nazioneek jakin dezaten hilkorak direla.

10. (9.) SALMOA

Gaizkileez Jainkoarekin elkarrizketa¹⁵

¹ Jauna, zergatik zaude hoin urrun?
Zergatik zira hola gordetzen larrialdian?

² Gaixtoak zapaltzen du harrokeriaz behartsua,
asmatzen dituen azpikerietan dauka harrapatua.

³ Nahi zuena ardietsi duela eta, harro dabil;
irabazi eta Jauna du madarikatzen eta mespretxatzen.

⁴ Bekokia altxaturik, ez da axolatzen:
«Ez da Jainkorik¹⁶», du pentsatzen.

⁵ Egiten duen guzietan ongi ateratzen da;

¹⁴ **9,15** *Sion hiri eder*: H.h., *Sion alaba*, Jerusalem hiriaren pertsonifikazioe poetikoa.

¹⁵ **10,1** *9--10 Salmoak* elkarturik, salmo bakar bezala emaiten dira grekozko eta latinezko itzulpenetan. Hortik sortzen da ondoko salmoen zenbaki-diferentzia. Parentesi arteko zenbakia itzulpenei dagokiotena da.

¹⁶ **10,4** *Ez da Jainkorik*: Segurenik, hau erran nahi da: *Jainkoak ez du munduan eraginik* (ik. 11-13 ber.ak).

SALMOAK

Jainkoaren erabakiak harentzat goregiak dira;
etsaiak ez zaizkio axola.

⁶ «Ez naiz kordokatuko —dio bere baitan—;
zoriontsu izanen naiz beti, makurrik gabea».

⁷ Ahoa betea du madarizionez, maltzurkeria eta gogorkeriaz,
mihipea makurrez eta gaixtakeriaz.

⁸ Hiri-inguruetan barrandan dago,
gordean hobengabearen hiltzeko,
gizagaixoa ez du begietarik utziko.

⁹ Barrandan dago gorderik, nola lehoina bere sasia,
barrandan, dohakabearen harrapatzeko:
bere sarera bilduz hura du harrapatuko.

¹⁰ Ukurturik, narraska joan eta
gizagaixoaren gainerat erortzen da.

¹¹ Hunela dio bere baitan: «Jainkoa ez da oroitzen,
begiak ditu hesten, ez du nehoiz deus ikusten».

¹² Jeiki, Jauna! Altxa eskua!
ez ahantz dohakabea.

¹³ Nolaz du gaixtoak Jainkoa gutiesten?
Uste du ez duzula kondurik eskatzen.

¹⁴ Ikusten dituzu, bai, neke eta nahigabeak,
ikusten eta zeure gain hartzen guziak.
Zure gain uzten du gizagaixoak bere zoria,
umezurtzak zu zaitu bere geriza.

¹⁵ Hauts gaixtoaren besoa,
ez dadila gehiago aurki tzarren gaixtakeria.

¹⁶ Jauna errege da betidanik betiko!
Desager bite sinesgabeak haren lurraldetik!

¹⁷ Entzun duzu, Jauna, apalen gutizia,
eman diozute bihotz eta zabaldu duzu beharria,

¹⁸ umezurtz eta zapalduaren gerizatzeke;
eta lurtiar batek ez du gehiago nehor izituko.

11. (10.) SALMOA

SALMOAK

Jainkoaren justizian uste ona

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Davidena.*

Jaunaren baitan dut aterbe. Nolaz erraiten dautazue:

«Ihes egizu mendirat, xoria!

² Gaixtoek arkua tirandu dute
eta gezia arku-harian ezarri,
bihotz zuzenekoak ilunpean jotzeko.

³ Oinarriek huts egitean,
zintzoak zer egin orduan? »

⁴ Jauna bere tenplu sailduan da, zeruan du tronua:
so dago munduari, jendeak ditu ikertzen.

⁵ Jaunak zintzoa eta gaixtoa ditu ikertzen,
eta gogorkeria-zalea hastiatzen.

⁶ Igor dezala ikatz gori eta sufre-auria horien gainerat!
Izan bedi haize kizkalgarria horien zoria!

⁷ Bai, zintzoa da, Jauna; zuzen jokatzera du maite:
haren aurpegia zuzenek ikusiko dute¹⁷.

12. (11.) SALMOA

Mundu galduaren erdian Jaunari deia

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Zortzi hariko musika-tresnaz. Daviden salmoa.*

² Salba gaitzazu, Jauna, ez baita gehiago fededunik,
jendean ez da gehiago leialtasunik!

³ Gezur hutsa elkarren arteko hitza,
lausengaria dute ezpaina, maltzurra bihotza.

⁴ Motz beza Jaunak orenen ezpain lausengaria,
handikeriaz mintzo direnen mihia.

⁵ Hunela baitiote: «Mihian dugu indarra;

¹⁷ 11,7 haren aurpegia... dute: Hunela ere itzul daiteke: haren aurpegiak zuzeneri behatzen

SALMOAK

ezpainak alde ditugularik, nor zaiku nagusituko ? »

⁶ Bainan Jaunak dio: «Pobreak zapaltzen dituztelakotz, behartsuak intzirika ari direlakotz, orai jeiki eta salbatuko dut hasperenka ari dena».

⁷ Garbiak dira Jaunaren hitzak, zilar garbitua¹⁸, zazpitan arragoan findua.

⁸ Zuk, Jauna, zainduko gaituzu beti, zuk begiratuko holako jendearenganik:

⁹ inguruka dabiltzan gaixtoenganik, jendartean nagusi den tzarkeriatik¹⁹.

13. (12.) SALMOA

Atsegabetuaren deiadarra

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Noiz arte, Jauna? Betikotz ahantzi behar ote nauzu? Noiz arte zeure aurpegia gorde behar dautazu?

³ Noiz arte behar dut egon kezkatua, bihotza geldigabe penatua? Noiz arte egon etsaiak menperatua?

⁴ Begira, ihardets, Jauna, ene Jainko! Egiezu argi nere begieri, herio-loak ez nezan jo,
⁵ ez dezan etsaiak nitaz erran: «Garaitua!». Ez dadin arerioa nere hondamenaz goza!

⁶ Zure maitasunean dut konfiantza; zure salbamenduak bozkaria beza nere bihotza! Jaunari kantuz eskertuko diot egin dautan ongia.

¹⁸ **12,7** *zilar garbitua*: Ondotik, erran-nahi iluneko bi hitz datoz jatorrizkoan.

¹⁹ **12,9** Bigarren lerroko testua iluna da.

14. (13.) SALMOA

Sinesgabearen zentzugabekeria

(Sal 53)

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Davidena.*

Hau dio zoroak bere baitan: «Ez da Jainkorik²⁰».
Ustelduak dira, higuingarriak,
ez da nehor ongia egiten duenik.

² Jauna jendeeri so dago zerutik,
ba ote den zentzudunik,
Jainkoaren bilatzera entseatzen denik.

³ Denak bidegalduak dira, bat egin dute gaizkian;
nehor ez da ongi ari denik,
bat bera ere.

⁴ Ez ote dute ikasiko gaixtaginek,
nere herria ogia bezala jaten dutenek
eta Jaunari dei egiten ez dioten horiek?

⁵ Bai, beldurrez ikaratuko dira,
beldurtzekorik ez izanagatik,
zintzoen alde baita Jauna.

⁶ Behartsuaren xedeez irri egiten duzue,
bainan haren aterbea Jauna da.

⁷ Ai! etor dadila Siondik Israelen salbamendua!
Jaunak aldatuko duenean bere herriaren zoria²¹,
poztuko da Jakob, alaituko Israel.

15. (14.) SALMOA

Tenpluan sartzeko baldintzak

¹ *Daviden salmoa.*

²⁰ **14,1** *Ez da Jainkorik:* Ik. 10,4 oh.

²¹ **14,7** *herriaren zoria:* Hunela ere itzul daiteke: *herriko erbesteratuak itzularaziko dituenan.*

SALMOAK

Jauna, nor egonen da zure etxean?
Nor biziko zure mendi sainduan^{22?}

² Jokabide prestua duena, justiziaren arabera ari dena,
bihotz baretik egia diona.

³ Harek mihi az nehor ez du belzten,
nehori kalterik ez egiten,
aldeko laguna ez iraintzen;

⁴ mespretxagarria du gutiesten
eta jainkozaleak²³ ohoratzen;

bere kaltetan izanik ere
eman hitza du atxikitzen;

⁵ dirua intresik eskatu gabe prestatzen
eta hobengabearen kaltetan ixilpeko emaitzarik ez hartzen.

Hola jokutzen duena ez da sekula kordokaturen.

16. (15.) SALMOA

Jauna nere ondarea

¹ *Miktam*²⁴. *Davidena*.

Begira nezazu, Jauna, zu baitzaitut aterbe.

² Jaunari erran diot: «Zu zira ene Jauna,
zu bakarrik ene zoriona».

³ Lurralde huntako Jainkoak
«ahaltsu» deitu horiek nituen atsegin^{25?}

⁴ Meta bite makurrak
horien gibeletik dabiltzanen gainean!

²² **15,1** *etxean*: H.h., *etxolan*; Jerusalemgo tenplua, basamortuko saindutegia bezala deitzen zen; *mendi saindua* tenplua eraikia zen mendia da.

²³ **15,4** *Jainkozaleak*: H.h., *Jainkoaren errespetua dutenak*. Gehienetan, *hola* itzuli dugu. *Jainkoarenganako beldur/errespetuaz* ik. Er 1,7 oh.

²⁴ **16,1** *Miktam*: Hitz tekniko hau hemen eta 56--60 *Salmoetan* agertzen da. Erran-nahia ezezaguna da. Zenbait itzulpen modernok *Poema* edo *Ahots ixilez* itzultzen du.

²⁵ **16,3** Ber. osoko testua iluna da; *jainkoak* jatorrizkoan *sainduak* da, kanaandar jainkoen izena.

SALMOAK

Nik ez diotet sakrifizioen odolik eskainiko,
ez eta ezpainetan heien izenik erabiliko.

⁵ Zu zaitut, Jauna, neure on guzia,
neure kopa, benedizionez betea;
zure esku da nere zoria!

⁶ Zoragarria nere etxe-partea,
zein ederra nere ondarea!

⁷ Benedikatu nahi dut Jauna, harek baitaut aholku emaiten,
gauaz ere, nere baitan harek dei egiten.

⁸ Begien aitzinean dut beti Jauna,
hura ondoan dutala, ez naiteke kordoka.

⁹ Horrengatik, alai daukat bihotza,
pozik arima, lasai gorputza.

¹⁰ Ez bainauzu Hilen Egoitzarat igorriko,
zure fededuna ez duzu hilobian galtzerat utziko.

¹¹ Bizirateko bidea dautazu erakutsiko:
alaitasun betea zure aurpegiaren aitzinean,
betiko zoriona zure eskuinean.

17. (16.) SALMOA

Hobengabea justizia eske

¹ *Daviden otoitza.*

Entzun, Jauna! Justizia eske natorkizu!
Adi nere oihua, nere otoitzerat itzul beharria:
ez dut gezurrik ezpainetan.

² Auzia nere alde xuri zazu,
nere zuzentasuna ikusazu.

³ Iker nere barnea, mia zazu gauaz, froga suaz:
ez duzu aurkituko nere baitan makurrik; ez eta nere ahoan hutsik.

⁴ Jende zuzenak ohi duen bezala;
begiratu dut zure hitza,

⁵ zure herrestoetarik nere urratsak ez dira baztertu,

SALMOAK

nere oinak ez dira kordokatu.

⁶ Deika nagozu, Jainko; ihardesten dautazu.

Itzul nereganat beharria, entzun nere eskaria.

⁷ Erakuts zeure maitasun harrigarria,
erasotzaileenganik baitituzu salbatzen
zure esku ahaltsuan direnak gerizatzen.

⁸ Begira nezazu zeure begi-ninia bezala,
gorde nezazu zeure hegalen pean,

⁹ larrutu nahi nauten gaizkileenganik,
inguratzen nauten etsai amorratuenganik.

¹⁰ Urguluz hantuak daude²⁶;
heien ahoeri harrokeria dariote.

¹¹ Gainean ditut, inguratua naute,
ni lurrerat aurtikitzeke beti abian,

¹² ihizia puskatu nahi duen lehoina bezala,
barrandan dagon lehoinkumea bezala.

¹³ Jeiki, Jauna! Zoazkiote aitzinerat, aurtik lurrerat!
Salba nezazu zeure ezpataz gaizkileenganik!

¹⁴ Haizazkizu zeure eskuz, Jauna,
haiza mundutik! Gal bite bizidunen artetik!
Erresalbuan daukazunaz bete heien sabela;
asezkizu horien seme-alabak,
eta utz bezate soberakina beren haurrentzat²⁷.

¹⁵ Nik, zure zuzentasunaz, zure aurpegia dut ikusiko,
iratzartzean, zure begitarateaz naiz gozatuko²⁸.

18. (17.) SALMOA

Errege garailearen gorazarrea

(2 Sm 22)

²⁶ **17,10** *Urguluz... daude*: H.h., *Gantzaz hantuak daude*; urguluaren adiarazteko irudia.

²⁷ **17,14** Ber.eko testua iluna da jatorrizkoan eta itzulpena zalantzazkoa. Eskatzen da Jainkoak erresalbuan dauzkan zigorrez ase ditzan gaizkileak eta heien ondokoak.

²⁸ **17,15** *Nik... naiz*: Hunela ere itzul daiteke: *Nik, zuzena bainaiz, zure aurpegia ikusiko dut; iratzartzean, zure presentziaz aseko naiz*.

SALMOAK

¹ *Koru-zuzendariarentzat. David Jaunaren zerbitzariarena. Jaunak bere etsai guzietarik eta Saulen eskuetarik askatu zuenean, gorazarre hau kantatu zion Davidek.*

² Maite zaitut, Jauna, zu nere indarra!

³ Jauna, nere harroka, nere gaztelu, nere askatzailea, nere Jainko, gerizatzen nauen harkaitza, nere begirale eta indar salbatzaile, nere gotorlekua!

⁴ Goretsia zu! Jaunari dei egin diot eta etsaienganik salbatu nau.

⁵ Herio-lokarriek inguratzen ninduten, uholde gaixtoek ikaratzen,

⁶ Hilan Egoitzako lokarriek lotzen, herio-sareek harrapatzen.

⁷ Hersturan dei egin diot Jaunari, deiadar ene Jainkoari.

Eta entzun du bere tenplutik nere oihua, haren beharrietaraino heldu da nere deiadarra.

⁸ Ikaratu da lurra eta dardaratu, mendien oinarriak higitu, Jainkoaren haserreak baititu kordokatu.

⁹ Kea dario sudurretik, su kizkalgarria, ikatz goriak ahotik.

¹⁰ Beheititu du zerua eta jautsi da, oinen pean hodei beltza,

¹¹ hegaldaka doa izaki hegaldun baten gainean, airez aire haizearen hegalean.

¹² Gordelekutzat hartzen ditu ilunpeak, hodei beltz euritsuak.

¹³ Haren aitzineko distiraz, bazizkor eta ikatz goritan lehertzen dira hodeiak.

¹⁴ Zeruetarik ortzantz egiten du Jaunak, oihi egiten Goi-goikoak:

¹⁵ Geziak tiratzen ditu eta barreiatzen, ximistak egin eta etsaieri nagusitzen.

¹⁶ Orduan itsasoaren zola ikusi zen, lurraren oinarriak agertu ziren

SALMOAK

Jauna, zure orroen mehatxuaz,
zure sudurreko haserre-ziztuaz.

¹⁷ Gain hartarik eskua luzatuz nau hartzen
eta uholdetik ateratzen.

¹⁸ Salbatzen nau nagusi nituen etsaienganik,
ni baino indartsuago ziren herratsuenganik.

¹⁹ Lur joa nindagonean oldartu zitzaizkitan,
bainan hor nuen Jauna sustengu.

²⁰ Bidea daut zabaldu,
maite nauelakotz harek libratu.

²¹ Jaunak eman daut neure zuzentasunaren ordaina
neure jokabide garbiaren saria.

²² Jaunaren bideari naiz jarraitu,
Jainkoarenganik ez naiz urrundu.

²³ Aitzinean dauzkat haren arauak,
begiratzen ditut haren manamenduak.

²⁴ Haren aitzinean zintzo naiz,
bekatu orotik begiratzen naiz.

²⁵ Jaunak neure zuzentasunaren arabera daut eman,
garbiak baititut eskuak haren begietan.

²⁶ Leialarekin leial zira,
zintzoarekin zintzo,

²⁷ asmo garbikoarekin garbi,
asmo tzarrekoarekin bihurri.

²⁸ Zuk duzu herri zapaldua salbatzen
zuk begi ozarrak apaltzen.

²⁹ Zuk pizten duzu nere argia, Jauna,
nere ilunpea zuk argitzen, ene Jainkoa.

³⁰ Zuri esker jauzian pasatzen dut pezoina,
zuri esker, ene Jainko, iragaiten harresia.

³¹ Jainkoaren bidea ezin hobea,
Jaunaren hitza sinesgarria,
haren aterberat doana, ongi gerizatua.

³² Nor Jainko, Jauna baizik?
Nor harkaitz, gure Jainkoa baizik?

SALMOAK

- ³³ Jainkoak nau indarrez janzen,
bide zuzenetik ibilarazten.
- ³⁴ Oreinarenak bezain arin dauzkit oinak egiten,
eta gainetan sendo nau ezartzen.
- ³⁵ Trebatzen dauzkit eskuak gudurako,
eta besoak brontzezko arkuaren tirantzeko.
- ³⁶ Erredolak bezala gordetzen nauzu eta salbatzen,
zure eskua dut indar;
ihardesten dautazu eta emaiten oldar.
- ³⁷ Bidea dautazu zabaltzen
eta oinak ez zaizkit behaztopatzen.
- ³⁸ Etsaiak lasterkatzen ditut eta harrapatzen,
denak suntsitu arte ez naiz itzultzen.
- ³⁹ Lehertu ditut, ez dira xutitzen,
nere oinperat dira erortzen.
- ⁴⁰ Gudurako indarrez janzen nauzu,
arerioak menpean ezartzen dauzkidazu.
- ⁴¹ Nere etsaiak dituzu ihes igortzen,
hastio nautenak ditut hondatzen.
- ⁴² Dei egiten dute, bainan nehork ez salbatzen,
Jaunari oihu, bainan harek ez entzuten.
- ⁴³ Haizeak deraman errautsa bezala ditut xehatzen,
karriketako lohia bezala zangopilatzen.
- ⁴⁴ Herriaren jazarraldietarik nauzu ateratzen,
atzerritarren buruzagi ezartzen.
Herri ezezaguna jarri zait zerbitzari;
- ⁴⁵ arrotzak ditut lausengari,
lehen hitzean naute obeditzen,
- ⁴⁶ atzerritarrak dira ahultzen,
eta beren gordelekuetarik dardaraka ateratzen.
- ⁴⁷ Gora Jauna, benedikatua ene harekaitza!
Goretsia ene Jainko salbatzailea!
- ⁴⁸ Ene Jainko, zuk mendekatzen nauzu,
herriak menpean ezartzen dauzkidazu.
- ⁴⁹ Etsai amorratuen artetik nauzu ateratzen,
erasotzaileen garaile egiten,

SALMOAK

gizon zakarrarenganik askatzen.

⁵⁰ Horrengatik, Jauna, atzerritarren artean zaitut goretsiko, zure omenez dut kantatuko.

⁵¹ Garaipen handiak eman diozka bere erregeari, leialtasuna erakutsi bere gantzutuari²⁹, Davidi eta haren ondokoeri betiko.

19. (18.) SALMOA

Jainkoaren aintza kreazionean eta legean

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Zeruek Jainkoaren aintza dute kondatzen, ortziak haren eskuen lana goraki adiarazten.

³ Mezua igortzen dio egunak egunari, jakinarazten gauak gauari,

⁴ hitzik gabe, mintzorik gabe: ixila izanagatik heien ahotsa,

⁵ lur guzirat da zabaltzen heien hotsa, bazterretik bazterreraino heien mintzoa.

Han ezarri dio Jainkoak eguzkiari egoitza:

⁶ Senarra ezkontza-gelatik bezala ateratzen da, atletaren pare, pozik bere lasterketaren egitera;

⁷ zeru-alde batetik atera eta beste alderaino haren itzulua: haren berotik nehork ez du ihes egiterik!

⁸ Jaunaren hitza ezin hobea: hasberritzen du jendea;

Jaunaren manamendua fidagarria: zuhur bilakatzen du heldugabea;

⁹ Jaunaren legeak zuzenak, bihotzaren pozgarri; Jaunak manatua distiratsua, begien argigarri.

¹⁰ Jaunaren errespetua garbia: betiren betikoa;

Jaunaren erabakiak egiazkoak: denak bidezkoak,

¹¹ urrea, urre garbia baino gutziagarriagoak,

²⁹ **18,51** gantzutu: Ik. 2,2 oh.

SALMOAK

eztia, ezti berria baino gozoagoak.

¹² Zure mutil hunek heietan du argi,
heien betetzea guziz onuragarri.

¹³ Bere hutsak nork ezagutzen ditu?
Hoben gordeetarik aska nezazu.

¹⁴ Harrokeriatik begira nezazu: ez dakidala nagusitu;
orduan ezin hobea izanen naiz, bekatu larritik aske.

¹⁵ Atsegin bekizkizu nere hitz eta gogoeta,
oi Jauna, ene harroka eta geriza!

20. (19.) SALMOA

Erregearen garaipenerako eskaria

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden Salmoa.*

² Entzun zaitzala Jaunak herstura-egunean,
Jakoben Jainkoak begira zaitzala toki segurean!

³ Igor diezazula laguntza bere saildutegitik,
indar eman Sion menditik!

⁴ Gogora ditzala zure eskaintza guziak
eta atseginez onar zure erre-oparia!

⁵ Eman diezazula nahi duzuna,
bete ditzala zure xede guziak!

⁶ Bozkaria gaitezen zure garaipenean,
banderak zabalduz gure Jainkoaren izenean!
Bete ditzala Jaunak zure eskari guziak!

⁷ Orai badakit:

Jaunak garaipena dio bere errege gantzutuari emaiten;
zeruetako saildutegitik ihardesten,
bere ahalmen handiko garaipenekin.

⁸ Batzu azkar gudu-karroekin, beste batzu zaldiekin;
gu, berriz, Jaunarekin, gure Jainkoarekin.

⁹ Heiek makurtzen dira eta erortzen;
guk, berriz, xutik, ihardokitzen.

¹⁰ Jauna, emozu erregeari garaipena!

Ihardets, dei egiten dauzugunean!³⁰

21. (20.) SALMOA

Garaipen-kantua

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Jauna, erregea zure indarrarengatik pozik dago,
zein alai, garaipena eman diozulako!

³ Gutiziatzen zuena eman diozu
galdegiten zuena ez diozu ukatu.

⁴ Benedikapenez eta fagorez bete duzu,
urre garbizko korona ezarri diozu.

⁵ Bizia eskatu dauzu, eta zuk eman,
azkengabeko urte luzeetan.

⁶ Zure garaipenaz, handia da haren ospea;
gainerat ixuri diozu aintza eta ohorea.

⁷ Betiko benediziona emaiten baitiozu³¹,
zeure aitzinean pozez betetzen duzu.

⁸ Bai, Jaunaren baitan du konfiantza erregeak;
Goi-goikoa leial zaiolakotz, ez da kordokatuko.

⁹ Zeure eskuaz³² atzemanen dituzu etsaiak,
zeure eskuinaz hastio zaituztenak.

¹⁰ Zure aurpegia agertzean labe goriak ditu hartuko.
Jaunak bere suminaz ditu irentsiko, suan dira kizkaliko.

¹¹ Sunsituko duzu lurretik heien ondoregoa,
jendeen artetik heien askazia.

¹² Zuri hondamena ekarri nahiz,
azpikeriak asmatzen badituzte ere, ez dute deusik ardietsiko.

¹³ Guzieri diozute ihes eginarazten,
zure arkuak ditu erdiz-erdi kausitzen.

³⁰ **20,10** Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoak hau dio: *Jauna, emaguzu garaipena!*
Ihardetsiko dauku erregeak, dei eginen diogunean.

³¹ **21,7** *benediziona emaiten baitiozu:* Hunela ere itzul daiteke: *benediziona egiten baituzu*
(herriarentzat).

³² **21,9** *Zeure eskuaz:* Iduri du 9-13 ber.ak erregeari zuzenduak direla, nahiz eta zenbait adiarazpen -
-haserrea agertzean, adib.-- Jaunarentzat egokiagoak diren.

¹⁴ Jeiki zeure indarrean, Jauna!
Kantuz eta soinu z ospatuko dugu zure ahalmena.

22. (21.) SALMOA

Larrialdiko deiadarra eta esker onezko kantua

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Argi-hasteko basahuntza» doinuan³³.
Daviden salmoa.*

² Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?³⁴
Urrun da salbamendua, nik eginikan ere oihu.

³ Egunaz deika ari nitzaizu, ene Jainko, eta zuk ez ihardesten;
gauaz ere, eta bakerik ez dut aurkitzen.

⁴ Zu, alta, Saindua zira,
Israelen gorespenen artean bizi zirena.

⁵ Gure arbasoak zutan ziren fidatu;
zutan fidatu, eta zuk libratu.

⁶ Oihu egin zauzuten eta zuk askatu;
ustek ez zioten huts egin, zutan baitziren fidatu.

⁷ Ni, berriz, harra naiz eta ez gizakia,
jendeek iraindua, herriak mesprextatua.

⁸ Ikusten nautenek neri trufa,
irriz eta buruaz keinuka :

⁹ «Jaunarengat jo du³⁵; libra beza!
Hainbeste maite badu, salba beza!»

¹⁰ Zuk atera nauzu amaren sabeletik,
zuk haren bularrean lasai ezarri.

¹¹ Zure esku nago sortzetik,

³³ **22,1** «Argi-hasteko basahuntza» doinuan: Segurenik, kantu ezagun baten lehen hitzak aipatzen dira, salmoa zein doinutan abestu behar zen adiarazteko.

³⁴ **22,2** *Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?*: Salmoko lehen hitz hauek Jesusek gurutzean erranak dira (ik. Mt 27,46 eta Mk 15,34). Salmoko beste zenbait xehetasun ere Jesusen pasioneko kontakizunean aipatzen dute ebanjelariak.

³⁵ **22,9** *jo du*: Lehengo itzulpenen arabera; hebrearezkoak *jo dezala* dio.

SALMOAK

zu zaitut Jainko amaren sabeladanik.

¹² Ez egon eneganik urrun, hurbil baitut herstura,
eta nehor ez heldu ene laguntzera.

¹³ Zezen-talde handiak nau inguratzen,
abere izigarriek³⁶ hertsatzen;

¹⁴ ahoa zabalik daude nere kontra,
orroaz lehoin harraparien gisa.

¹⁵ Ur ixuria bezala banoa,
hezur guziak ditut kordoka;
bihotza, ezkoa bezala,
urtzen ari zait sabelean.

¹⁶ Teilakia bezain idorra dut ahosabaia,
matel-hezurrari lotua mihia,
herioaren errautsetan nauzu ezarria.

¹⁷ Zakurrek naute inguratzen,
gaizkile-talde batek hertsatzen;
zilatzen dauzkidate eskuak eta oinak,

¹⁸ konda dezazket neure hezur guziak.
Heiek ikusten naute, so daude.

¹⁹ Nere jantziak dituzte banatzen,
nere soinekoaz xotxak ateratzen.

²⁰ Bainan zu, Jauna, ez egon urrun!
Zu, nere indarra, laster laguntzera zatozkit!

²¹ Libra zazu ene bizia ezpatatik,
atera nezazu zakur horien aztaparretatik,

²² salba nezazu lehoinaren ahotik,
bufaloen adarretatik.

Ihardetsi dautazu!

²³ Aipatuko dut zure izena neure haurrideen artean,
goretsiko zaitut batzarraren erdian.

²⁴ Goretsazue Jauna, haren errespetua duzuenek!
Goraipa zazue, Jakoben ondoko guziek!

Adora zazue, israeldar horiek!

²⁵ Jaunak ez du gutietsi ez eta arbuiatu

³⁶ **22,13** *abere izigarriak*: H.h., *Baxango abereak*. *Baxan* Genesaret lakuaren eguzkialdeko lurralde da, abeltzaintzagaratik ospetsua (ik. Am 4,1).

SALMOAK

gizagaixoaren zorigaitza,
ez du harenganik baztertu aurpegia:
entzun du haren oihua.

²⁶ Goretsiko zaitut batzar handian,
neure botuak beteko ditut zure errespetua dutenen aitzinean.

²⁷ Asetzeraino janen dute behartsuek,
Jauna goretsiko haren bila dabiltzanek:
Zueri bizitza luze eta dohatsua!

²⁸ Jaunaz oroituko da lurreko herri oro
eta harenganat itzuliko,
herrietako familia oro
haren aitzinean ahuspekatuko.

²⁹ Jauna errege da, herri guzien nagusi!

³⁰ Hari ahuspekatuko zaizkio lurreko boteredunak,
haren aitzinean ukurtuko hiltzera doatzinak,
biziberritzen baitu Jainko garaileak³⁷.

³¹ Nere ondokoek Jauna dute adoratuko,
Jaunaz hitz eginen diete ondoko gizaldieri,

³² haren egintza salbagarriaren adiarazteko
sortzekoa den herriari.

23. (22.) SALMOA

Konfiantzazko otoitza

¹ *Daviden salmoa.*

Jauna dut artzain: ez naiz deuseren beharretan.

² Atsedean emaiten daut pentze gizenetan,
iturri lasaietarar eremaiten,

³ eta indarrak berritzen;

bide onetik nerama,
leiala baita³⁸.

³⁷ **22,30** Ber.eko testua iluna da, eta itzulpenak ez datoz beti bat.

³⁸ **23,3** *leiala baita*: H.h., *bere izenarengatik*, erran nahi baita, izaitez leiala delakotz.

SALMOAK

⁴ Iraganik ere ibar beltzetarik,
ez dut gaitzaren beldurrik,
zu nerekin baitzira:
zure artzain-makila dut geriza.

⁵ Mahaia prestatzen dautazu aitzinean,
nere etsaien muturrean;
usain gozoa ixurtzen dautazu burura;
kopa dut bete-betea.

⁶ Bai, zoriona eta maitasuna ditut aldean
nere bizi guziko egunetan;
Jaunaren etxean naiz biziko
nere egunek dirauteno.

24. (23.) SALMOA

Tenplu aitzineko liturgi elkarrizketa

¹ *Daviden salmoa.*

Jaunarena da lurra eta han dagona,
mundua eta han bizi den jendea;

² harek ezarri baitu sendo itsasoen gainean,
lur azpiko uren gainean.

³ Nor da Jaunaren mendirat iganen
Nor harek sagaratu tokian egonen?

⁴ Eskuak hobengabe eta bihotza garbi dituen,
sasi-jainkoetarat ez doana,
gezurrezko zinik egiten ez duena.

⁵ Holakoa benedikatu du Jaunak,
justizia eginen dio Jainko salbatzaileak.

⁶ Horiek dira haren bila dabiltzanak,
Jakoben Jainkoa aurkitu nahi dutenak.

⁷ Ateak, altxa zuen atalburuak!
Gora zaitezte, lehengo ateak,
sar dadila, errege ospetsua!

⁸ Nor da errege ospetsu hori?

SALMOAK

Jauna da, indartsu eta beldurgabea,
Jauna, guduan beldurgabea!

⁹ Ateak, altxa zuen atalburuak!
Gora zaitezte, lehengo ateak,
sar dadila, errege ospetsua!

¹⁰ Nor da errege ospetsu hori?
Jaun guziahalduna,
hura da errege ospetsua!

25. (24.) SALMOA

Jainkoaren gidaritza eskatzeko otoitza

¹ *Davidena*³⁹.

Jauna, zuri buruz nago naizen guzia.

² Ene Jainkoa, zure baitan dut ene fidantzia:
Urrunt eneganik ahalgea!

Ez utz etsaia ene garaitzera!

³ Ez dute ahalgetzerik zuri daudenek;
bai, ordea, zentzugabeki baztertzen zaituztenek!

⁴ Ezagutaraz neri, Jauna, zeure bideak,
erakuts ni nondik norat ibiltzea nahi duzun.

⁵ Zuzent nezazu, zurekin leial izan nadin, irakats neri,
zu baitzare salbatzen nauen Jainkoa;
zure beha nago egun guzia.

⁶ Oroit zaite, Jauna, zeure samurtasun eta maitasunaz:
betidanikakoak dituzu.

⁷ Ez oroit, Jauna, gaztetako nere bekatuez
ez eta nere bihurrikeriez.
Nitaz oroit zaite maitasunez.

⁸ Ona eta zuzena da Jauna,
eta bidea erakusten diote bekatarieri.

⁹ Apalak zuzenbidetik deramatza,

³⁹ 25,1 Salmo alfabetikoa da; ik. 9,1 oh.

SALMOAK

bere bidea erakusten diote apaleri.

¹⁰ Jaunak beti maitasunez eta leialtasunez jokatzen du haren elkargoa eta legeak begiratzen dituztenekin.

¹¹ Zirena zirelakotz⁴⁰, barka nere hobena, Jauna, den bezain handia izanagatik!

¹² Haren errespetua duenari, Jaunak jakinarazten dio nola behar duen jokatu.

¹³ Zoriontsu biziko da eta haren ondokoak lurraz jabetuko.

¹⁴ Jaunak adiskide ditu⁴¹ Jaunak haren errespetua dutenak, ezagutarazten diote bere elkargoa.

¹⁵ Jaunari buruz dauzkat beti begiak, saretik ateratzen baitauzkit oinak.

¹⁶ Itzul nereganat eta urrikal zakizkit, bakarrik bainago eta dohakabe!

¹⁷ Handia da nere atsegabea⁴², atera nezazu nere hersturetarik.

¹⁸ Ikus nere nahigabea eta pena, barka nere bekatu guziak.

¹⁹ Ikus zenbat etsai dutan, zein herra gaixtoz hastio nauten.

²⁰ Atxik nezazu bizirik, libra nezazu! Nere uste ona hutsala izan ez dadin, zu baitzaitut aterbe!

²¹ Prestutasunak eta zuzentasunak naute zainduko, zure beha bainago.

²² Ene Jainkoa, libra zazu Israel zorigaitz guzietarik!⁴³

26. (25.) SALMOA

Hobengabearen otoitza

⁴⁰ **25,11** *Zirena zirelakotz*: H.h., *Zeure izenarengatik*; izenak izana adiarazten du maiz Biblian.

⁴¹ **25,14** *Adiskide ditu*: Hunela ere uler daiteke: *Bere barnea agertzen diote*.

⁴² **25,17** Lerroko testua zalantzazkoa da. Grekozko itzulpenak *Nere bihotzaren atsegabeak ugaritu dira* dio.

⁴³ **25,22** Azken ber. hau liturgiarako ezarria da segurenik, bertso-sail alfabetikotik kanpo baitago.

SALMOAK

¹ *Davidena.*

Egidazu justizia, Jauna,
nere jokamoldea prestua baita.
Sendo atxiki dut zureganako konfiantza.

² Mia nezazu, Jauna, froga nezazu,
iker nere gogo-bihotzak.

³ Begien aitzinean dut beti zure maitasuna
eta leial jokatu dut zure alderat;

⁴ ez naiz gezurtien mahaikide izan,
ez eta maltzurrekin ibili;

⁵ hastio dut gaizkileen lagunartea,
ez naiz izan gaixtoen mahaikidea.

⁶ Eskuak garbiturik, hobengabe naizelako seinale,
zure aldarearen ingurua egiten dut, Jauna,

⁷ zure gorespina ozenki hots eginez,
zure egintza miragarriak kondatuz.

⁸ Maite dut, Jauna, bizi ziren tenplua,
zure aintzaren egoitza.

⁹ Ez nezazu egin bekatarien zori bereko,
ez nezazu bilaka hiltzaileen kideko,

¹⁰ eskuak makurkeriaz eta ixilkako emaitzaz
beteak dituzten horien iduriko.

¹¹ Nere jokabidea prestua da:

libra nezazu, urrikal zakizkit!

¹² Segurean ezarriak ditut oinak;
Jauna benedikatuko dut batzarrean.

27. (26.) SALMOA

Jaunaren aterbean beldurrik ez

¹ *Davidena.*

Jauna dut argi eta salbamen: nork nau izituko?

Jauna dut biziaren geriza: nork nau ikaratuko?

SALMOAK

² Gaizkileak, suntsitu nahiz oldartzen bazaizkit,
heiek, ene etsaiak, dira behaztopatu eta eroriko.

³ Armada bat aitzinerat etortzen bazait ere,
nere bihotza ez da ikaratuko;
nere kontra borrokan hasten bada ere, nik fidantzia ez galduko.

⁴ Gauza bat diot Jaunari eskatzen,
hura dut bilatzen:
Jaunaren etxean bizi nadin bizitza guzian,
Jaunaren edertasunari⁴⁴ beha, zaindari haren tenpluan.

⁵ Zorigaitz egunean harek nau aterbetuko,
bere etxola xokoan gordeko, harroka gainerat altxatuko.

⁶ Orai, burua xut daukat
inguratzen nauten etsaien gainetik.
Sakrifizioak eskainiko ditut haren etxolan poz-irrintzinez⁴⁵,
Jaunari kantu eta soinu eginez.

⁷ Entzun, Jauna, deika nagokizu!
Urrikal nitaz, ihardets ezadazu!

⁸ Bihotzak erraiten daut: «Bila zazu Jaunaren aurpegia».
Zure aurpegiaren bila nabil, bai, Jauna.

⁹ Ez gorde neri zeure aurpegia!
Ez bazter zeure zerbitzari hau haserrez,
zu baitzaitut laguntza!
Ez ni bazter utz, ez ni arbuia,
zu, nere Jainko salbatzailea!

¹⁰ Aitamek bazter uzten banaute ere,
Jaunak berekin hartuko nau.

¹¹ Erakuts neri, Jauna, zeure bidea,
ereman nezazu bide ordokitik, etsaiak barrandan baititut.

¹² Ez nezazula utz etsaien esku,
lekuko gezurtiak altxatu baitira nere kontra,
indarkeria dariotela.

¹³ Segur naiz
Jaunaren onezia gozatuko dutala bizien lurraldean.

⁴⁴ **27,4** *edertasunari*: Edo *gozotasunari* (ik. 90,17).

⁴⁵ **27,6** *poz-irrintzinez*: Ik. Zen 10,5 oh.

¹⁴ Zaude Jaunaren beha! Atxik, har kuraia!
Bai, zaude Jaunaren beha!

28. (27.) SALMOA

Laguntza eskea eta esker onezko kanta

¹ *Davidena.*

Jauna, zuri oihuz nago!
Ene harroka, ez egon eni elkor!
Ihardesten ez badautazu,
hilobirat jausten direnen iduriko izanen nauzu.

² Entzun ene oihu kartsua, laguntza eskatzen dauzutanean,
eskuak zure saindutegi alde luzatzen ditutanean.

³ Ez nezazu ezar gaixtoen artean,
gaizkile horien artean:
bakezko hitzak dituzte besteen aitzinean,
bainan tzarkeria bihotzean.

⁴ Emozute beren egintzen eta gaixtakerien ordaina.
Emozute egin dutenaren saria, itzul merezi dutena.

⁵ Jaunaren egintzez, harek eginaz ez dira axola:
suntsi ditzala eta ez berriz altxa!

⁶ Benedikatua Jauna,
nere oihu kartsua entzun duena!

⁷ Jauna dut indar eta geriza.
Haren baitan ene fidantzia;
laguntza eman daut eta bihotza dut bozkariotan:
eskerrak emanen diozkat kantutan.

⁸ Jauna da bere herriaren indarra,
harek gantzutu erregearen⁴⁶ geriza eta salbamena.

⁹ Salba, Jauna, zeure herria, benedika zeure ondarea.
Izan zaite beti heien artzain eta gidaria.

⁴⁶ **28,8** *bere herriaren*: Hebrearezko zenbait eskuizkribu eta lehengo itzulpenen arabera; ohiko testuak *heientzat* dio. // *gantzutu erregearen*: H.h., *gantzutuaren*; *herriari* buruz errana bezala hartzen dute zenbaitek, Jaunak beretzat *sagaratu duen herriari* buruz.

29. (28.) SALMOA

Ekaitzeko Jaunari gorazarre

¹ *Davidena.*

Gorets Jauna, zeruko izakiek⁴⁷,
gorets Jaunaren ospea eta indarra,
² gorets Jaunaren izen ospetsua,
ahuspeka Jaunaren aitzinean, saindutasunez agertzen denean!

³ Jaunaren ahotsa urak baino ozenago:

Jainko aintzatsuak ortzantza jo.

Jauna ur handiak baino gorago.

⁴ Jaunaren ahotsa indartsu,

Jaunaren ahotsa ospetsu.

⁵ Jaunaren ahotsak zedroak hausten,

Jaunak Libanoko zedroak kraskatzen.

⁷ Jaunaren ahotsak ximistak zartarazten⁴⁸.

⁶ Zezenkoari bezala jauzi eginarazten dio Libanoari,
bufalokumeari bezala Sirion⁴⁹ mendiari.

⁸ Jaunaren ahotsak basamortua inarrosten,

Jaunak Kadex basamortua inarrosten.

⁹ Jaunaren ahotsak zuhaitzak bihurrikatzen⁵⁰, oihanak biluzten.

Haren tenpluan denek oihu: «Gora!»

¹⁰ Jauna jarririk dago uholdearen gainean,

Jauna, betiko errege, jarririk tronuan.

¹¹ Jaunak azkar dezala bere herria!

Jaunak bakeaz benedika dezala bere herria!

⁴⁷ **29,1** *Davidena*: Grekozko itzulpenak salmo hunen erabilerari buruzko xehetasun bat emaiten du: *Etxola Bestaren bukaerako* (ik. Dt 16,13). Besta hortan euria eskatzen zen. // *zeruko izakiek*: H.h., *Jainko-semeek*; Jainkoaren zeruko gortea osatzen duten izakiak adiarazten dira (ik. 82,1; 89,7; Jb 1,6).

⁴⁸ **29,7** 7. ber.aren berezko tokia 5.aren ondotik dela dirudi.

⁴⁹ **29,6** *Sirion*: Libanoko Hermon mendi sakratuaren beste izen bat (ik. Dt 3,9).

⁵⁰ **29,9** *zuhaitzak bihurrikatzen*: Testu zuzendua; hebrearezkoak *orein-emeak erdiarazten* dio.

30. (29.) SALMOA

Heriotz-hirriskutik sendatuaren esker onezko kanta

¹ *Tenpluaren sagara kanta*⁵¹. *Daviden Salmoa.*

² Goretsia zu, Jauna, onik bainauzu atera!

Ez dituzu etsaiak utzi nere bizkar bozkariatzera.

³ Jauna, ene Jainkoa, oihuz dauzut laguntza eskatu, eta zuk ni sendatu.

⁴ Jauna, Hilen Egoitzatik atera nauzu, hilobirat jaustera nindoala, biziberritu nauzu.

⁵ Kanta Jaunari, haren fededunek, goretsazue, saindua dela gogoratu.

⁶ Haren haserrea apur batekoa, haren onginahia bizi guziko. Nigarrez bagaude ere aratsean, poz-oihuka berriz goizean.

⁷ Lasaialdian neure baitan egiten nuen: «Ez naiz sekula kordokatuko».

⁸ Zeure onginahiaz, Jauna, mendia bezain tinko ezarria ninduzun, bainan aurpegia gorde zinautan, eta izitu nintzan.

⁹ Zuri dei egin nauzun, Jauna.

Jaunari dei egin nion:

¹⁰ «Zer irabaziko duzu hiltzen banaiz, hilobirat jausten banaiz? Goretsiko ote zaitu errautsak? Zure leialtasuna mezutuko ote du?

¹¹ Entzun, Jauna! Urrikal nitaz!

Jauna, zatozkit lagun!»

¹² Dantza bilakatu dautazu nigarra, besta-jantzi nere dolu-jantzia.

¹³ Naizen guziak ixildu gabe kantatuko zaitu; Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emanen dauzkizut betiere.

31. (30.) SALMOA

Uste onezko otoitza frogaldian

⁵¹ **30,1** *Tenpluaren sagara kanta*: Ez da ikusten zer lotura izan dezakeen salmoak tenpluaren sagaratzearekin (ik. 1 M 4,36-59; Jn 10,22).

SALMOAK

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Zu zaitut aterbe, Jauna:
ez dakidala hutsa izan sekula zureganako uste ona!
Zuzena baitzira, onik atera nezazu.

³ Entzun! Laster libra nezazu!
Izan zakizkit harkaitz ihesleku,
salbatuko nuen gaztelu.

⁴ Zu zira nere harroka eta gotorlekua.
Zeure ohoreagatik, bidera nezazu eta gida.

⁵ Ezarri dautaten saretik atera nezazu,
zu baitzaitut gordeleku.

⁶ Zure eskuetan ezartzen dut ene bizia:
libra nezazu, Jauna, Jainko leiala!

⁷ Hastio dut sasijainkozalea;
nik Jaunaren baitan fidantzia.

⁸ Bozkarioz jauzi eginen dut zure maitasunagatik,
ikusi baituzu nere atsegabea, ezagutu nere larrialdia,

⁹ ez nauzu etsaiaren eskuetararat utzi,
aitzinean bidea dautazu ideki.

¹⁰ Urrikal, Jauna, ezinbestean nago:
bihozminak erretzen dauzkit begiak, zintzurra eta sabela.

¹¹ Bizitza tristuraz ahitzen ari zait, auhenka doazkit urteak.
Neure bekatuagatik galtzen ari zaizkit indarrak, ihartzen hezurak.

¹² Etsaiek trufatzen naute, bai eta neure auzokoek.
Adiskideak izitzen ditut: ni karrikan ikustean, ihes doatzi.

¹³ Ahantzia naute osoki, hila bezala,
alferretako ontzia bezala.

¹⁴ Jendearen marmara entzuten dut, non-nahitik ikara.
Denak ene kontra hitzartu dira, eni nola ken bizia.

¹⁵ Bainan nik, Jauna, zure baitan dut fidantzia;
erraiten dut: «Zu zira nere Jainkoa».

¹⁶ Zure eskuetan nere zoria:
libra nezazu zapaltzen nauten etsaienganik!

¹⁷ Zerbitzari huni ongi-etorri egiozu,
zeure maitasunaz salba nezazu.

SALMOAK

¹⁸ Jauna, zu otoizturik, ez diezadala huts egin ene uste onak!
Gaixtoeri bai huts egin diezaiela beren usteak,
joan bite Hilen Egoitz ixilerat!

¹⁹ Mutu geldi bite ezpain gezurtiak,
zintzoaren kontra zoroki mintzo direnak,
harrokeria eta mespretxu.

²⁰ Jauna, zure ganako errespetua dutenentzat
handiak dira atxikitzen dituzun ontasunak!
Denen bixtan emaiten diozkazute
zure baitan aterbe duteneri.

²¹ Zeure aurpegiaren gordagian begiratzen dituzu,
giza azpikerietarik urrun;
zeure gerizan ezartzen,
borroka eta liskarretarik urrun.

²² Benedikatua Jauna, haren maitasunak
nahigabeen nintzalarik⁵² egin baitauzkit mirariak.

²³ Erraiten nuen, neure nahasian:
« Ez naiz gehiago zure begien aitzinean ».
Zuk, ordea, entzuten zinuen ene otoitza,
oihu egiten nauzunean.

²⁴ Maita zazue Jauna, haren fededun guziek!
Leial zaizkionak begiratzen ditu Jaunak,
harroeri, berriz, ordain gogorra emaiten.

²⁵ Atxik, ukan kuraia, zuek
Jaunaren baitan fida zireztenek!

32. (31.) SALMOA

Bekatuak aitortzeko deia

¹ *Daviden poema.*

Dohatsua Jainkoak hobena kendu

⁵² **31,22** nahigabeen nintzalarik: H.h., *hiri setiatuan*; bainan hunela ere itzul daiteke: *hiri gotortutik*; hau Jainkoaren egoitzaren adiarazpen poetikoa litaik.

SALMOAK

eta bekatua barkatu diona!

² Dohatsua Jaunak hobenduntzat ez daukana
eta bere baitan maltzurkeriarik ez duena!

³ Ixilik nindagono,
ahitua nuen gorputza, egun guzian aieika.

⁴ Gau eta egun ganean nuen zure esku gogorra,
indarrak ahultzen ari zitzaizkitan, landarea udako sargorian bezala⁵³.

⁵ Orduan, aitortu dauzut bekatua, ez dauzut gorde hobena.
Neure hutsak zuri aitortzea erabaki dut, Jauna,
eta barkatu dauzkidazu hoben eta bekatuak.

⁶ Otoitz egin dezauzula, beraz, fededunak, larri denean⁵⁴:
uholde handia izanik ere, ez du hatzemanen.

⁷ Zu nere aterbea: nahigabetik nauzu begiratzen,
askapen-kantuz inguratzen.

⁸ «Irakatsiko dauzut eta bidea erakutsiko;
aholku emanen dauzut eta zure begirale izanen.

⁹ Ez izan zaldi eta mando adimengabeen iduriko:
ahokoz eta bridaz atxiki behar da heien indarra,
eta ez zaizu deus gertatuko».

¹⁰ Gaixtoentzat oinaze anitz;
Jaunaren baitan konfiantza duena, berriz,
harek bere maitasunaz inguratzen.

¹¹ Bozkaria eta alaitu zaitezte Jaunarekin, zintzoak!
Bozkarioz oihu egizue, bihotz zuzeneko guziek!

33. (32.) SALMOA

Jainko kreatoraile eta zaintzaileari laudorioa

¹ Egizue poz-oihu Jaunari, zintzoek!
Zuzeneri dagokiote Jainkoaren gorestea.

⁵³ 32,4 Ber.eko testua iluna da jatorrizkoan.

⁵⁴ 32,6 *larri denean*: Testu zuzendua; hebrearrezkoa ulergaitza da: *aurkitzeko unean*. Grekozko itzulpenak, berriz, *une egokian* dio.

SALMOAK

² Goraipa Jauna zitaraz,
jo harentzat hamar hariko harpa;
³ kanta hari kantu berri,
jo trebeki eta egin irrintzi.

⁴ Jaunaren hitza zuzena da,
haren egintza guziak fidagarriak.
⁵ Justizia eta zuzenbidea maite ditu;
Jaunaren maitasunaz betea da lurra.
⁶ Jaunak bere hitzaz egin du ortzia,
bere ahoko hatsaz izartegi guzia.
⁷ Itsas urak mugatu eta biltzen ditu,
itsas handiak erresalbuetan ezartzen.
⁸ Errespeta beza Jauna lur osoak,
ikara bite haren aitzinean munduko bizilagun guziak.
⁹ Harek erran, eta dena egin zen;
harek manatu, eta dena hasi izaiten.

¹⁰ Nazioeen xedeak Jaunak ditu desegiten,
herrien asmoak hutsean galtzen.
¹¹ Betiko dirau Jaunaren xedeak
menderen mende haren bihotzeko asmoak.
¹² Dohatsua Jauna Jainko duen nazioea!
Dohatsua harek beretzat hautatu duen herria!

¹³ Jaunak, zerutik so,
jende guziak ikusten ditu;
¹⁴ bere bizilekutik
munduko bizilagun guzieren beha dago;
¹⁵ harek moldatzen ditu heien bihotzak,
eta adi dago heien egintza guzieren.
¹⁶ Erregea ez du armada handiak salbatzen,
ez eta gudaria indar handiak libratzen.
¹⁷ Alferrik dira zaldiak garaipenaren ardiesteko,
armada handia ez aski, onik ateratzeko.
¹⁸ Jaunak ditu haren errespetua dutenak zaintzen,
haren maitasunean dutenak itxaropen.
¹⁹ heriotzetik libratu eta
gosetean bizirik begiratzeko.

²⁰ Guk Jaunaren baitan dugu itxaropena:
hura dugu laguntza eta geriza!

²¹ Harenganik datorkigu bihotzeko poza,
saindua den haren baitan gure fidantzia.

²² Bego gurekin, Jauna, zure maitasun leiala,
zure baitan ezarria baitugu esperantza!

34. (33.) SALMOA

Jaunak zintzoa zaintzen

¹ *Davidena. Abimeleken aitzinean eroarena egin zuelarik, harek David haizatu eta hunek alde egin zueneko*⁵⁵.

² Benedikatuko dut Jauna egun guziez,
geldigabe goretsiko neure ezpainez.

³ Harro nago Jaunaz;
entzun bezate apalek eta bozkaria.

⁴ Handiets nerekin batean Jauna,
goraltxa dezagun elkarrekin haren izena.

⁵ Jauna bilatu dut eta harek ihardetsi,
beldur guzietarik libratu nau.

⁶ Hari behatu diotenak argitsu dira,
ez zaiote aurpegia goibelduko.

⁷ Dohakabe hunek dei egitean, Jaunak aditu
eta larrialdi guzietarik atera du.

⁸ Jaunaren aingerua zaindari dago
haren errespetua dutenen libratzeko.

⁹ Jasta eta ikus zein ona den Jauna:
dohatsua haren baitan aterbe duena!

¹⁰ Errespeta Jauna zuek, hari sagaratuek,
ez baitute deusen faltarik haren errespetua dutenek.

¹¹ Aberatsek⁵⁶ ere badakite zer den beharra eta gosea,

⁵⁵ **34,1** 1 Sm 21,11-16ko pasartea aipatzen da; han, ordea, filistearren erregea Akix da, ez Abimelek. Salmoa alfabetikoa da (ik. 9,1 oh.).

SALMOAK

Jauna bilatzen dutenek ez dute deusik falta.

¹² Ene haurrak, zatozte entzutera!

Jaunaren errespetua erakutsiko dauzuet.

¹³ Nork maite du bizia?

Nork nahi du luzaz bizi eta zoriontsu izan?

¹⁴ Begira zazu mihia gaitzetik

eta ezpainak engainutik.

¹⁵ egin ongia, bazter zaite gaitzetik,

bila bakea eta ibil haren bidetik.

¹⁶ Jaunak zintzoenganat ditu begiak,

heien deiak entzuteko erne beharriak.

¹⁷ Gogor egiten diote Jaunak gaizkileeri,

lurgainetik erauzteko heien oroitzapena.

¹⁸ Oihu egiten dute, eta Jaunak entzuten

eta larrialdi guzietarik libratzen.

¹⁹ Hurbil dauzka Jaunak bihotz-hautsiak,

salbatzen ditu etsituak.

²⁰ Zorigaitz asko badu zintzoak,

bainan guzietarik libratzen Jaunak.

²¹ Hezur guziak zaintzen diozka,

ez zaio bakar bat ere hautsiko.

²² Gaixtakeriak hilen du gaixtoa,

zintzoa hastio dutenek ukanen zigorra.

²³ Jaunak begiratzen du bere zerbitzarien bizia,

ez dute zigorrik haren baitan dutenek aterbea.

35. (34.) SALMOA

Erasotzaileen kontra justizia eske

¹ *Davidena.*

⁵⁶ **34,11** *Aberatsek*: Lehengo itzulpenen arabera; hebrearezkoak *Lehoin gazteek* dio. *Lehoina aberatsaren* metafora da.

SALMOAK

Sala, Jauna, salatzen nautenak;
jo, jotzen nautenak.

² Har armadura eta erredola,
eta zatozkit laguntzera.

³ Atera lantza eta aizkora, lasterkatzen nautenen kontra,
eta erradazu: «Ni nauzu salbatzaile!»

⁴ Huts egiezu eta ahalgearaz
hil nahi nautenak.

Gibelerat joan bite, ahalgez gorrituak,
nola hondatuko nauten dabiltzanak.

⁵ Izan bite haizeak deraman lastoa bezala,
zure aingeruak haiza ditzala!

⁶ Ilun eta lerrakor izan bedi heien bidea,
zure aingeruak lasterka ditzala!

⁷ Arrazoinik gabe nere kontra sarea dute hedatu,
arrazoinik gabe ziloa zabaldu.

⁸ Gainerat eror dakiotela ustegabeko hondamena!
Hedatu duten sareak harrapa ditzala
eta hondamenean eror daitezela!

⁹ Orduan, Jaunarekin alaituko naiz,
salbatu nauelakotz bozkariotan izanen.

¹⁰ Bihotz-bihotzetik erranen dut:
«Nor zu bezalakorik, Jauna?

Dohakabea askatzen duzu azkarragoaren eskutik,
eta behartsua, zapaltzaileaganik».

¹¹ Lekuko bihozgabeak zaizkit altxatzen,
eta ez dazkitanak nere gain ezartzen.

¹² Ongia gaitzez ordaintzen dautate,
eta gero bakarrik uzten.

¹³ Ni, ordea, heiek eri zirenean,
dolu-jantzitan ibili ohi nintzan,
neure burua baruraz zigortzen nuen
eta neure baitan otoitz eta otoitz egiten.

¹⁴ Adiskide eta haurrideak bezala nituen,
kopeta ilun eta burua makur ibili ohi nintzen,
amaren doluan banintz bezala.

SALMOAK

¹⁵ Bainan erori naizenean, heien bozkairoa!
Nere kontra bildu dira joka,
larrutzen naute, zergatik ez dakidala geldigabe irainka.

¹⁶ Kontra ditut inguruan trufatzaileak;
heien hortz karraskak!⁵⁷.

¹⁷ Jauna, noiz arte egon behar duzu beha?
Aska zazu nere bizia heien hondamenditik,
nere burua lehoin horienganik!

¹⁸ Eskerrak emanen dauzkizut batzar nagusian,
goretsiko zaitut jendetzaren aitzinean.

¹⁹ Ez dezatela nere bizkar irri egin
nere etsai maltzurrek!

Ez dezatela egin begi-keinurik
arrazoinik gabe hastio nautenek!

²⁰ Ez dute bakezko hitzik;
lurraldeko jende baketsuaren kontra
maltzurkeriak asmatzen dituzte.

²¹ Nere kontra ahozabal, hunela diote:
«Hara, guhaurek ikusi dugu!»

²² Ikusi duzu, Jauna! Ez egon ixilik!
Jauna, ez egon nereganik urrun!

²³ Atzar zaite eta zato nere eskubidearen alde,
joka zazu auzian nere alde, ene Jaun eta Jainko!

²⁴ Juja nezazu zeure justiziaz, ene Jainko Jauna!
Ez dezatela nere bizkar irri egin!

²⁵ Ez dezatela pentsa: «Hori da nahi ginuena!⁵⁸ »
Ez dezatela erran: «Irentsi dugu!»

²⁶ Ahalge gorri geldi bite, denak batean,
nere zorigaitzaz pozten direnak!
Ahalgez eta laidoz estal bite
nere kontra harro dabiltzanak!

²⁷ Alai bite poz-oihuka

⁵⁷ **35,16** 15-16 ber.etako hebrearezko testua iluna da eta itzulpena guti gorabeherakoa.

⁵⁸ **35,25** *Hori da nahi ginuena*: H.h., *A gure zintzurra!* Erran-nahia ez da segura. Hunela ere konpreni daiteke: *A zer ahamena!*

nere eskubideen alde direnak!

Behin eta berriz erran bezate: «Handia da Jauna bere zerbitzariaren zoriona nahi duena».

²⁸ Eta nere mihiak zure salbamen-asmoa iragarriko du, egunoro zu gorai patuko!

36. (35.) SALMOA

Jaunaren probidentzia bizi-emailea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Jaunaren zerbitzari Davidena.*

² Gaixtakeria mintzo zaio gaixtoari barnean.

Ez da Jainkoarenganako beldurrik haren baitan.

³ Hain baitu leun hartzen bere burua⁵⁹, ez du bere hutsa ikusten, hastiatzeko.

⁴ Okerkeria eta engainua baizik ez du ahoan, galdua du ongirako sena.

⁵ Ohean ere, okerkeria derabil gogoan; bide makurrean tematsu, ez du gaizkia utzi nahi.

⁶ Jauna, zure maitasuna zerua bezain zabalekoa, zure leialtasuna hodeietarainokoa.

⁷ Zure justizia mendirik handienak bezain gorakoa, zure probidentzia itsaso mugagabea bezain barnakoa: jende eta abereak zuk bizi arazten dituzu, Jauna.

⁸ Bai zoragarria zure maitasuna, oi Jainko! Zure hegaperat biltzen dira jendeak.

⁹ Zeure etxeko janari guriz dituzu asetzen, zeure atseginen ibaian edanarazten.

¹⁰ Zure baitan da biziaren iturria, zure argiaz ikusten dugu argia.

¹¹ Luza zeure maitasuna ezagutzen zaituzteneri, zeure justizia bihotz-zuzeneri.

¹² Ez nezala leher harroaren oinak, ez eta kanporat bota gaixtoaren eskuak!

⁵⁹ 36,3 Lerroa iluna da jatorrizkoan.

¹³ Horra hor gaizkileak eroriak:
lur jorik daude, ezin jeikiak.

37. (36.) SALMOA

Zintzoen eta gaixtoen zoriaz irakaspena

¹ *Davidena*⁶⁰.

Ez zaitela haserre jar gaixtoengatik,
ez izan gaizkiletaz bekaizti,
² belarra bezain laster baitira ihartzen
eta berehala zimeltzen.

³ Atxik fidantzia Jaunaren baitan eta egizu ongia,
zeure herrialdean bizi zaite eta hango aberastasunaz goza⁶¹.

⁴ Izan bedi Jauna zure atsegina,
eta harek emanen dauzu bihotzak eskatzen dauzuna.

⁵ Utz Jaunaren esku zeure zoria, atxik haren baitan fidantzia:
hura zure alde ariko da;

⁶ goiz-argia bezain distiratsu agertuko du zure zintzotasuna,
eguerdiko eguzkia bezain argitsu zure zuzentasuna.

⁷ Zaude lasai Jaunaren baitan, esperantzan;
ez haserre jar arrakasta duenaren kontra,
maltzurkeriaz dabilenaren kontra.

⁸ Utz haserre, bazter sumina,
ez jar sutan, zure kaltetan izanen baita;

⁹ zeren kanporatuak izanen baitira gaizkileak,
herrialdeaz jabetuko, aldiz, Jaunari daudenak.

¹⁰ Doi bat oraino, eta gaixtoa da desagertuko,
bilatuko duzu, eta ez aurkituko.

¹¹ Apalak izanen dira herrialdearen jabe,

⁶⁰ 37,1 *Davidena*: Salmo alfabetikoa da; ik. 9,1 oh.

⁶¹ 37,3 *hango aberastasunaz goza*: Testua ez da argia. H.h., *alhatu segurtasunean. Leialtasuna landu edo bakean hazi* ere itzuli ohi da.

SALMOAK

bake osoaz gozatuko dira.

¹² Gaixtoa zintzoaren kontra ari da azpijokoan haren kontra hortz karraskan.

¹³ Bainan Jaunak irri egiten du holakoaz, baitaki ordua⁶² datorkiola.

¹⁴ Ezpata atera eta arkuak tirantzen dute gaixtoek dohakabearen eta behartsuaren aurtikitzeke, zuzen dabiltzanen hiltzeko.

¹⁵ Bainan beren ezpata bihotzean zaiote sartuko eta heien arkuak hautsiko.

¹⁶ Zintzoaren doia baliotsuago gaixtoen aberastasuna baino,

¹⁷ gaixtoen besoak baitira hautsiko; zintzoak, aldiz, Jaunak zurkaiztuko.

¹⁸ Jauna arduratzen da prestuen bizitzaz beren ondarearen jabe izanen dira betiko.

¹⁹ Zorigaitz-egunetan ez dute huts eginen, gose-egunetan aseko dira.

²⁰ Galduko dira gaixtoak; Jaunaren etsaiak, pentzetako belarra bezala, su hartu eta joanen dira, ketan joanen.

²¹ Gaixtoak maileguan hartua ez du itzultzen, zintzoak urrikaldu eta emaiten.

²² Jaunak benedikatuak⁶³ izanen dira herrialdearen jabe; harek madarikatuak, betikotz hondatuak.

²³ Jaunak ditu jendearen urratsak segurtatzen eta atsegin duen bidetik du eremaiten.

²⁴ Behaztopatzen bada, ez da erortzen, Jaunak baitu eskutik atxikitzen.

⁶² **37,13** *ordua*: H.h., *eguna*; Jaunarena nahiz gaixtoarena izan daiteke, erran nahi baita, konduen ukaiteko edo konduen emaiteko eguna.

⁶³ **37,22** *Jaunak benedikatuak*: Hunela ere konpreni daiteke: *Zintzoak benedikatuak*.

SALMOAK

²⁵ Gazte izan naiz, orai zahartua:
ez dut sekula ikusi zintzoa bere gisa utzia,
ez eta haren ondokorik ogi eske.

²⁶ Zintzoa beti da urrikaltsu eta eskuzabal,
benedikapen dira haren seme-alabak.

²⁷ Bazter zaite gaitzetik, egizu ongia,
eta beti izanen duzu non bizi.

²⁸ zuzenbidea maite baitu Jaunak
eta ez ditu beren gisa uzten fededunak.

Beti begiratuko ditu;
gaixtoaren ondoregoa, berriz, suntsitua izanen da.

²⁹ Herrialdearen jabe izanen dira zintzoak,
eta han biziko beti.

³⁰ Zuzenak zuhurki du hitz egiten,
bidezko dena erraiten.

³¹ Bihotzean du bere Jainkoaren hitza,
ez diote oinek huts eginen.

³² Gaixtoa barrandan egoiten zaio zintzoari,
nola hilen duen pentsaketa ari.

³³ Bainan Jaunak ez du heien eskuetan utziko,
juzatzen badute ere, ez du kondenatzera utziko.

³⁴ Atxik esperantza Jauna baitan eta ibil haren bidetik;
harek altxatuko zaitu herrialdearen jabe izaiteraino
eta ikusiko duzu gaixtoa suntsiturik.

³⁵ Ikusi dut gaixtoa bere indarraz harro,
zuhaitz sendoa bezala zabaldua.

³⁶ Bainan desagertu da, ez da gehiago,
bila ibili eta ez dut aurkitu.

³⁷ Beha jende prestuari, so egin zuzenari:
bakezaleak badu etorkizun.

³⁸ Bihurriak denak batean suntsituak izanen dira,
gaixtoen geroa hondatua da.

³⁹ Jaunarenganik dator zintzoen salbamendua,
hura dute hirrisku-garaian gotorlekua.

⁴⁰ Jaunak laguntzen ditu eta onik ateratzen,
onik ateratzen gaixtoenganik eta salbatzen,
haren baitan direlakotz aterbetzen.

38. (37.) SALMOA

Eri eta hobendunaren laguntza-eskea

¹ *Daviden salmoa. Oroigarritzat*⁶⁴.

² Jauna, ez nezazula haserrez erasia,
ez eta sumindurik zentza.

³ Sartu zaizkit zure geziak,
gainean dut zure eskuaren hazta.

⁴ Gorputz osoa dut minbera, zure haserre-zigorragatik,
hezurrik ere ez osorik, neure bekatuagatik.

⁵ Burutik goiti ditut neure hobenak,
azpian hartua naute, zama ezin jasana.

⁶ Nere zauriak gaizkonduak dira eta zornatuak,
nere zorakeriaren ondorioz.

⁷ Konkor eta makur nabil,
egun guzian kopeta ilun.

⁸ Sukarrak hartua nau hondoraino,
gorputzean deusik ez sendo.

⁹ Lehertua naiz, kraskatua,
barne-barnetik garrasika eta aieika.

¹⁰ Ezagutzen duzu, Jauna, nere tirria guzia,
ez zaizu arrotz nere intziria.

¹¹ Pirpiraka ari zait bihotza, huts egin daut indarrak,
joan zait begietako argia ere.

¹² Nere zauriengatik, gibelerat egiten dute adiskide eta lagunek,
urrun egoiten ahaideak ere.

⁶⁴ **38,1** *Oroigarritzat*: Ik. Lv 2,2 oh. Grekozko itzulpenak larunbataren ospakizunarekin lotzen du salmoa (ik. Lv 24,7-8). Salmoaren azpian eritasuna bekatuaren ondorio delako sinestea dago; Job liburuaren kidekoa da puntu askotan.

SALMOAK

¹³ Bizia kendu nahi dautatenek arteak ezarri dituzte,
kalte egin nahi dautatenak egun guzian ari zaizkit
mehatxuka, makurra gogoan.

¹⁴ Bainan nik elkorrena egiten dut, ez dut entzuten,
mutuarena egiten, ez dut ahorik idekitzen.

¹⁵ Entzuten ez duen
eta erreposturik ez duen gizona naiz.

¹⁶ Jauna, zure baitan dut esperantza:
zuk ihardetsiko dautazu, Jauna, ene Jainkoa!

¹⁷ Huna nere eskaria: ez daitezela bozkaria ene bizkar,
kordoka naizenean, ez nezatela gorarik har.

¹⁸ Erortzera noa,
neurekin daukat beti oinazea.

¹⁹ Bai, aitortzen dut neure hobena,
neure bekatuak iziturik nauka.

²⁰ Indartsuak dira nere biziaren etsaiak,
ugari, bidegabez hastio nautenak,

²¹ ongiaren ordain gaitza emaiten
eta ongiaren egitera entseatzen naizelakotz salatzen nautenak.

²² Jauna, ez nezazula utz!

Ene Jainko, ez niganik urrunt!

²³ Zatozkit lagun berandu gabe,
Jauna, ene salbatzaile!

39. (38.) SALMOA

Bizia joankorra. Deitorea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Jedutun⁶⁵» en doinuaz. Daviden salmoa.*

² Neure baitan egin nuen:
«Zainduko dut neure joka-moldea, mihiaz huts egin ez dezatan;
ezpainak josirik atxikiko ditut,

⁶⁵ **39,1** *Jedutun*: Daviden garaiari, tenpluko kantu-arduradun izan zen leuitarra (ik. 1 Kro 16,38-42).
62,1 eta 77,1ean aipatzen da berriz.

SALMOAK

aitzinean ukanen dutano gaizkilea».

³ Mutu egon naiz, ixilik, behar baino gehiago⁶⁶.

Bainan ene mina gero eta biziago;

⁴ sutan dut bihotza bularrean,

hasperenka, sua piztu zait,

eta ezpainak idekirik mintzatzen hasi naiz:

⁵ «Jauna, emadazu ezagutzera neure azkena,

eta nere urteen izaria,

zein galkorra naizen jakin dezatan.

⁶ Apur bateko bizia dautazu eman;

hutsa da biziaren iraupena zure aitzinean.

Haizea baizik ez da jendea, sendo izanik ere!

⁷ Itxura bat bezala dabil harat-hunat,

haizea bezain hutsala haren zalaparta;

ontasunak metatu eta ez daki norentzat».

⁸ Orduan, zeri nagoke, Jauna?

Zure baitan nere itxaropen bakarra!

⁹ Libra nezazu neure bekatu guzietarik,

ez egin ni zoroaren irringarri.

¹⁰ Ixilik nago, ahorik ideki gabe,

dena zuk egina baita.

¹¹ Urrunt eneganik zeure zigorra,

zure ukaldiek ahiturik bainago.

¹² Hutsak zigortuz duzu jendea zentzitzen,

eta sitsak jantzia bezala harek maiteen duena suntsitzen.

Haizea baizik ez da jendea!

¹³ Entzun ene otoitza, Jauna! Adi ene oihua!

Ez egon elkor nere nigarrari!

Arrotza naiz zure etxean,

ostatus naukazu, arbasoak bezala.

¹⁴ Bazter zazu nereganik zure soa,

noizbait bozkarioa jasta dezatan,

hemendik joan eta izaitea utzi baino lehen.

⁶⁶ **39,3** behar baino gehiago: Hunela ere itzul daiteke: *alferrik*. Zenbaitek haren zorionagatik itzultzen du, ondoko lerroari lotuz.

40. (39.) SALMOA

Eskerrak eta laguntza galdea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Jaunari nindagon beha eta beha:
ukurtu eta entzun du nere oihua.

³ Herio leizetik atera nau,
ixtil eta lohitik atera.
Harrokaren gainean tinko ezarri dauzkit oinak,
segurtatu nere urratsak.

⁴ Kantu berria ezarri daut ezpainetan,
gure Jainkoarentzat gorespen-kanta.
Askok ikusiko dute hau eta ikaratuko,
Jaunaren baitan dute fidantzia ezarriko.

⁵ Dohatsua Jaunaren baitan dena fidatzen,
idolo eta sasijainkoetarat ez dena lerratzen⁶⁷!

⁶ Jauna, ene Jainkoa, bai mirari anitz egin duzu!
Zenbat xede gure alde! Parerik ez duzu!
Mezutu nahi ditut eta oihukatu,
bainan konda ahala baino gehiago bada.

⁷ Ez duzu nahi ukan sakrifiziorik ez eskaintzarik,
ez eta erre-opari, ez bekatuen barkamen-oparirik;
beharriak ideki⁶⁸ dauzkidazu, zu entzuteko.

⁸ Orduan, erran dut: «Huna, heldu naiz ».
Liburuan nitaz idatzia da:

⁹ Ene Jainko, egin nahi dut atsegina zaizuna,
barne-barnean daukat zure legea.

¹⁰ Batzar nagusian iragarri dut zure salbamena,
ez ditut ezpainak hetsi, badakizu, Jauna!

¹¹ Ez dut bihotzaren zolan gorde zure zuzentasuna,
zure leialtasun eta salbamenaren berri eman dut,

⁶⁷ **40,5** *idolo... lerratzen*: Itzulpena ez da seguru; hunela ere itzuli ohi da: *gezurraren gibeletik dabilzan harroenganat jotzen ez duena*.

⁶⁸ **40,7** *beharriak ideki*: Grekozko itzulpenak *gorputza moldatu* dio, eta hori da Heb 10,5ean aipatzen den testua.

SALMOAK

zure maitasun eta fintasuna ez ditut
batzar nagusian ixildu.

¹² Jauna, ez uka neri zeure urrikalmendua!
Zure maitasun eta leialtasunak begira nezatela beti!

¹³ Ezin kondatuzko zorigaitzetan sarturik nago.
Neure hobenek inguratzen naute:
ez ditut denak ikusten ahal ere!
Buruko ileak baino ugariago dira, eta bihozgabeturik nago.

¹⁴ Jauna, zatozkit libratzera!
Jauna, zatozkit laster laguntzera!

¹⁵ Ahalgez gorriturik egon bite,
hil nahi nautenak!
Gibelerat egin bezate, irringarri,
nere zorigaitza bilatzen dutenak!

¹⁶ Ahalgez urturik egon bite
trufatzen nautenak!

¹⁷ Poz eta alai bite zu bilatzen zaituztenak!
«Handia da Jauna!», erran bezate geldigabe
zure salbamena maite dutenek!

¹⁸ Behartsu eta dohakabe naiz,
bainan Jauna da nitaz arduratzen.
Zu zira nere laguntzaile eta askatzaile,
ene Jainko, ez luza!

41. (40.) SALMOA

Eritasun larrian egon denaren otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Dohatsua gizagaixoaz arduratzen dena!
Onik aterako du Jaunak zorigaitz-egunean.

³ Bizirik begiratuko du eta dohatsu eginen lurrean,
ez du etsaien eskuetat utziko.

⁴ Ohean minez dagola, Jaunak du lagunduko,

SALMOAK

eta erialdian oneratuko⁶⁹.

⁵ Erraiten nuen: «Urrikal, Jauna!
Senda nezazu, zure kontra bekatu egin badut ere».

⁶ Etsaiak gaizki-erranka ari zaizkit:
«Noiz hil behar ote du? Noiz galduko da horren izena?»

⁷ Ikustera datorkitana, faltsukeriaz mintzo da:
tzarkeria barnean gorderik dauka eta kanporat orduko karrikan
zabaltzen.

⁸ Hastio nautenak, hitzarturik, nitaz marmaran ari dira,
gaizkia ausnartzen dute nere kontra:

⁹ «Eritasun gaixtoak harrapatu du,
ohetik ez da gehiago jeikiko!»

¹⁰ Fidantzia osoko adixkideak,
mahaikide nuenak, aztalaz jo nau.

¹¹ Bainan zu, Jauna, urrikal nitaz, altxa nezazu,
eta ordaina eman diotet!

¹² Maite nauzula huntarik dut jakinen:
etsaiak ez badu nitaz garaipen-oihurik egiten.

¹³ Zuk nauzu hobengabe atxikiko,
zuk finkatuko zeure aitzinean betiko.

¹⁴ Benedikatua Jauna, Israelen Jainkoa,
betidanik betiraino! Amen. Amen⁷⁰.

42. (41.) SALMOA

Jainkoarenganik urrun dagonaren otoitza

¹ Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeen⁷¹ poema.

⁶⁹ **41,4** erialdian oneratuko: H.h., ohea itzultzen diozu bere erialdian. Erran-nahia ez da segura.

⁷⁰ **41,14** Amen. Amen: Benedizione hunekin bururatzen da Salmo-liburuko lehen bilduma (ik. 72,18-19; 89,53 eta 106,48 oh.).

⁷¹ **42,1** 42. eta 43. *Salmoek*, berez, salmo bat bakarra osatzen dute, bietan lelo berbera errepikatzen baita. // *Koreren semeak*: Koreren ondokoak (ik. Zen 16 eta 26,11) tenpluko zaindari (1 Kro 26,1) eta kantari (1 Kro 6,22) bilakatu ziren. Heien izenpean ezartzen dira 42--49, 84--85 eta 87--88 *Salmoak*.

SALMOAK

² Orkatza urera lehiaka doa,
ni ere zure lehiaz nago, ene Jainkoa.

³ Jainkoaren egarri naiz, Jainko biziaren egarri:
noiz joanen naiz, noiz agertuko
Jainkoaren aurpegiaren aitzinerat?

⁴ Egun eta gau nigarrak ditut janari,
jendea egun guzian galdeka ari zaitala:
«Non duk Jainkoa?»

⁵ Bihotza urtzen zait barnean
oroituz Jainkoaren etxera nola nindoan
jendetzearen artean,
poz-oihu eta gorespen, besta-giroan.

⁶ *Zergatik behar dut goibeldu?
Zergatik intziri egin? Atxik Jainkoa baitan fidantzia!
Goretsiko dut, bai, berriz ere, nere salbatzailea eta nere Jainkoa.*

⁷ Goibeldu naiz, ene Jainko:
horrengatik zu gogoan nago
Jordan aldetik, Hermon gainetik, Mitzar menditik⁷².

⁸ Leizeak leizeari oihu ur-jauzien burrunban:
zure uhain oldartsuak gainetik zaizkit iragan.

⁹ Jaunak bere maitasuna igorriko daut egunaz,
gorespen eta otoitz eginen diot gauaz
nere bizia den Jainkoari.

¹⁰ Hau erranen diot Jainko nere harrokari:
«Zergatik naukazu ahantzirik?
Zergatik behar dut ilun izan, etsaiak hertsaturik?»

¹¹ Nere hezur hautsieri etsaiek laidoa,
egun guzian ari zaizkitala: «Non duk Jainkoa?»

¹² *Zergatik behar dut goibeldu ?
Zergatik intziri egin? Atxik Jainkoa baitan esperantza!
Goretsiko dut, bai, berriz ere, nere salbatzailea eta nere Jainkoa.*

⁷² **42,7** *Mitzar mendi*: Erran nahi baita, *mendi ttipi*; bainan erran-nahia ez da segura.

43. (42.) SALMOA

¹ Egidazu⁷³ justizia, ene Jainkoa,
defenda nere auzia sinesgabeen kontra.

Libra nezazu maltzur-gaixtoaren eskutik.

² Ene Jainko eta iheslekua, zergatik arbuiatu nauzu?
Zergatik behar dut ilun izan, etsaiak hertsaturik?

³ Igor zure argia eta egia: gida nezatela,
ereman nezatela zure mendi saindurat, zure egoitzarat.

⁴ Eta zure aldarerat joanen naiz, oi Jainko,
nere bozkario betea ziren Jainkoaganat.
Zitara joz goretsiko zaitut, Jainko, ene Jainkoa.

⁵ *Zergatik behar dut goibeldu ?*

Zergatik intziri egin? Atxik Jainkoa baitan esperantza!

Goretsiko dut, bai, berriz ere, nere salbatzailea eta nere Jainkoa.

44. (43.) SALMOA

Herri zapalduaren deitoreia

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeen poema.*

² Oi Jainko, guharen beharriez entzuna dugu, arbasoek errana,
zuk heien garaian, aspaldi hartan, egin zinuena.

³ Zeure eskuaz haizatu zinituen beste nazioneak,
han landatzeko gure arbasoak;
beste herriak zinituen xehatu
gure arbasoeri egiteko leku.

⁴ Ez ziren beren armeri esker lurraldeaz jabetu,
ez ziren beren indarrari esker garaile ateratu,
baizik zure ahal handiari eta indarrari, zure begitarte argitsuari esker,
maite baitzinituen.

⁵ Zuk, ene Jainko eta ene errege,

⁷³ 43,1 *Egidazu*: Ik. 42,1 oh.

SALMOAK

zuk emaiten diozu Jakobi garaipena⁷⁴!

⁶ Zuri esker adarkatu ditugu etsaiak,
zure izenaz zangopilatu erasotzaileak.

⁷ Fidantzia ez nuen arkuan ezartzen,
garaipena ez zaitan ezpatak emaiten.

⁸ Zuk egin gintuzun etsaien garaile,
zuk utzi zinituen hastio gintuztenak ahalgegarri.

⁹ Zu zaitugu, Jainko, egunoro goresten,
zure izena dugu geldigabe ospatzen.

¹⁰ Orai, aldiz, baztertu gaituzu eta ahalgez estali,
ez zoazi gehiago gure armadarekin gudurat.

¹¹ Etsaien aitzinean ihes eginarazten daukuzu,
hastio gaituztenek larrutzen gaituzte.

¹² Haragitako ardiak bezala eman gaituzu,
nazioneen artean barreiatu.

¹³ Zeure herria merke utzi duzu,
irabazi handirik gabe saldu.

¹⁴ Auzo herrien laido-gai egin gaituzu,
inguruko trufa eta irri-bazka.

¹⁵ Nazioneen josta-lelo egin gaituzu,
herrien trufa-bazka⁷⁵

¹⁶ Begien aitzinean dut beti neure desohorea,
ahalgez gorri begitartea,

¹⁷ mespretxu eta irainengatik,
mendeku bila dabilan etsaiarengatik.

¹⁸ Hori guzia gertatu zaiku, nahiz-eta ez zaitugun ahantzi,
nahiz-eta zure elkargoa ez dugun bazter utzi.

¹⁹ Gure bihotza ez da zureganik urundu,
ez gure urratsak zure bidetik baztertu.

²⁰ Eta halere, basa-zakurren artean⁷⁶ xehatu
eta ilun beltzez estali gaituzu.

²¹ Guhauren Jainkoa ahantzi baginu

⁷⁴ **44,5** *zuk emaiten diozu Jakobi garaipena:* Lehengo itzulpenen arabera, *Israelen garaipenak erabakitzen dituzuna;* hebrearrezkoak *mana Israelen garaipenak* dio.

⁷⁵ **44,15** *herrien trufa-bazka:* H.h., *herriek burua higika,* trufa adiarazteko keinua.

⁷⁶ **44,20** *basa-zakurren artean:* Herrialde hondatua edo basamortua dira basa-zakurren ohiko bizileku.

SALMOAK

eta beste jainkoenganat eskuak luzatu,
²² ez ote zen ohartuko Jainkoa,
bihotzaren zokorik gordeenak ere ezagutzen dituena?
²³ Bainan ez, zuregatik egunoro hiltzorian gauzkate,
hiltegirako ardiak bezala gerabiltzate.

²⁴ Iratzar, Jauna! Zergatik zaude lo?
Iratzar! Ez gu arbuia betiko!
²⁵ Zertako daukuzu aurpegia gordetzen
eta gure zorigaitza eta zapalkuntza ahanzten?
²⁶ Errautserat eroriak gira,
lurrean zabal-zabala.

²⁷ Jeiki eta zato laguntzera!
Aska gaitzazu, leiala baitzira!

45. (44.) SALMOA

Eztei-kanta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Liliak⁷⁷» doinuan. Koreren semeen poema. Amodio-kanta.*

² Hitz ederrez barnea gaindika,
erregeari eskaintzen diot neure olerkia.
Idazle trebearen luma da nere mihia.

³ Gizonetan ederrena zaitugu,
ezpainetarik xarma darizu,
Jainkoak betidanik baitzaitu benedikatu!

⁴ Gerrian emazu ezpata, gudari ausarta,
zure aintza eta distira baita.

⁵ Zeure ospez, izan garaile
egiaren eta justiziaren alde.

⁷⁷ **45,1 Liliak:** Zenbaiten ustez, musika-tresna adiarazten du hitzak. Menturaz hitz hau *Kantarik Ederrena*-ren eraginez sartu da hemen; salmoak badu, kidetasunik Kt poemarekin. Salmoaren testua zaila da eta itzulpena guti gorabehera-koa zenbait pundutan.

SALMOAK

Tira zeure eskuaz

⁶ gezi zorrotz ikaragarri horiek:

herriak menpean zaizkizu jarriko,
erregearen etsaiak indarrrik gabe eroriko.

⁷ Betiereko Jainkoak ezarri zaitu errege⁷⁸;
zure erregegoa zuzentasun-erregegoa.

⁸ Zuzena maitatu duzu, gaizkia hastiatu,
horrengatik Jainkoak, zeure Jainkoak,
bozkario-olioz gantzutu zaitu,
lagunen artetik hautatu.

⁹ Mirra, aloe eta kanela usain-gozo zure jantzietan,
zure alaigarri, harpa-soinua bolizko jauregietan.

¹⁰ Zure maiteen artean errege-alabak,
zure eskuinean, erregina⁷⁹, Ofirko urrez apaindua.

¹¹ Entzun, alaba! Atxik argi begia, erne beharria!
Ahantz zeure herria eta aitaren etxea.

¹² Xoraturik dago erregea zure edertasunez.
Hori da zure jauna; agur egiozu ahuspez.

¹³ Tiro hiria⁸⁰ emaitzekin datorkizu,
herriko handikiak zure fagorearen bila dituzu.

¹⁴ Guziz ospetsua da errege-alaba
Urre-oihalez jantzia.

¹⁵ Soineko ederrenetan erregeaganat deramate;
neskatxa gazteak, bere lagunak, ondotik doazkio.

¹⁶ Besta-giro pozgarrian
sartzen dira erregearen jauregian.

¹⁷ Arbasoen lekuan jarriko dira zure semeak
mundu osoaren buruzagi eginen dituzu.

¹⁸ Zure oroitzapena bizirik dut gizaldiz gizaldi atxikiko,
eta menderen mendetan zaituzte herriek goretsiko.

⁷⁸ **45,7** *Betiereko... errege*: Grekozko itzulpenak hunela dio: *Zure tronua, oi Jainko, betierekoa*.

⁷⁹ **45,10** Lehen lerroaren itzulpena zalantzazkoak da. // *erregina*: Jatorrizko hitza arraroa da; hain segur, *erregina ama* adiarazten du (ik. 1 Erg 2,19).

⁸⁰ **45,13** *Tiro hiria*: H.h., *Tiro alaba*, hiriaren pertsonifikazione poetikoa; dena den, erran-nahia ez da segura.

46. (45.) SALMOA

Jerusalemen bizi den Jainkoari laudorioa

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeena. Oboez⁸¹. Kanta.*

² Jainkoa da gure aterbea eta indarra,
Larrialdi guzietan laguntzaile jarraikia.

³ Ez gira beldur,
lurra ikaratzten bada ere,
mendiak itsaso zolarat amiltzen,

⁴ hango urek hagunetan orro egiten,
mendiak uhainen oldarrek inarosten⁸².

⁵ Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria,
Goi-goikoaren bizileku sagaratua.

⁶ Jainkoa erdian duela, ez da kordokatzen,
goiz-goizetik Jainkoak du laguntzen.

⁷ Nazioneak marrumaka, erresumak dardaraka:
Jainkoa mintzatu eta lurra urtu da.

⁸ *Gurekin Jaun guziahalduna !
Gure gotorleku Jakobena Jainkoa!*

⁹ Zatozte, ikus Jaunaren egintzak,
lurrean egin dituen iraulketak:

¹⁰ mundu osoan guduak geldiarazi, arkuak hautsi,
lantzak puskatu, erredolak⁸³ suan kizkali.

¹¹ «Utz armak! Aitor zazue Jainkoa naizela,
herrien nagusia, lurraren nagusia».

¹² *Gurekin Jaun guziahalduna!
Gure gotorleku Jakobena Jainkoa!*

⁸¹ **46,1** *Oboez*: Hitzaren erran-nahia ez da segura; zenbaitek «*Neska gazteak*» *doinuan* itzultzen du.

⁸² **46,4** 3-4 ber.etako irudiek dena berriz hasierako kaoserat itzultzen dela adiarazten dute. Zenbait itzultzailek 8. eta 12. ber.etako leloa ezartzen du 4.aren ondotik ere, paralelismoa osatzeko.

⁸³ **46,10** *erredolak*: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoak *gudu-karroak* dio.

47. (46.) SALMOA

Jauna munduaren eta Israelen errege

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeen salmoa.*

² Herri guziek, egizue esku-zarta,
egizue Jainkoari poz-oihu eta irrintzi.

³ Izigarria baita Jauna, Goi-goikoa,
mundu osoaren errege handia.

⁴ Herriak menpean dauzkigu ezartzen,
nazioneak oinperat biltzen.

⁵ Guretzat lurralde bat hautatu du,
bere maitea duen Jakobena urgulu.

⁶ Irrintzien artean igan da Jainkoa,
turuta-soinutan Jauna.

⁷ Kanta Jainkoari, kanta!
Kanta gure erregeari, kanta!

⁸ Jainkoa mundu osoaren errege da:
zuen kantuak aitortu beza!

⁹ Jainkoa nazioenen errege da,
bere tronua sainduan jarria.

¹⁰ Herrietako printzeak elkartu dira :
Abrahamen Jainkoaren herria da.
Munduko ahaltsuak⁸⁴ Jainkoarenak dira.
Hura guziena gaitetik goiena!

48. (47.) SALMOA

Sion mendiari eta Jainkoaren hiriari laudorioa

¹ *Kanta. Koreren semeen salmoa.*

² Handia da Jauna, guziena goresgarria
gure Jainkoaren hirian, bere mendi sainduan!

⁸⁴ **47,10 munduko ahaltsuak:** H.h., munduko erredolak; erredola ahaltsuak/erregeak adiarazteko metafora da.

SALMOAK

³ Mendi eder, munduaren erdigune⁸⁵!
Sion mendi, Jainkoaren egoitza, errege handiaren hiri!

⁴ Hango jauregien artean,
gotorleku agertu da Jainkoa.

⁵ Hara, erregeak ziren hitzartu
eta denak batean haren kontra oldartu.

⁶ Bainan izitu ziren Sion ikustean
eta ikaraz ihes joan.

⁷ Dardarak hartu zituen,
oinaze larriak, emaztea erdiminetan bezala,
⁸ eguzkialdeko haizeak ur handietako ontziak⁸⁶
puskatzen dituenen bezala.

⁹ Entzun ginuena, guhaurek ikusi dugu
Jaun guziahaldunaren hirian,
gure Jainkoaren hirian:
sendo ezarri duela Jainkoak betiko!

¹⁰ Oi Jainko, zure maitasuna gogoratzen dugu
zure tenpluaren erdian.

¹¹ Zure omena bezala zure gorespina ere, oi Jainko,
mundu bazterretik bazterrerat heltzen da.
Eskuzabala zira, Jauna!

¹² Pozik da Sion mendia, pozik Judako hiriak⁸⁷,
zure erabakiengatik.

¹³ Egizue Sionen itzulia,
konda hango dorreak,

¹⁴ ikus hango harresiak, iker jauregiak,
ondoko gizaldiari erraiteko:

¹⁵ «Hau da gure Jainkoa, gure Jainkoa sekulako:
hau dugu gidari betiko⁸⁸».

⁸⁵ **48,3 munduaren erdigune:** Hebrearezkoak *iparraldeko azken muga* (ik. Is 14,13) edo *Tzafonen erdigunea* dio. *Tzafon iparralde* da normalki; bainan kanaandar mitologian jainkoak biltzen ziren mendia zen, iparraldean urrun kokatua, munduko tokirik sakratuena, beraz. *Azken muga* edo *bazter* hitzak erdigune edo zentro ere erran nahi du. Salmogileak kanaandar literaturak *Tzafon* mendiaz ziona Jerusalemgo Sion mendiari, *Jainkoaren egoitzari*, aplikatzen dio.

⁸⁶ **48,8 ur handietako ontziak:** H.h., *Tarsiseko ontziak*, erran nahi baita, itsaso zabala zeharkatzen zuten ontziak (ik. Is 23,1).

⁸⁷ **48,12 Judako hiriak:** H.h., *Judako alabak*, erran nahi baita, herrialdeko hiriak.

⁸⁸ **48,15 betiko:** Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoak zentzurik gabeko bi hitz dakartza.

49. (48.) SALMOA

Heriotzean bururatzen den aberastasunaz gogoeta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeen salmoa.*

² Entzun hau, herri guziek,
egon adi, munduko bizilagun horiek,

³ jende xehe eta handiki,
aberats eta behartsu!

⁴ Zuhurtziazko hitzak erranen ditu nere ahoak,
zentzuzko gogoetak ixuriko ene bihotzak.

⁵ Erran zaharrari adi,
ene zitaraz argituko dut zentzu gordea.

⁶ Zorigaitzeko egunetan, zergatik beldur izan,
maltzurren gaixtakeriak inguratzen nauenean?

⁷ Horiek beren ontasunetaz fida dira
eta beren aberastasun handiaz harro.

⁸ Bainan jendeak ezin du bere burua salbatu,
ez eta Jainkoari biziaren erospen-saria ordaindu.

⁹ Garestiegia da biziaren erospen-saria
noizbait ordaindu ahal izaiteko.

¹⁰ Beti biziko ote da?

Ez ote du nehoiz hilobia ikusiko?

¹¹ Jakina da jakintsuak ere direla hiltzen,
zentzugabe eta zoroak bezala desagertzen,
eta beren ontasunak besterentzat uzten.

¹² Lurreri beren izenak emanik ere,
hilobia izanen dute betiko etxe,
han egonen dira azkenik gabe.

¹³ Bere ohore guziekin, jendeak ez du gaua irauten,
animalia bezala da galtzen.

¹⁴ Horra beren buruan fidatzen direnen zoria,
aho-eder horien azkena:

¹⁵ Hilan Egoitzarat eremanen dituzte ardiak bezala,

SALMOAK

Herioa ukanen dute artzain.
Zuzen-zuzena dira hilobirat jautsiko,
heien herrestoa han ezabatuko
eta Hilan Egoitza ukanen dute bizileku⁸⁹.
¹⁶ Bainan ni, Jainkoak bizirik aterako nau
Herioaren menpetik, eta berekin eremanen.

¹⁷ Ez beldur izan norbait bada aberasten,
bere etxeko ontasunak baditu areagotzen;
¹⁸ hiltzean, ez du deus berekin eremanen,
aberastasunak ez zaizkio jarraikiren.
¹⁹ Bizi zenean, hunela ederresten zuen bere burua:
«Esku-zartaka ari zaizkit, dena ongi doakitalakotz!»
²⁰ Bere arbasoen artera joanen da,
sekula berriz argirik ikusiko ez dutenengana.

²¹ Bere ohore guziekin, jendeak ez du konprenitzen,
animalia bezala da galtzen.

50. (49.) SALMOA

Jainkoari atsegin zaion sakrifizioa

¹ *Asafen*⁹⁰ *Salmoa*.

Jauna, jainkoen Jainkoa, mintzo da,
mundu osoari dei egiten dio batzarrerat
eguzkiaren sortaldetik sartalderat.
² Siondik, edertasun beteko menditik,
Jainkoa distiraz agertzen da.
³ Badator gure Jainkoa, eta ez ixilean:
su irenslea aitzinean, erauntsi zakarra inguruan.
⁴ Gain hartarik deitu ditu zerua eta lurra
bere herriarekin duen auzira:
⁵ «Bil nere fededunak,
sakrifizioa eskainiz nerekin elkargo egin dutenak».

⁸⁹ **49,15** Azken hiru lerroak ilunak dira jatorrizkoan eta itzulpena guti gorabeherakoa.

⁹⁰ **50,1** *Asaf*: Tenpluko levitar kantari-talde baten arbasoa da (ik. 1 Kro 16,5-7.37; 25,1-2). Haren izenpean ezarriak dira 73--83 *Salmoak* ere.

SALMOAK

⁶ Iragar beza zeruak Jainkoaren justizia,
Jainkoa bera da juje!⁹¹

⁷ «Entzun, Israel, ene herri,
zure kontra eginen dutan aitorpena.
Ni naiz Jainkoa, zure Jainkoa!

⁸ Ez zaitut salatzen zeure sakrifizio eta erre-opariengatik:
aitzinean ditut beti.

⁹ Ez dauzut eskatzen zeure barrukiko zezenik,
ez eta zeure ahunztegiko akerrik,

¹⁰ neureak baititut oihanetako ihiziak
eta mendi goretako animaliak.

¹¹ Mendiko hegazti guziak ezagutzen ditut,
landan bizi den oro neurea dut.

¹² Gose banintz, ez nauzuke zuri eskatuko,
neurea baitut mundua eta hango guzia.

¹³ Uste ote duzu zezenen haragia dutala jaten
edo akarren odola edaten?

¹⁴ Eskain gorespina sakrifiziotzat⁹² Jainkoari,
bete zeure botuak Goi-goikoari.

¹⁵ Larrialdian dei egidazu:
libratuko zaitut eta ohoratuko nauzu».

¹⁶ Gaixtoari, berriz, hau dio Jainkoak:
«Nolaz aipa dezazkezu nere arauak,
nolaz ahoan erabil nerekilako elkargoa,

¹⁷ zentza zaitzatan hastio baduzu,
nik erranari bizkar emaiten badiozu ?

¹⁸ Lapurra ikustean, harekin duzu bat egiten,
adulteriogileekin zira elkartzen.

¹⁹ Gaixtakeriako arin duzu ahoa,
tronpatzeko zalu mihia.

²⁰ Zeure anaiaz gaizki-erranka,
zeure amaren semea duzu belzten.

²¹ Zuk hori egin eta ni, ote, ixilik egonen?
Zu bezalakoa naizela uste ote duzu?

⁹¹ **50,6** 1-6 ber.ek judizioaren egitura dute, jujea, lekukoak eta auzian parte direnak aipatzen direlarik; 7tik harat salaketa dator.

⁹² **50,14** *Eskain gorespina sakrifiziotzat*: Hunela ere itzul daiteke: *Eskain esker onezko oparia*; gauza bera 23. ber.ean.

SALMOAK

Ez, salatuko zaitut, dena aurpegirat botako.

²² Adi zazue hori, Jainkoa ahanzten duzuenek!

Bestela, puskatuko zaituztet
eta libratzailerik ez duzu ukanen.

²³ Sakrifiziotzat gorespena dautanak eskaintzen,
harek daut ohore emaiten.

Nere bidetik doanari
neure salbamendua erakutsiko diot».

51. (50.) SALMOA

Barkamenduaren eta bihotz berriaren eske

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.* ² *David Betsaberekin elkartu ondoan, Natan profeta Davidenganat joan zen hartan.*

³ Urrikal zaite nitaz, ene Jainkoa, zeure maitasunaz,
suntsi nere hobena, zeure neurrigabeko urrikalmenduaz.

⁴ Ikuz nezazu osoki neure hobenetik,
garbi neure bekatutik.

⁵ Aitortzen dut, bai, neure bekatua,
begien aitzinean dut beti neure hobena.

⁶ Zure kontra, zure kontra bakarrik dut bekatu egin,
zure begietan gaizki dena egin.

Arrazoin ukanen duzu salatzean,
Zuzena izanen zira jujatzean⁹³.

⁷ Bai, gaizkirako ixuriarekin
bekatuan sortu ninduen amak.

⁸ Zuk, ordea, bihotz leiala atsegin⁹⁴ duzu,
barne-barnean zuhurtzia irakasten dautazu.

⁹ Ken nere bekatua, eta garbi izanen naiz⁹⁵;

⁹³ **51,6** Arrazoin... jujatzean: Grekozkoak hunela dio: *Horrela, zuzena zirela agertuko dute zure hitzek eta, auzipetua izatean, irabazle aterako zira* (ik. Erm 3,4).

⁹⁴ **51,8** atsegin: Jatorrizkoak erran-nahi ezezaguneko hitz bat eransten du hemen. Grekozkoak hunela itzultzen du ber. osoa: *zeren leialtasuna maite baituzu, eta zeure zuhurtziaren gauza gorde eta ixilekoak erakutsi dauzkidazu.*

SALMOAK

ikuz nezazu, eta elurra baino xuriago izanen naiz.

¹⁰ Entzun ditzatala berriz atsegin eta alaitasun kantuak, eta dantzatuko dira kraskatu dituzun hezurak.

¹¹ Nere bekatutik bazter zeure begiak, suntsi nere huts guziak.

¹² Ene Jainkoa, krea zadazu bihotz garbia, berri nere baitan izpiritu sendoa.

¹³ Ez nezazula urrunt zeure aurpegiaren aitzinetik, ez ken eni zure izpiritu saindua.

¹⁴ Salbatua naizelako atsegina berriz emadazu, zeure izpiritu nasaiaz azkar nezazu.

¹⁵ Erakutsiko diozkadet gaixtoeri zure bideak, eta zureganat itzuliko dira bekatariak.

¹⁶ Libra nezazu heriotzetik⁹⁶, ene Jainkoa, ene Jainko salbatzailea, eta nere ezpainek poz-oihuz ospatuko dute zure salbamendua.

¹⁷ Idek, Jauna, nere ezpainak eta zure gorespina oihukatuko du nere ahoak.

¹⁸ Ez zinuke sakrifiziorik nahiko; erre-oparia eskaintzen banauzu, ez zinuke onartuko.

¹⁹ Nere sakrifizioa Jainkoari: urrikiz hautsiriko izpiritua; zuk ez duzu gutiesten, ene Jainkoa, bihotz-hautsi eta damutua.

²⁰ Zeure fagoreaz ongia egiozu Sioni, altxazkizu Jerusalemgo harresiak.

²¹ Orduan dituzu atsegin ukanen legezko sakrifizioak, oso-osorik erretzeko opariak; orduan dira zure aldarean eskainiko zezenak.

52. (51.) SALMOA

Gaixtakeria-zalearekin eztabaida

⁹⁵ **51,9** Hau da lerroaren ohiko itzulpena: *Ken nere bekatua isipuz* (ik. Jal 12,22 oh.), *eta garbi izanen naiz*.

⁹⁶ **51,16** *heriotzetik*: H.h., *odoletik*. *Odol-hoben* ere konpreni daiteke; hala irakurtzen dute judu-komentarioek, Uriasen hilketara aipatua ikusiz.

SALMOAK

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden poema.* ² *Doeg edomdarra Saulenganat etorri eta David Ahimeleken etxerat joana zela adiarazi zionekoa.*

³ Zergatik zabiltz harro zeure gaixtakeriaz
jainkozalearen kontra oldartzeaz⁹⁷?

⁴ Makurkeria asmatzea da zure lan geldigabea;
labana zorrotza zure mihia, maltzurkeriazalea.

⁵ Ongia baino maiteago duzu gaizkia,
solas leiala baino nahiago gezurra.

⁶ Hitz galgarri oro duzu maite,
mihi-maltzurra!

⁷ Jainkoak berak sunsituko zaitu betiko,
zeure bizilekutik botako,
zure erroak bizidunen lurretik aterako.

⁸ Hori ikustearekin beldurtuko dira zintzoak,
eta irri eginen dute, erranez:

⁹ «Horra aterbetzat Jainkoa hartu ez duena,
konfiantza bere aberastasunetan ezarri
eta bere makurkeriak dituen oinarri!»

¹⁰ Nik, berriz, Jainkoaren etxean olibondo hezearen iduriko,
haren maitasunean dut konfiantza beti-betiko!

¹¹ Beti goretsiko zaitut egin duzunarendako,
beti ospatuko, zeure fededunentzat hain ona zirelako.

53. (52.) SALMOA

Sinesgabearen zentzugabekeria

(Sal 14)

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Erialdiko⁹⁸. Daviden poema.*

² *Hau dio zoroak bere baitan: «Ez da Jainkorik».*

⁹⁷ **52,3** Ber.a ez da argia jatorrizkoan eta itzulpen ezberdinak eman ohi dira.

⁹⁸ **53,1** 53. salmoa 14.aren berdina da, aldaketatxo batzuk gorabehera: *Jaunaren ordez Jainkoa* erabiltzen du, eta 6. ber.a, 14,5-6ari dagokiona, ezberdina da. Ik., beraz, hango oh.ak. // *Erialdirako*: Hebrearezko hitzaren erran-nahia ez da segura.

SALMOAK

Ustelduak dira, higuingarriak,
ez da nehor ongia egiten duenik.

³ Jainkoa jendeeri so dago zerutik,
ba ote den zentzudunik,
Jainkoaren bilatzera entseatzen denik.

⁴ Denak bidegalduak, bat egin dute gaixtakerian,
nehor ez da ongi ari denik,
bat bera ere.

⁵ Ez ote dute ikasiko gaixtaginek,
nere herria ogia bezala jaten dutenek
eta Jainkoari dei egiten ez dioten horiek?

⁶ Bai, beldurrez ikaratuko dira,
beldurtzekorik ez izanagatik,
Jainkoak hausten baitu erasotzaileen indarra.
Ahalgegarri geldituko dira,
Jainkoak arbuiatzen baititu.

⁷ Ai! etor dadila Siondik Israelen salbamendua!
Jainkoak aldatuko duenean bere herriaren zoria,
poztuko da Jakob, alaituko Israel.

54. (53.) SALMOA

Eraso larrian Jainko geriza emaileari

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Harizko musika-tresnaz. Daviden poema.*

² *Zifdarrak, David beren artean gordea zela, Sauli erraitera joan zirenekoa*⁹⁹ *i*

³ Salba nezazu, ene Jainko, zirena zirelakotz¹⁰⁰!

Begira nezazu zeure ahalaz!

⁴ Entzun, ene Jainko, nere otoitza,
itzul beharria nere galdeetara.

⁹⁹ 54,2 Salmoa David Saulenganik ihes zabilan garai bati lotzen zaio (ik. 1 Sm 23,19-28; 26,1.)

¹⁰⁰ 54,3 *zirena zirelakotz*: H.h., *zeure izenarengatik*. Izenak izana adiarazten du maiz Biblian.

SALMOAK

⁵ Arrotzak oldartu zaizkit,
gogorkeriazaleak ni hil nahiz dabiltza,
Jainkoaz axolarik gabe.

⁶ Nik, ordea, Jainkoa dut lagun,
Jauna biziaren geriza.

⁷ Ordain biezote gaitza nere etsaieri!
Honda bitza, bere leialtasunagatik!

⁸ Sakrifizioak eskainiko dauzkizut bihotz-bihotzez,
Ospatuko dut, Jauna, zure izena, ona zirelakotz.

⁹ Larrialdi guzietarik libratu nau Jaunak,
eta etsaien hondamena ikusi dut.

55. (54.) SALMOA

Deia, etsaiengatik eta gezurrezko adiskide batengatik

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Harizko musika-tresnaz. Daviden poema.*

² Ene Jainko, itzul beharria nere otoitzari,
ez izan entzungogor nere deiari.

³ Kasu egidazu eta ihardets.
Kezkatua nago, kexu batean eta dardaraz,

⁴ etsaiaren oihuengatik,
gaixtoaren zapalkuntzagatik.
Zorigaitza botatzen dautate gainerat,
haserrez oldartzen zaizkit.

⁵ Pirpiraka ari zait bihotza bularrean,
herio-izialdurak hartu nau.

⁶ Beldurra eta ikara nitaz jabetu dira,
dardara batean nago.

⁷ Neure baitan diot: «Ai uso-hegalak banitu!
Hegalda ninteke, beste nonbait finkatzeko.

⁸ Urrun, bai urrun, ihes egin nezake,
basamortuan bizitzen jar ninteke.

⁹ Berehala aurki nezake aterbe

SALMOAK

ekaitzaren haize-burrunbatik».

¹⁰ Nahas, Jauna, horien mihi maltzurra.
Gogorkeria eta haserrea baizik ez baitut ikusten hirian,
¹¹ gau eta egun harresietan inguruka,
barnean makurkeria eta bidegabekeria nagusi,
¹² hiri barnean hilketak,
abrekeria eta azpikeriaz gaindi karrikak.

¹³ Ez nau etsaiak iraintzen:
hura jasan nezake.
Ez nau hastio nauenak mespretxatzen:
harenganik gorde ninteke;
¹⁴ baizik zuk, nere kidekoak,
nere adiskide samur eta minak.
¹⁵ Solaskide gozo zintutan,
elkarrekin ibiltzen ginen jendartean Jainkoaren etxean.

¹⁶ Heriotzeak bat-batean jo ditzala,
jauts bite bizirik Hilen Egoitzara,
berekin baitute gaixtakeria!¹⁰¹

¹⁷ Nik Jainkoari diot dei egiten
eta Jaunak nau salbatzen.
¹⁸ Arrats, goiz eta eguerdi, kexu eta intzirika nindagola,
harek entzun du nere ahotsa.
¹⁹ Onik atera daut bizia oldarretarik,
etsaiak hain ugari nituelarik.
²⁰ Entzun nezala eta heiek makurraraz Jainkoak,
betidanik errege denak!
Heiek ez dira aldatuko,
ez dute Jainkoaren errespeturik!

²¹ Adiskidearen kontra altxatu du¹⁰² eskua,
hautsiz elkargoa.

²² Urina baino leunago du ahoa,

¹⁰¹ **55,16** Ber.eko lehen eta hirugarren lerroak ilunak dira jatorrizkoan.

¹⁰² **55,21** *altxatu du*: Jatorrizkoak ez du subjektua zehazten; menturaz, 13-15 ber.etan aipatu adiskidea da.

bainan borroka-gose bihotza.
Olioa baino eztiago ditu hitzak,
bainan horiek ezpata zorrotzak.
²³ Eza zeure zama Jaunaren eskuetan;
xutik atxikiko zaitu, bai, Ongileak¹⁰³.
Ez du sekula zintzoa erortzera utziko.

²⁴ Zuk, ene Jainko, herio-zilorat jautsaraziko dituzu
odolzale eta maltzurak;
bizitzaren erdirat ere ez dira helduko.
Nik, ordea, zure baitan dut fidantzia.

56. (55.) SALMOA

Jainkoaren baitan dut fidantzia, ez naiz beldur

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Urruneko Jainkoen usoa» doinuan.
Davidena. Miktam¹⁰⁴. Filistearrek Gaten David preso hartu zutenekoa.*

² Urrikal nitaz, Jainko, ene ondotik dabilta,
egun guzian oldarka zapaltzen naute.

³ Egun guzian gibeletik ditut etsaiak;
anitz dira oldartzen zaizkitanak.

⁴ Beldur naizenean,
zure baitan dut fidantzia.

⁵ *Jainkoa baitan – haren hitza dut goستن –
Jainkoa baitan dut fidantzia, ez naiz beldur:
zer eginen daut jende hilkorak?*

⁶ Sofriarazten dautate egun guzian,
nere kaltea baizik ez dute gogoan.

⁷ Gorderik daude barrandan,
beha nondik norat nabilan,
neri biziaren kentzeko zain.

⁸ Gaixtakeria hunen zigorrari ihes eginen ote diote?

¹⁰³ **55,23** *Ongileak*: Biblia osoan hemen bakarrik aipatzen den hitz baten ustezko itzulpena.

¹⁰⁴ **56,1** «Urruneko Jainkoen usoa»: Kantu ezagun baten lehen hitzak izan daitezke. Itzulpena zalantzazkoa da. // *Miktam*: Ik. 16,1 oh.

SALMOAK

Ene Jainko, errauts jende horiek zeure haserreaz!

⁹ Kondatu dituzu nere harat-hunetak,
bil zeure zahagian nere nigarrak,
zeure liburuan nere nekeak¹⁰⁵.

¹⁰ Nik laguntza eskatuko dutanean
gibelerat eginen dute etsaiek
badakit alde dutala Jainkoa.

¹¹ *Jainkoa baitan – haren hitza dut goresten –
Jauna baitan – haren hitza dut goresten –*

¹² *Jainkoa baitan dut fidantzia, ez naiz beldur:
zer eginen dautate jendeek ?*

¹³ Eman nauzun hitza atxikiko dut, ene Jainko,
eta esker onezko sakrifizioak beteko.

¹⁴ Bizia libratu baitautazu heriotzetik, oinak erortzetik,
zure aitzinean ibil nadin, oi Jainko, biziaren argitan

57. (56.) SALMOA

Jainkoa baitan geriza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Ez suntsi» doinuan¹⁰⁶. Davidena. Miktam.
Davidek Saulenganik harperat ihes egin zuenekoa.*

² Urrikal nitaz, ene Jainko, urrikal nitaz,
zu baitzaitut aterbe;
zure hegalean pean dut aterbe,
zorigaitza iragan arte.

³ Jainkoari dei egiten diot, Goi-goikoari,
ongia egiten dautan Jainkoari.

⁴ Zerutik norbait igorriko du,
oldartzaileen laidotik salba nezan.
Jainkoak bere maitasun eta leialtasuna igorriko dauzkit.

¹⁰⁵ **56,9** zeure liburuan nere nekeak: Hunela ere itzul daiteke: *Ez ote da zure liburuan (dena idatzia)?*

¹⁰⁶ **57,1** «Ez suntsi» doinuan: Oharpen bera 58--59 eta 75. *Salmoetan* agertzen da.

SALMOAK

⁵ Lehoinen artean naiz,
jende-jaleen artean natza;
horien hortzak gezi eta lantza
horien mihia ezpata zorrotza.

⁶ *Xuti zaitte, ene Jainko, zeruez goiti!
Zure aintza izan bedi lur osoan nagusi!*

⁷ Sarea hedatu dautate bidean,
lur jo dezadan.
Ziloa egin dautate aitzinean,
bainan berak barnerat erori.

⁸ Lasaitua naiz, ene Jainko,
Lasaitua naiz;
kantatuko eta soinua joko dauzut.

⁹ Iratzar zaitte, ene bihotza,
iratzar, harpa eta zitara;
iratzar dezatan goiz-argia.

¹⁰ Herrien artean, Jauna, zaitut goretsiko,
nazioneen artean kantatuko.

¹¹ Bai, zerurainokoa zure maitasuna,
hodeietarainokoa zure leialtasuna.

¹² *Xuti zaitte, ene Jainko, zeruez goiti!
Zure aintza izan bedi lur osoan nagusi!*

58. (57.) SALMOA

Gobernari tzarren kontra Jainkoari eskea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Ez suntsi» doinuan. Davidena. Miktam.*

² Buruzagi¹⁰⁷ horiek, jujamendu zuzenak egiten ote dituzue?
Jendea zuzen gobernatzen ote duzue?

¹⁰⁷ **58, 2** *Buruzagi*: jatorrizko hitza zalantzazkoa da, eta bi gisetarat zuzendu ohi da: *Jainkoak* edo *marroak*, biak buruzagiak/jujeak adiarazteko irudi direlarik.

SALMOAK

³ Ez! Bihotz makurrez duzue jokutzen,
zuen eskuez lurraldean bortizkeria zabaltzen¹⁰⁸.

⁴ Gaixtoak, amaren sabeladanik jada galduak,
gezurtiak, amaren sabeladanik desbideratuak.

⁵ Pozoina badute, sugeak bezala;
beharriak hesten dituen suge-gorri elkorrak bezala,

⁶ lilluratzaileren, zoratzailekik trebeenaren
soinua ez dute entzuten.

⁷ Oi Jainko, hauts horieri hortzak ahoan!
Jauna, puska lehoin horien letaginak!

⁸ Gal bite, ur ixuria bezala
eta zimel, belar lehertua bezala¹⁰⁹.

⁹ Desager bite leka darion barearen pare,
ez bezate eguzki-argirik ikus, haur galduak bezala.

¹⁰ Sasien idurirat elorriak luzatu baino lehen
ereman bitza haize-erauntsiak heze daudenean,
ihartuak balira bezala¹¹⁰.

¹¹ Mendekua ikustean, zintzoak atsegin hartuko du,
eta gaizkileen odolean oinak ikuziko.

¹² Eta jendeak erranen du: «Balio du, bai, zintzo izaitea!
Bada, bai, mundua gobernatzen duen Jainkoa!»

59. (58.) SALMOA

Hobengabearen otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Ez suntsi» doinuan. Davidena. Mitkam. Saulek, Daviden hiltzeko, hunen etxea barrandatzeko manatu zueneko*¹¹¹.

² Ene Jainko, libra nezazu etsaienganik,
begira nezazu oldartzaileenganik.

³ Libra nezazu odolzailetarik,
salba hiltzailetarik.

¹⁰⁸ 58,3 Ber.eko testua iluna da jatorrizkoan.

¹⁰⁹ 58,8 Bigarren lerroaren itzulpena guti gorabeherakoa da.

¹¹⁰ 58,10 Ber. osoko testua iluna da eta itzulpena guti gorabeherakoa.

¹¹¹ 59,1 Pasartea 1 Sm 19,11-17an kondatzen da.

SALMOAK

⁴ Horra, barrandan daude nere kontra,
boteretsuak azpijokoan ari zaizkit.

Jauna, ez dut hobenik, ez dut egin bekaturik.

⁵ Hobengabea naiz, bainan heldu zaizkit oldartzera.
Iratzar zaite, Jauna! Zatozkit eta ikus!

⁶ Jauna, Jainko guziahalduna, Israelen Jainkoa,
iratzar zaite sinesgabeen zigortzeko,
ez izan trahitzaile zital horien gupidarik.

⁷ *Hor dabil tza aratsean, zakurrak bezala ehausika,
hirian barna inguru-minguruka.*

⁸ Hor dabil tza ahoa zabalik,
hitz gaixtoa¹¹² dariotela ezpainetarik,
nehork entzuten ez dituelakoan.

⁹ Bainan zuk, Jauna, egiten diozute irri,
egiten trufa sinesgabe horieri.

¹⁰ Zuri beha nago, ene indar,
zu baitzaitut gotorleku, ene Jainko.

¹¹ Maite nauen Jainkoa zait etorriko
eta ni etsaien porrotaz alaituko.

¹² Oi Jainko, ez ditzazula hil, nere herriak ez dezan ahantz;
barreiazkizu eta aurtik zeure indarraz,
Jauna, zu gure erredola!

¹³ Harrapa bitzate azpian beren harrokeriak,
beren ahoko madarizioneek,
zabaldutuzten gezurrek.

¹⁴ Garbizkizu zeure haserreaz,
eta ez bedi deus geldi!

Jakin bezate Jainkoa dela nagusi Jakoberen lurraldean
eta munduaren azken mugetaraino.

¹⁵ *Hor dabil tza aratsean, zakurrak bezala ehausika,
hirian barna inguru-minguruka.*

¹⁶ Jateko bila dabil tza harat-hunat;
asetzen ez badira, ez dute ixiltzerik.

¹¹² **59,8** hitz gaixtoak: H.h., *ezpatak*.

¹⁷ Nik, ordea, zure indarra dut kantatuko,
goizean zure maitasuna poz-oihuz ospatuko;
zu izan zaitut gotorleku, larrialdian ihesleku.

¹⁸ Zu nere indarra, kantatuko zaitut!
Nere gotorlekua Jainkoa da,
leial egoiten zaitan Jainkoa.

60. (59.) SALMOA

Herriaren nigar-kanta eta laguntza eskea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Liliak» doinuan. Miktam. Davidena. Irakaspenerako.* ² *David Mesopotamiako eta Tzobako aramearren kontra borrokan ari izan zenekoa eta, itzultzean, Joabek Gatz haranean edomdarrak —hamabi mila gizon— garaitu zituenekoa.*¹¹³

³ Baztertu gaituzu, oi Jainko, eta hautsi,
haserreturik, urrundu zira gureganik¹¹⁴.

⁴ Lurraldea dardaratu duzu eta zartatu;
antola haren arraildurak, honda ez dadin!

⁵ Gorriak ikusarazi diozkazu zeure herriari,
burtxoratzeko arnoa¹¹⁵ edanarazi daukuzu.

⁶ Zure errespetua duteneri ezaugarri bat eman diozute,
arkularienganik ihes egin ahal dezaten.

⁷ Emaguzu garaipena zeure ahalaz, eta entzun,
zure maite-maiteak libra ditzazun.

⁸ Jainkoak bere saindutegitik erran du:
«Hau poza, Sikem hiria dut banatuko,
Sukot¹¹⁶ harana neurtuko.

⁹ Neurea dut Galaad, neurea Manases,
neure kaska dut Efraim¹¹⁷, neure buruzagi-makila Juda,

¹¹³ **60,1-2** *Liliak*: Ik. 45,1 oh. // *garaitu zituenekoa*: Pasarte 2 Sm 8an kondatzen da; halere, hainbat xehetasun ezberdinak dira.

¹¹⁴ **60,3** Hunela ere itzuli ohi da lerroa: *haserre egon zinen; itzul zaite gureganat*.

¹¹⁵ **60,5** *arno*: Zigorraren irudia da; ik. Jr 13,13 oh.

¹¹⁶ **60,8** *bere saindutegitik*: Edo *bere saindutasunagatik/saindutasunean*. // *Sikem*: Palestina erdian dago; *Sukot*, Jordanez bestaldean, ondoko ber.eko *Galaad* bezala.

SALMOAK

¹⁰ ikuzteko ontzia Moab;
oina ezartzen diot gainean Edomi¹¹⁸,
garaipen-oihu egiten Filisteari».

¹¹ Nork eremanen nau hiri gotorturat,
nork gidatuko Edomerat,

¹² ez ote zuk, arbuiatu gaituzun Jainkoak,
gure armadarekin gehiago joaiten ez zirenak?

¹³ Emaguzu laguntza etsaien kontra,
giza laguntza alferretakoa baita.

¹⁴ Jainkoarekin guk eginen ditugu gauza handiak,
harek zangopilatuko ditu gure etsaiak.

61. (60.) SALMOA

Tenplutik urrun dagonaren otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Harizko musika-tresnaz. Davidena.*

² Entzun, Jainko, nere oihua,
onar nere otoitza.

³ Lurraren beste burutik zuri deika nago
bihotz galdurik.

Ereman nezazu neretzat goregi den harrokarat.

⁴ Zu baitzaitut aterbe,
etsaien kontrako dorre.

⁵ Bizi nahi nuke betiko zure etxean,
gorderik zure hegalen gerizan.

⁶ Zuk, Jainko, onartu duzu nere botua
eta zure errespetua duteneri eman beren ondorea.

⁷ Luzazkizu erregearen bizitzako egunak,
iraun bezate haren urteek gizaldi eta gizaldiak!

⁸ Izan bedi errege zure aitzinean beti!

¹¹⁷ **60,9** *Manases, Efraim*: Israel edo Ipar-erresumako bizilagunen leinuburuak dira. *Juda* ere aipatzen delarik, herriaren lurralde osoko Jaun bezala agertzen da Jainkoa.

¹¹⁸ **60,10** *oina ezartzen diot gainean Edomi*: jabegoa adiarazteko keinua da. Irudi hauek Israelen betidanikako etsai diren herrialdeen gainean Jaunak duen nagusigoa adiarazten dute.

SALMOAK

Izan bitza zure maitasun eta leialtasuna zaindari!

⁹ Orduan, zure izenaren ohoretan dut geldigabe kantatuko eta egunoro dauzkizut botuak beteko.

62. (61.) SALMOA

Jainkoaz bakarrik fidatzeko deia

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Jedutun*» en doinuaz. Daviden salmoa.*

² Jainkoaren baitan bakarrik nere atsedena,
harenganik nere salbamena.

³ *Hura bakarrik nere salbamena eta harroka,
nere gotorlekua: ezin naiz kordoka.*

⁴ Noiz arte oldartu behar duzue gizon baten kontra,
hura aurtiki nahiz lurrera
pareta makurtua, hesi kordoka bezala!

⁵ Azpikeria heien xede bakarra,
ene hondatzeko, atsegin zaiote gezurra:
ahoz benedika, eta bihotzez madarika.

⁶ Jainkoaren baitan bakarrik nere atsedena,
harenganik baitator nere esperantza.

⁷ *Hura bakarrik nere salbamena eta harroka,
nere gotorlekua: ez naiz kordoka.*

⁸ Jainkoaren baitan nere salbamena eta ohorea,
Jainkoa nere harroka sendoa eta aterbea.

⁹ Atxik beti haren baitan fidantzia, haren herria zirezte!
Zabal hari zuen bihotza! Jainkoa dugu aterbe!

¹⁰ Jende xehea haizea da,
Handikiak, gezurra.
Denak batean pisuan ezarri eta,
haizea baino arinago dira.

¹¹ Ez ukan fidantziarik zapalkuntzan,
ez ukan usterik ohointzan.

Ontasun anitz ukanik ere, ez eman heieri bihotza.

SALMOAK

¹² Jainkoak gauza bat erran eta nik bi entzun¹¹⁹:

Jainkoarena dela indarra

¹³ eta zurea, Jauna, leialtasuna,
eta hau ere : bakotxari ordaintzen diozula
bere egintzen arabera.

63. (62.) SALMOA

Jainkoaren egarriz gau eta egun

¹ *Daviden salmoa. Judako basamortuan zagonekoa.*

² Jainko, ene Jainkoa, goizetik zure ondotik nabila,
zure egarriz daukat arima,
zure tirriaz gorputza,
lur idor, egarri, urgabe iduria.

³ Zuri begira egon naiz saindutegian,
zure indarra eta ospea ikusi nahian.

⁴ Bizia baino hobea da zure maitasuna!
ene ezpainen eginen dute zure gorespina.

⁵ Bai, benedikatuko zaitut bizi naizeno,
eskuak zuri dei eginez ditut altxatuko.

⁶ Jakirik gozoenez¹²⁰ bezala naiz aseko,
ezpain alaiez ene ahoak zaitu goretsiko.

⁷ Zutaz oroitzen naiz ohe gainean,
ene gogoa zuri dago gauean.

⁸ Bai, zu ukan zaitut laguntzailea;
pozez oihuka nago zure hegalean itzalean.

⁹ Zuri lotua dago nere gogoa osorik,
zure eskuak nauka xutik.

¹⁰ Ni galdu nahiz dabiltzanak, ordea,
lurperat doatzila!

¹¹⁹ **62,12** Jainkoak... entzun: H.h., Jainkoak gauza bat erran du, entzun diozkatan bi gauza.

¹²⁰ **63,6** Jakirik gozoenez: H.h., Gantz eta olioz.

SALMOAK

¹¹ Ezpataz hil bite, azerien janari bilaka!

¹² Erregea Jainkoarekin poztuko da.

Haren izenagatik¹²¹ zin egiten duena harro izanen da;
gezurtieri, berriz, hetsiko diote ahoa.

64. (63.) SALMOA

Jainkoak zigortu gaixtoak

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Entzun, Jainko, nere auhena,
etsai beldurgarriaganik begira nere bizia.

³ Gorde nezazu gaixtoen azpilanetik,
hitzartu diren gaizkileenganik;

⁴ ezpata bezala zorrozten dituzte mihiak,
geziak bezala botatzen hitz pozointsuak:

⁵ hobengabeari gordeka tiratzen dituzte,
bat-batean eta deuseren beldurrik gabe.

⁶ Gaizkiaren egiteko elkar berotzen dute,
arte gordeak nola ezar dabilta,
erranez: «Nor ohartuko da?

⁷ Nork ikertuko gure makurkeria?»

Ikertzen du, bai,

jendea bihotzaren zolaraino ikertzen duenak¹²².

⁸ Jainkoak tiratu du gezia

eta bat-batean zaurituak izan dira.

⁹ Beren mihia itzuli zaiote kontra,

eta so daudenek irri egiten diete buru-keinuka.

¹⁰ Jende guziak, beldurrak harturik,

Jainkoaren egintzak ditu iragartzen,

harek egina konprenitzen.

¹¹ Alai dadila zintzoa Jaunaz, geriza bedi haren baitan
eta bihotz zuzenak hartaz daitezela harro izan.

¹²¹ **63,12** *Haren izenagatik*: Jainkoarena edo erregearena izan daiteke.

¹²² **64,7** Ber.a zaila da eta itzulpen ezberdinak eman ohi dira.

65. (64.) SALMOA

Jainko ongi-egileari eskerrak

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa. Kanta.*

² Oi Sionen zauden Jainkoa,
hartze duzu gorespena,
zuretzat dira botuak betetzen,

³ otoitza baituzu entzuten.

Zuregana dator jende oro.

⁴ Gu baino indartsuago dira gure hutsak,
bainan zuk barkatzen gure hobenak.

⁵ Dohatsua zuk hautatu eta gomitatzen duzuna
zeure saindutegian¹²³ bizitzera.

Aseko gira zure etxeko ontasunez,
zure tenpluko dohain sainduez!

⁶ Salbamen-egintza harrigarritz ihardesten daukuzu,
Jainko gure salbatzailea, zu,
munduko bazter guzien,
urruneko itsasoen esperantza.

⁷ Zuk finkatu dituzu mendiak zeure indarraz:
ahal handiz jantzia zira!

⁸ Zuk jabaltzen duzu itsasoen burrunba,
hango uhainen burrunba
eta herrien harramantza.

⁹ Mundu-bazterretako bizilagunak
harri eta zur daude zure mirarien aitzinean.
Sortalde eta sartaldeari zuk diozute pozez oiuhu eginarazten.

¹⁰ Zuk duzu lurra zaintzen,
urez asetzen eta aberasten;
urez gaindika doa zeruko ibaia¹²⁴,
zuk diozu emaiten jendeari ogia,

¹²³ **65,5** zeure saindutegian: H.h., zeure atarietan.

¹²⁴ **65,10** zeruko ibaia: H.h., Jainkoaren ubidea; poeta zeru gaineko urez ari da, hango urtegiatarik ixurtzen baita euria lurgainerat.

SALMOAK

zuk prestatzen lurra:

¹¹ ildoak ureztatu, mokorrak berdindu,
euri-erauntsiz harrotu, hoziak benedikatu.

¹² Zuk duzu urtea ontasunez mukurrutzen,
zure zelaiak¹²⁵ joritasunez jantzen.

¹³ Heze eta gizen daude basamortuko bazkak,
pozez apaindurik mendixkak.

¹⁴ Pentzeak artaldez jantzi dira, ibarrak gariz estali.
Denek kantu eta irrintzi!

66. (65.) SALMOA

Jainko mirarigileari eskerrak

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Kanta. Salmoa.*

Lurtiar guziek, egizue irrintzi Jainkoari,

² kanta haren omenez,
ohore eta goresmen hari.

³ Errozue Jainkoari: «Zein diren zure egintzak izigarri!
Zure indar handiagatik,
etsaiek zaituzte lausengatzen.

⁴ Mundu osoa ahuspez dago zure aitzinean,
kantu egiten dauzu, kantuz zaitu ospatzen».

⁵ Zatozte, ikus Jainkoak eginak,
izigarriak jendeentzat haren egintzak.

⁶ itsasoa idortu zuen, oinez iragan zuten ibaia¹²⁶.
Haren baitan gure bozkarioa!

⁷ Nagusi da betidanik bere ahalaz;
erne ditu begiak herrieri beha:
ez daitezela bihurriak altxa!

⁸ Benedika, herriek, gure Jainkoa,
oihuka goraki haren gorespena,

⁹ bizirik atxiki baigintuen

¹²⁵ **65,12 zelaiak:** *Orga herrestoak* bezala ere itzuli ohi da, Jainkoak bere orgetan lurra zeharkatzean emankor egiten duela konprenituz.

¹²⁶ **66,6** Israel herriak Itsaso Gorria (ik. Jal 14) eta Jordan ibaia (ik. Jos 3) iragan zituenekoa oroitarazten da.

SALMOAK

eta gure oinak ez utzi kordokatzen.

¹⁰ Frogatu gaituzu, oi Jainko,
zilarra bezala garbitu,
¹¹ herstura larrian ezarri gaituzu,
zama pisua bizkarrerat eman,
¹² zapa gaitzaten utzi, zamariak bagina bezala.
Suan eta urean iragan ¹²⁷behar izan dugu.
Bainan, azkenean, hatsartzera utzi gaituzu.

¹³ Zure etxean sartuko naiz erre-opariekin
eta beteko ditut nire botuak,
¹⁴ larrialdian neure ahoz hitzemanak.
¹⁵ Abere gizenak oparitan emanen dauzkizut,
marroak erreko, zezen eta akerrak eskainiko.

¹⁶ Jainkoaren errespetua duzuen horiek, zatorzte eta entzun:
harek nere alde egina kondatuko dauzuet.

¹⁷ Nere ahoak hari dei egin orduko,
prest zagon nere mihian gorazarrea.

¹⁸ Asmo gaixtoak ukan banitu,
Jaunak ez ninduen entzunen.

¹⁹ Bainan Jainkoak entzun nau,
nere otoitz-oihua du aditu.

²⁰ Benedikatua Jainkoa! Ez du nere otoitza baztertu,
ez daut bere maitasuna ukatu.

67. (66.) SALMOA

Jainkoari benedizione-eskaria

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Harizko musika-tresnaz. Salmoa. Kanta.*

² Urrikal gutaz, oi Jainko, benedika gaitzazu,
ongi etorri egiguzu,

¹²⁷ 66,12 Lehen lerroko testua ez da argi, funtsezko erran-nahia, herriaren zapalkuntza baldin bada ere.

SALMOAK

³ ezagut dezan munduak zure nagusigoa¹²⁸,
nazioneek zure salbamena.

⁴ Ene Jainko, goraipa zaitzatela herriek,
goraipa zaitzatela herri guziek!

⁵ Kanta bezate nazioneek pozaren pozez,
herriak justiziaz baitituzu gobernatzeko,
nazioneak munduan zuk gidatzen.

⁶ Goraipa zaitzatela herriek, oi Jainko,
goraipa zaitzatela herri guziek!

⁷ Lurrak bere uzta eman du,
Jainkoak, gure Jainkoak, benedikatuko gaitu.

⁸ Benedika gaitzala Jainkoak,
hari errespetua eman diezola mundu osoak!

68. (67.) SALMOA

Jainko garaileari gorazarrea

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa. Kanta*¹²⁹.

² Jainkoa jeiki eta haren etsaiak barreiatu dira!

Hastio dutenak ihes doatzi haren aitzinetik.

³ Kea desegiten den bezala desegiten dira;

nola urtzen ezkoa suan,

hala galtzen gaixtoak Jainkoaren aitzinean.

⁴ Zintzoak, berriz, pozik dira,

dantzan Jainkoaren aitzinean, bozkarioz gaindika.

⁵ Kanta Jainkoari, jo soinua haren izenari,

presta bidea hodeiak zamalkatzen dituenari.

Jauna du izena, egin poz-oihu hari.

⁶ Umezurtzen aita, alarguntsen defendatzailea,

¹²⁸ **67,3** *zure nagusigoa*: Edo *zure bideak*, erran nahi baita, Jaunaren jokabidea Israelen alde.

¹²⁹ **68,1** *Kanta*: Liburu osoko salmorik konplexuenetakoa dugu hau, itzulpen eta interpretazioezailtasun handiak dituena. Garaipen-gorazarrea da, Jainkoak historian barna Israelen alde egin egintza salbagarriak ospatzen dituena. Ospakizuna prozesione gisara egiten da.

SALMOAK

holakoa da Jainkoa bere bizileku sainduan.

⁷ Baztertueri etxea diote Jainkoak emaiten,
preso zaudenak kanta artean askatzen;
bihurriak bakarrik basamortuan gelditzen.

⁸ Oi Jainko, zeure herriaren gidaria,
basamortuan barna zindoala.

⁹ ikaratu zen lurra,
urtu zerua Jainkoaren aitzinean,
Sinaiko Jainkoaren, Israelen Jainkoaren aitzinean.

¹⁰ Euria nasaiki eman zinuen, oi Jainko,
zuk indarberritu zeure lurralde eta jabetza ahitua.

¹¹ Han gelditu zen zure artaldea;
behartsuak azkartzen dituzu, oi Jainko, ona baitzira.

¹² Jaunak hitz bat erran,
eta mezulariak ugari ateratzen dira:

¹³ «Ihes doatzi, ihes, erregeak eta armadak!»
Lurraldeko larreak harrapakin dira banatuak,

¹⁴ zuek artegian atsedenean zaudeztelarik.
Usoaren hegalkak zilarrez estaltzen dira,
lumak urre gorriz¹³⁰.

¹⁵ Ahaltzuak barreiatu zituelarik erregeak,
elurra ari zuen Mendi-ilunean¹³¹.

¹⁶ Baxango mendia, Jainkoaren mendia,
mendi tontorduna, Baxango mendia,

¹⁷ zergatik zaudezte, tontor horiek, bekaizti
Jainkoak bizitzeko gutiziatu duen mendiaz,
Jaunak betiko bizileku egin duenaz?

¹⁸ Jainkoaren gudu-karroak milaka eta milaka,
ezin kondatuzkoa haren armada:
horien artean aintzatsu dago Jauna saindutegian¹³².

¹³⁰ **68,14** *Usoa*, judu-tradizionearen arabera, Israel da, harrapakinez apaindua.

¹³¹ **68,15** *Mendi-iluna*: Hebrearez *Tzalmon*. Ez dakigu non zen mendia, ez eta aipatu gertakariaren berri ere.

¹³² **68,18** *horien artean... saindutegian*: Testua zaila da. Hau dio h.h.: *Jauna horien artean, Sinai saindutegian*. Menturaz, erran-nahia hau da: lehen Sinai mendian agertu Jainkoaren aintza orai

SALMOAK

¹⁹ Gorenerat¹³³ igan zinen, gatibuak harturik;
zerga ordaindu zauzuten jendeek, bihurriek ere,
zuk, Jainko Jauna, bizilekua ukan zinezan.

²⁰ Benedikatua egunoro Jauna:
bere gain hartu gaitu gure Jainko salbatzaileak.

²¹ Jainko salbatzaile dugu Jainkoa,
Jainko Jaunari esker libratu gira heriotzetik;

²² Jaunak xehatzen baititu etsaien buruak,
hobendunen buru-hezur iletzuak.

²³ Jaunak erran du: «Baxandik ekarriko ditut,
itsas zolatik aterako,

²⁴ etsaiak odoletan leher ditzazun,
zure zakurrek ere ukan dezaten beren partea».

²⁵ Hor ikusi da, ene Jainko, zure sartzea,
saindutegirat ene Jainko eta erregearen sartzea:

²⁶ kantariak aitzinean, musikariak gibelean,
panderoa joz, neskatxak tartean.

²⁷ Benedika zazue Jainkoa batzarrean,
benedika Jauna Israelgo elkartean.

²⁸ Horra hor gidari Benjaminen, gazteenaren leinua,
eta ondotik Judaren buruzagiak,
Zabulon eta Neftaliren buruzagiak¹³⁴.

²⁹ Ager, ene Jainko, zeure indarra,
azkar zazu, ene Jainko, gure alde egin duzuna.

³⁰ Opariak ekartzen dauzkizute erregeek
Jerusalemgo zure tenplurat;

³¹ handik, egiozu mehatxu Egiptori, kanaberetako ihiziari,
hango zezen saldoari,
zilarraren gutiziaz herriak zanpatzen dituzten heieri!
Barreiazkizu herri guduzaleak!

³² Etor bite opari bikainak Egiptotik,
Jainkoaganat Etiopiarrak eskuak beterik.

Jerusalemgo saindutegian dagola. Hunela ere itzuli ohi da: *Jauna Sinaitik saindutegirat etorri da.*

¹³³ **68,19** *Gorenerat*: Segurenik, *Sion mendirat*. Ber.eko bi lehen bertsoak Ef 4,8an aipatzen dira, bainan testu ezberdin batez.

¹³⁴ **68,28** 27-28 ber.etan itzulpena ez da segura.

SALMOAK

³³ Munduko erresumak,
kanta Jainkoari, jo soinua Jaunari.

³⁴ Hara, zeruetan, aspaldiko zeruetan, zaldiz doanak
oihu egin du bere ahotsaz, bere ahots indartsuaz.

³⁵ Eman aintza Jainkoari!
Haren ospea Israelen gainean,
haren indarra hodeietan.

³⁶ Ikaragarria Jainkoa saindutegian: hura da Israelen Jainkoa,
bere herriari indar eta kemen emaiten diona!
Benedikatua Jainkoa!

69. (68.) SALMOA

Jainkozale atsegabetuaren otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Liliak¹³⁵» doinuan. Davidena.*

² Salba nezazu, ene Jainko:
leporaino ditut urak.

³ Zolarik gabeko lohian sartzen ari naiz,
eta oinen finkatzekorik ez.
Ur barnan sartua naiz, eta uholdeak nerama.

⁴ Akitua naiz oihuka, sutan dut zintzurra,
lausoturik begiak, ene Jainkoaren beha.

⁵ Buruko ileak baino gehiago dira
arrazoinik gabe hastio nautenak,
ni baino indartsuago
zuzengabeko nere etsaiak.

Ebatsi ez dutana itzuli behar ote dut?

⁶ Ene Jainko, ezagutzen duzu nere zorokeria,
ez daude gorderik zuretzat nere hutsak.

⁷ Jauna, Jaun guziahalduna,
zure baitan fidantzia duteneri
ez diezotela uste onak ene faltaz huts egin.
Ez nadila ahalgarri izan zure bila dabilzanentzat,
oi Israelen Jainkoa!

¹³⁵ 69,1 *Liliak*: Ik. 45,1 oh.

SALMOAK

⁸ Zuregatik jasan dut laidoa,
zuregatik estali daut ahalgeak aurpegia.

⁹ Arrotz bilakatua naiz neure haurrideentzat,
ezezaguna neure amaren seme-alabentzat.

¹⁰ Zure etxearen maiteminak nau erretzen¹³⁶,
zure kontrako laidoak zaizkit gainerat erortzen.

¹¹ Barur eginez banaiz penatzen,
ez dut laidoa baizik biltzen;

¹² dolu-jantzia badut hartzen,
irri-lelo naute bilakatzen.

¹³ Plazan jarri eta marmaraka ari zaizkit,
mozkorrek koplak ateratzen dauzkidate.

¹⁴ Jauna, zuri otoitzez nago: Jauna, egidazu orai fagore!
Ihardets, ene Jainko, zeure maitasun handiaz,
zeure egiazko salbamenaz.

¹⁵ Atera nezazu lohitik, han geldi ez nadin;
libra nezazu hastio nautenenganik eta ur handietarik!

¹⁶ Ez nezala uholdeak ereman,
ez nezala osinak irentsi,
ez nadila putzuan hetsirik geldi!

¹⁷ Ihardets, Jauna: ongi-egilea baita zure maitasuna,
itzul zaite neri buruz: handia zure urrikalmendua.

¹⁸ Ez gorde aurpegia zeure zerbitzari huni,
ihardets laster, larrialdian naiz.

¹⁹ Hurbil zakizkit, zaint nezazu,
libra etsaien eskutik.

²⁰ Badakizu nola laidostatzen nauten,
nola desohoratzen eta ahalgetzen;
nere etsai guziak aitzinean dituzu.

²¹ Laidoek bihotza urratu dautate, senda ezina naiz¹³⁷.
Ezbeharrean laguntzaren beha nindagon, bainan alferrik;
kotsolatzaileen beha, bainan nehor ez ageri.

¹³⁶ **69,10** Zure... erretzen: H.h., *Zure etxearen maiteminak jan nau*. Uler daiteke, *etsaiek tenpluarengatik duten bekaizgoak* jo duela salmogilea.

¹³⁷ **69,21** senda ezina: Hitz arraro baten zalantzazko itzulpena.

SALMOAK

²² Pozoina ezarri dautate janarian,
egarriarentzat ozpina edatera eman.

²³ Gerta bekiote beren mahaia ihizi-arte,
beren mahaikideeri sare.

²⁴ Heien begiak lauso eta itsu bite,
gerria betiko ahul bekiote!

²⁵ Hutsazu zeure sumina heien gainerat,
jo bitza zure haserre-suak!

²⁶ Basamortu bilaka bedi heien kanpalekua,
nehor gabe geldi bite heien bizilekuak!

²⁷ Zuk jo duzunari zaizkio oldartu,
zuk zaurituaren oinazeak dituzte areagotu.

²⁸ Ordainaraz beren hutsak hutsen ondotik,
ez bezate sekula ikus zure barkamenik!

²⁹ Ezabazkizu biziaren liburutik,
ez sailka zintzoen zerrendan!

³⁰ Ni, berriz, gizagaixo atsegabetu hau,
indarberri nezala, oi Jainko, zure salbamenak.

³¹ Orduan dut Jainkoaren izena kantuz goretsiko,
esker onez handietsiko.

³² Atseginago izanen zaio Jaunari idia baino,
zezen adardun eta azazkalduna baino.

³³ Ikusazue, apalek, eta bozkaria;
Jainkoa bilatzen duzuenek, har kuraia!

³⁴ Jaunak entzuten baititu behartsuak,
ez ditu baztertzen preso diren bereak.

³⁵ Gorets bezate zeru-lur eta itsasoek
eta han bizi diren guziek.

³⁶ Bai, Jainkoak salbatuko du Sion,
berriz eraikiko ditu Judako hiriak.
Heietan biziko dira eta heien jabe izanen.

³⁷ Jainkoaren zerbitzarien ondokoak izanen dira ondoko,
hura maite dutenak han biziko.

70. (69.) SALMOA

Laguntza eske oihu larria

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Davidena. Oroigarritzat*¹³⁸.

² Ene Jainkoa, zatozkit libratzera!
Jauna, zatozkit laster laguntzera!

³ Ahalgez gorriturik egon bite
hil nahi nautenak!
Gibela bite, irringarri,
ene zorigaitza bilatzen dutenak!

⁴ Ahalgeak leher bitza,
trufatzen nautenak!

⁵ Poz eta alai bite
bilatzen zaituztenak!
Erran bezate geldigabe: «Handia da Jainkoa!»
zure salbamera maite dutenek!

⁶ Behartsua naiz eta dohakabea:
zatozkit laster, ene Jainkoa!
Zu zira nere laguntzaile eta askatzailea,
ez luza, Jauna!

71. (70.) SALMOA

Zahartu eta ahulduaren otoitza

¹ Jauna, zu zaitut aterbe:
ez diezadala uste onak sekula huts egin!

² Zuzena baitzira, libra nezazu eta zaint,
itzul beharria neregana, salba nezazun.

³ Izan zakizkit gerizatzeke harroka,
noiz-nahi harat joan naitekeena;
ene salbatzea erabaki duzu,
zu zira nere harkaitz eta gotorleku.

¹³⁸ 70,1 *Oroigarritzat*: Ik. 38,1 oh. Salmo hau 40,14-18aren kasik h.h.ko errepikapena da.

SALMOAK

⁴ Aska nezazu, ene Jainko, gaixtoaren eskutik,
hiltzaile eta gogorkeriazaleen ukabiletik.

⁵ Jainko Jauna, zu zaitut esperantza,
zu gaztedanik nere segurantza.

⁶ Zu izan zaitut berme amaren sabeladanik,
zuk atera nauzu¹³⁹ amaren erraietarik.
Zuri geldigabe nere gorespena!

⁷ Askorentzat nintzen mirari bat bezala
zu zintutan neure aterbe segura.

⁸ Zure gorespena baizik ez nuen ahoan,
zure ospea egun osoan.

⁹ Ez nezazula arbuia zahartu naizen huntan,
ez eskutik utz indarrak ahuldu zaizkitanean.

¹⁰ Hor ditut etsaiak eni beha,
ene barrandan daudenak hitzartuak dira.

¹¹ Hau diote: «Jainkoak bazterrerat utzirik dago:
lasterka zazue, harrapa, ez du nehork libratuko».

¹² Oi Jainko, ez joan urrunera,
ene Jainko, zato laster laguntzera!

¹³ Gal bite ahalgez nere salatzaileak,
ene biziaren kontra ari direnak!
Estal bitza laidoak eta desohoreak
nere zorigaitzaren bila dabiltzanak!

¹⁴ Ni, berriz, esperantzan egonen naiz,
gero eta gehiago goretsiko zaitut.

¹⁵ Nere ezpaineak egun osoan emanen dute
zure salbamen-asmu eta egintzen berri,
nik konda ahala baino gehiago izanik ere.

¹⁶ Jainko Jauna, zure egintza bikainak ditut aldarrikatuko
eta zu bakarrik zirela leiala iragarriko.

¹⁷ Ene Jainko, gaztedanik zuk nauzu argitu,
zure egintza miragarriak gaur arte ditut oihukatu.

¹⁸ Orai, zahar eta ile-zuri naizenean,
ez nezazula bazterrerat utz, ene Jainko,

¹³⁹ **71,6** *atera nauzu*: Itzulpena ez da segura, hebrearrak dakarren hitza ezezaguna baita.

SALMOAK

zure indarra iragar diezotan gizaldi huni,
zure kemena gerokoeri.

¹⁹ Zure salbamen-asmoa, oi Jainko, zerurainokoa,
gauza handiak egin baitituzu.

Nor zu bezalakorik, oi Jainko?

²⁰ Larrialdi eta zorigaitz asko pasarazi dautazu.

Bainan berriz bizi-raziko nauzu,
Herio Leizetik altxatuko.

²¹ Lehen baino ohore handiagoa emanen dautazu,
berriz kontsolatuko nauzu.

²² Orduan, harpa-soinuz goretsiko zaitut, ene Jainko,
leiala zirelako;

oi Israelgo Saindu, zitaraz dauzut kantatuko.

²³ Bai, zuri kantatuko,

poz-oihuz ospatuko zaitu nere ahoak,
zuk salbatu duzun nere izaite osoak.

²⁴ Nere mihiak zure salbamen-asmoa
iragarriko du egun osoan,
ahalge eta laido
nere zorigaitzaren bila zabilzaneri.

72. (71.) SALMOA

Errege berriaren alde otoitza

¹ *Salomonena.*

Ene Jainko, zeure zuzentasuna emozu erregeari,
zeure justizia erregearen semeari.

² Goberna beza zure herria justiziaz,
zure behartsuak zuzenbidez.

³ Ekar bezate mendiek herriarentzat bakea
eta mendixkek justizia!

⁴ Egin diezotela justizia herriko dohakabeeri,
salba ditzala pobreak, xeha zapaltzaileak!

SALMOAK

⁵ Bizi dadila¹⁴⁰ eguzkiak eta ilargiak dirauteno,
munduaren azkena artino!

⁶ Jauts bedi euria belardirat bezala,
lurra asetzen duen erauntsia bezala.

⁷ Haren egunetan, lora bedi justizia,
nasai bakea eta ongizaitea, itzali arte ilargia!

⁸ Izan bedi nagusi itsasotik itsasorat,
lurraren bazter batetik besterat¹⁴¹.

⁹ Ukurtuko zaizkio itsas herriak¹⁴²,
errautsa milikatuko dute haren etsaiek!

¹⁰ Ekarriko diozkate emaitzak
Tarsiseko eta herri urrunetako erregeek,
ordainduko zergak Saba eta Sebako¹⁴³ erregeek.

¹¹ Aitzinean ahuspekatuko zaizkio errege guziak,
bere peko ukanen ditu nazione guziak!

¹² Harek libratuko du dei egiten dion behartsua,
aldekorik ez duen dohakabea.

¹³ Urrikalduko zaiote gizagaixo eta pobreeri,
bizia salbatuko behartsueri.

¹⁴ Harek gerizatuko ditu abrekeria eta indarkeriatik,
heien biziak balio handia baitu harentzat!

¹⁵ Bizi bedi! Eman diezotela Sabako urrea,
geldigabe otoitz egin bezate haren alde,
benedika bezate egunoro!

¹⁶ Izan bedi ogi-landa nasaiki lurraldean,
mendi-gainetan firfiran;
eman beza uzta Libanok bezala,
ugari, nola zelaiko belarra!

¹⁴⁰ **72,5** *Bizi dadila*: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearrezkoak *Begirune izan diezotela* dio. Jatorrizkoak ez du argitzen ondoko ber.ak Jainkoari ala erregeari dagozkion. Salmoak Jainkoaren tituluak aplikatzen diozka erregeari, eta horietaz jantzi du tradizioeak Salomon erregearen irudia.

¹⁴¹ **72,8** *lurraren bazter batetik besterat*: H.h., *ibaitik lurraren bazterreraino*. *Ibaia* Eufrates da.

¹⁴² **72,9** *itsas herriak*: Siriar itzulpenaren arabera; hebrearrezkoak *basamortuko tribuak, beduinoak*, dio.

¹⁴³ **72,10** *Tarsis*: Mendebaldeko bazterra adiarazten du, menturaz Espainiako kostaldea; *Saba* Arabiako hegoaldea da, eta *Seba* Sudango iparraldea.

SALMOAK

¹⁷ Iraun beza haren izenak betiko, eguzkiak dirauno!
Hartaz elkar benedika bezate lurreko jendeek,
zoriontsu aitor bezate nazione guziek!

¹⁸ Benedikatua Jainko Jauna, Israelen Jainkoa,
mirarigile bakarra!

¹⁹ Benedikatua betiko haren izen ospetsua!
Haren aintzak bete beza lur osoa! Amen. Amen¹⁴⁴

²⁰ *Hemen bururatzen dira Jeseren seme Daviden otoitzak*¹⁴⁵.

73. (72.) SALMOA

Gaixtoaren eta zintzoaren azken zoria

¹ *Asafen*¹⁴⁶ salmoa.

Bai, ona dela Jainkoa Israelentzat,
bihotza garbi dutenentzat!

² Halere, doietarik ez naiz behaztopatu,
erortzer naiz.

³ Gaixtoen bakea ikusirik,
zentzugabe horien bekaizti nintzan.

⁴ Ez dute kezkatzekorik,
osasunean eta asean daude.

⁵ Ez dute giza nekerik,
ez eta besteez bezala oinaze jasaiterik.

⁶ Horrengatik dute harrokeria lepoko,
indakeria soineko.

⁷ Gantzaren erdian begia dirdiran,
barneko gutizia dute agerian.

⁸ Trufaka ari dira eta gaixtakeria erranka,
goratik beha, nola larrutuko duten jendea.

⁹ Zeruraino dute ahoa idekitzen,
eta mihiaz lurra xahutzen.

¹⁴⁴ **72,19** *Amen. Amen:* 18-19ko benedizioneak Salmo-liburuaren zati baten azkena adiarazten du (ik. 41,14 oh.).

¹⁴⁵ **72,20** Ohar hunek Daviden izenpeko bilduma bururatzen dela adiarazten du.

¹⁴⁶ **73,1** *Asaf:* Ik. 50,1 oh.

SALMOAK

¹⁰ Horrengatik, Jainkoaren herria heienganat doa,
heien hitz guziak irentsiz¹⁴⁷ ura bezala.

¹¹ Hau diote: «Nola jakin dezake Jainkoak?
Ba ote du ohartzerik Goi-goikoak?»

¹² Horra hor gaixtoak:
beti lasai, metatzen ontasunak.

¹³ Beraz, alferrik atxiki dut bihotza garbi
eta hobengabe naizela agertzeko eskuak ikuzi.

¹⁴ Egunoro oinazeak jasan behar ditut
eta goizoro zigorra hor dut.

¹⁵ Bainan heiek bezala mintzatzea erabaki baneza,
zure semeen arraza nezake arnega.

¹⁶ Gogoetak egin ditut konprenitzeko,
hoin neke zitzaitana ikusteko,

¹⁷ Jainkoaren saindutegian sartu naizen arte;
orduan konprenitu dut zer izanen den heien azkena.

¹⁸ Hara, lerragunean ezarri dituzu,
honda daitezen.

¹⁹ Bat-batean, zer hondamena!
Heienak egin du, ikaragarriko azkena.

²⁰ Iratzartzean ametsa bezala, Jauna,
haizatuko duzu heien irudia bera.

²¹ Bihozmindurik nindagonean,
urraturik neure barnean,

²² zoroa bezala nintzen ezjakinean,
abere baten pareko zure aitzinean.

²³ Bainan zurekin nago beti:
eskutik hartu nauzu;

²⁴ zeure aholkuz nauzu gidatuko
eta, gero, zeure aintzarat hartuko.

²⁵ Zutaz besterik nor dut zeruan?
Zutaz beste pozik ez dut lurrean!

²⁶ Gorputz eta izpirituz indargabetua,
zu zaitut ene bihotzaren berme, oi ene Jainko,

¹⁴⁷ 73,10 Ber.eko testua iluna da eta itzulpena ez segura.

zu nere ontasun betiko.

²⁷ Galduak dira zureganik urrun doatzinak, suntsituko dituzu desleial zaizkizunak¹⁴⁸.

²⁸ Jainko Jauna nere aterbea, nere zoriona Jainkoaren ondoan egoitea, eta haren egintza guzien ospatzea.

74. (73.) SALMOA

Tenpluko hondakinetaz deitorea

¹ *Asafen poema.*

Oi Jainko, zergatik baztertu gaituzu betiko?
Zergatik zaude haserre-sutan zeure saldoko ardien kontra?

² Oroit zaite lehen zeuretzat hartu zinuen artaldeaz, zeure artzain-makilaz askatu zinuen ondareaz, zeure bizileku egin zinuen Sion mendiaz.

³ Atera zeure herria azkenik gabeko hondakin hauetarik¹⁴⁹: etsaiak dena errautsi du saindutegian.

⁴ Etsaiak zure elkar-tearen erdian orro egin du, beren banderak ezaugarritzat ezarri.

⁵ Oihan itsuan aizkoraz ari den egurgina iduri zuten:

⁶ aizkoraz eta mailuz aurtiki dituzte zur landu guziak¹⁵⁰.

⁷ Zure saindutegiari su eman diote, zure egoitza saildua bota eta profanatu.

⁸ Heien helburua: denen suntsitzea, herrialdeko batzar-leku saildu guzien erretzea.

⁹ Ez dugu gehiago ikusten gurekin zirelako seinalerik,

¹⁴⁸ **73,27** *desleial zaizkizunak*: Jatorrizkoak *prostituzionean ari* dio, irudi hunek Jainkoarekilako desleialkeria, idolatria bereziki, adiarazten duelarik (ik. Os 1,2 oh.).

¹⁴⁹ **74,3** *Atera zeure herria... hauetarik*: Ohiko itzulpenak hau dio: *Zuzendu zeure urratsak... hauetarik*.

¹⁵⁰ **74,6** 5-6 ber.ak ez dira batere argiak jatorrizkoan.

SALMOAK

ez da gehiago profetarik, eta nehork ez jakin noiz arte.

¹⁰ Noiz arte ari behar du, oi Jainko, etsaiak laidoka?

Betiko mesprextatu behar ote du zure izena?

¹¹ Zergatik duzu eskua geldirik atxikitzen,
zergatik besoak kurutzatzen?

¹² Zu zira, oi Jainko, zu betidanik nere errege.

Zu izan zinen herrialdean garaile:

¹³ zuk arraildu zinuen zeure indarrak itsasoa,
zuk hautsi itsas herensugeen buruak,

¹⁴ zuk xehatu ziniozkan buruak itsas munstroari¹⁵¹
eta jatera eman itsas herrieri.

¹⁵ Zuk sorrarazi dituzu iturriak eta errekek,
zuk agortu agorrezinak diren ibaiak.

¹⁶ Zureak dira gau-egunak,
zuk finkatuak eguzki-ilargiak;

¹⁷ zuk ezarri dituzu munduaren mugak,
zuk moldatu uda-neguak.

¹⁸ Oroit zaite, Jauna: etsaiak laido egiten dauzu,
herri zoroak zure izenari mesprextu.

¹⁹ Ez eman basihizieri zeure usapala¹⁵²,
ez ahantz betiko zeure dohakabeen bizia!

²⁰ Beha zeure elkargoari,
gogorkeriaz beteak diren herrialdeko bazterri.

²¹ Ez dadila zapaldua desohoraturik atera,
dohakabe eta behartsuek gorets bezate zure izena!

²² Jeiki zaite, Jainko, defenda zeure auzia!

Har gogoan zoro horien geldigabeko laidoa.

²³ Ez ahantz zeure etsaien oihuak,
zure kontra altxatuen gero eta kalapita handiagoak.

75. (74.) SALMOA

Jainkoak jujatuko mundua

¹⁵¹ 74,14 *itsas munstroa*: Jatorrizkoak *Leviatan* dio; ik. Jb 3,8 oh.

¹⁵² 74,19 *usapala*: Jainkoaren herriaren irudia.

SALMOAK

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Ez suntsi» doinuan. Asafen salmoa. Kanta.*

² Eskerrak zuri, Jainkoa, eskerrak zuri,
hain hurbil zaitugun horri!
Zure egintza miragarriak iragartzen ditugu.

³ «Nihaurek erabakiko dutalarik, dio Jainkoak,
zuzenbidez jujatuko dut mundua.

⁴ Lurra bizilagun guziekin ikara daiteke,
bainan nik ditut finkatu haren oinarriak».

⁵ Harroeri diotet: «Aski harrokeria hola!»
Eta gaixtoeri: «Ez altxa burua!

⁶ Ez altxa burua hola,
ez mintza ozarki».

⁷ Ez eguzkialdetik, ez mendebaldetik,
ez eta basamortutik, ez dator goraldia:

⁸ Jainkoak bakarrik du manatzen;
nahi duena du apaltzen, nahi duena goratzen.

⁹ Jaunak eskuan du kopa,
arno samin haguntsuz¹⁵³ betea;
hartarik ixuriko diote,
eta lurreko gaixto guziek edan beharko dute,
ondarreraino hustu beharko.

¹⁰ Ni, ordea, poztuko naiz betiko,
Jakoben Jainkoaren omenez kantari.

¹¹ «Gaixtoen indarra hautsiko dut
eta zintzoaren indarra azkartuko».

76. (75.) SALMOA

Jainko ikaragarriari kanta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Harizko musika-tresnaz. Asafen salmoa.
Kanta.*

¹⁵³ **75,9** kopa, arno biziz: Jaunaren haserre-zigorren irudi dira; ik. Jr 25,15 oh.

SALMOAK

² Judan agertu da Jainkoa,
handia, Israelen, haren izena.

³ Jerusalem¹⁵⁴ du egoitza,
Sionen bizilekua.

⁴ Han hautsi ditu gudu-armak:
arkuaren geziak, erredol eta ezpatak.

⁵ Distiratsua zu, handia eta ederra,
aspaldiko mendiak¹⁵⁵ baino gehiago.

⁶ Larrutuak izan dira gudari beldurgabeak,
azken loak hartu ditu ausartenak,
ez dakite non dituzten eskuak.

⁷ Zeure mehatxuaz, Jakobena Jainkoa,
lekuaren gainean utzi dituzu karro eta zaldiak.

⁸ Izigarria zira: norik iraun xutik zure aitzinean,
zure haserrealdian?

⁹ Zerutik adiarazten duzu zeure erabakia;
lurra izitzen da eta jabaltzen,

¹⁰ zu, oi Jainko, jujamenduaren emaitera jeikitzean,
munduko dohakabeak salbatzen dituzunean.

¹¹ Den amorratuena ere goretsi beharko zaitu,
zure zigorretik bizirik geldituak inguruan bilduko zaizkizu.

¹² Egin botuak Jaunari, zuen Jainkoari, eta bete;
haren inguruan bilduek,

ekar emaitzak Jainko beldurgarriari,

¹³ hats-bahiturik uzten baitutu handikiak,
ikarak lasturik munduko erregeak.

77. (76.) SALMOA

Lehen goitizen oroitzuz, oraiko zorigaitzaz nigar-kanta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Jedutun¹⁵⁶» en doinuaz. Asafen salmoa.*

¹⁵⁴ **76,3** *Jerusalem*: Jatorrizkoak *Xalemen* dio; *Xalem* Jerusalem lehenagoko izena da eta *Bake-hiri* erran nahi du.

¹⁵⁵ **76,5** *aspaldiko mendiak*: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoak *harrapakin-mendiak* dio.

SALMOAK

² Goraki dei eta oihu egiten diot Jainkoari,
goraki oihu, entzun nezan.

³ Nere larrialdian, Jauna dut bilatzen,
gauaz aspertu gabe eskuak luzatzen,
bozkario guzieren uko egiten.

⁴ Jainkoaz oroitu eta intzirika,
hari pentsatzean, galtzen dut kuraia.

⁵ Ez nauzu begien hestera uzten, Jauna,
nahasirik nago, ezin mintza.

⁶ Aspaldiko egunak ditut gogoratzen,
lehengo urteez oroitzen;

⁷ gauaz kantu-leloa datorkit gogora,
hausnartzen dut, neure baitan galdeka:

⁸ «Jaunak betikotz ote gaitu baztertuko?
Ez ote du sekula berriz gutarik nahiko?

⁹ Agortu ote da betiko haren maitasuna?
Ixildu ote betiko haren hitza?

¹⁰ Jainkoari ahantzi ote zaio urrikaltzea?
Haserrez hetsi ote du bihotza?»

¹¹ Eta neure baitan diot: «Hau da nere gaitza:
Goi-goikoaren jokabidea aldatu dela».

¹² Oroitzen naiz, Jauna, zure egintza handiez,
oroitzen, bai, zure aspaldiko mirariez.

¹³ Zuk egin guzia gogoan dut erabiltzen,
zure egintza handiak hausnartzen.

¹⁴ Saindua da, oi Jainko, zure jokamoldea!
Zoin Jainko gurea bezain Jainko?

¹⁵ Zu zira mirariak egin dituen Jainko bakarra,
zuk erakutsi diozute herrieri zeure indarra.

¹⁶ Zeure besoaz askatu zinuen herria,
Jakoben eta Josepen ondoregoa.

¹⁷ Itsasoa, zu ikusi orduko, oi Jainko,
itsasoa, zu ikusi orduko, zen dardaratu,
itsas leizea ikaratu.

SALMOAK

¹⁸ Hodeiek ixuri zituzten erauntsiak,
lanoek ortzantzak, alde guzietarat¹⁵⁷ zure geziak.

¹⁹ Zure ortzantzaren burrunban,
ximistek mundua argitu zuten,
lurra ikaratu eta dardaratu zen.

²⁰ Zeure bidea egin zinuen itsasoan,
zeure bidexka ur handien zolan,
bainan zure herrestorik nehork ez aurkitu.

²¹ Zeure herria zinuen artaldea bezala gidatu,
Mois eta Aaronen esku.

78. (77.) SALMOA

Historiaren ikasbideak

¹ *Asafen poema.*

Entzun, ene herri, nere irakaspena,
luza beharria nere erranetarar.

² Alegia baten bidez naiz mintzatuko,
lehengo garaien ikasbideen argitzeko.

³ Guk entzun eta jakin duguna,
arbasoek kondatu daukutena,

⁴ Jaunaren egintza goresgarriak,
haren ahala eta egin dituen mirariak
ez ditugu geure haurreri gordeko,
baizik datorren gizaldiari kondatuko¹⁵⁸

⁵ Eginbide bat ezarri zion Jakobena herriari,
legea eman Israeli:
arbasoek gauza hauek

irakats zituzten beren semeeri,
⁶ ondoko gizaldiek jakin zezaten;
eta hauek, beren ondokoeri konda ziezoten.

⁷ Hola, Jainkoaren baitan ezarriko zuten beren fidantzia;
haren egintza handiak ez zituzten ahantziko,

¹⁵⁷ **77,18** *Geziak*: Jainkoaren geziak ximistak dira.

¹⁵⁸ **78,4** Hola, gizaldi bakoitza arbasoeri eta herriaren historiako funtsezko gertakizuneri lotzen da.

SALMOAK

haren manamenduak bai beteko.

⁸ Ez ziren izanen beren arbasoen iduriko:
jende hezgaitz eta bihurria,
gizaldi bihotz-aldakorra, Jainkoaz fida ez zena.

⁹ Efraimen leinuko¹⁵⁹ arkulariak, ongi armatuak izanagatik,
bizkarrez itzuli ziren gudu-egunean.

¹⁰ Jainkoaren elkargoa ez zuten begiratu,
ez ziren haren legeari jarraiki;

¹¹ ahantzi zituzten haren egintza handiak,
harek erakutsi mirariak.

¹² Mirariak egin zituen heien arbasoen aitzinean
Egipton, Tanisko¹⁶⁰ lurraldean.

¹³ Itsasoa arraildu zuen handik zitezen iragan,
urak harresi zituztela.

¹⁴ Hodeiaren bidez gidatu zituen egunaz,
su-argiz gauaz.

¹⁵ Basamortuan harrokak arraildu zituen
lurpeko uretarik edan zezaten.

¹⁶ Harkaitzetik ur-lasterrak atera zituen,
eta ura ibaika ixurarazi.

¹⁷ Bainan heiek Jainkoaren kontra berriz egin zuten bekatu,
basamortuan Goi-goikoaren kontra ziren altxatu.

¹⁸ Jainkoa frogatu nahi izan zuten,
gogoak emaiten zioten jatekoa eskatuz.

¹⁹ Jainkoaren kontra hitz egin zuten:
«Jainkoak apairu bat emaiten ahal ote dauku basamortuan?»

²⁰ Egia, harroka jo eta ura atera da burrustaka;
bainan ogia ere eman ote dezake,
bai eta haragia bere herriari?»

²¹ Hori entzutearekin, Jauna biziki haserretu zen:
sua piztu zitzaion Jakobena kontra,
sumina Israelen kontra;

¹⁵⁹ **78,9** *Efraimen leinua*: Israel edo Ipar-erresumako leinurik garrantzitsuena zelarrik, *Efraim* izena erresuma osoa adiarazteko erabiltzen da maiz.

¹⁶⁰ **78,12** *Tanis*: Niloko deltaren eguzkialdeko hiria.

SALMOAK

²² ez baitzuten sinesten beren Jainkoa baitan,
ez ziren fidatzen haren laguntzan.

²³ Orduan, hodeieri manatu zuen
eta zeruko ateak ideki zituen;

²⁴ mana ixuri zioten janari,
zeruko ogia eman:

²⁵ aingeruen¹⁶¹ ogia jan zuten jendeek,
Jainkoak janariz ase zituen.

²⁶ Gero, eguzki-haizea urrundu zuen zerutik
eta bere indarraz hegoa igorri.

²⁷ Haragia ixuri zioten errautsa bezainbat,
hegaztiak itsas hondarra bezainbat,

²⁸ kanpalekurat erorarazi zituen,
oihal-etxolen ingururat.

²⁹ Asetzeraino jan zuten;
gutiziatua eman zioten Jainkoak.

³⁰ Bainan beren gutizia ase orduko,
jatekoa oraino ahoan zutela,

³¹ Jainkoaren haserrea oldartu zitzaioten,
heietarik indartsuenak hil zituen,
Israelgo hoberenak lurrerat aurtiki.

³² Halere, bekatu egin zuten aitzina;
ez zuten sinetsi Jainkoaren mirarietan.

³³ Orduan, ufa batez itzali zituen heien egunak,
bat-batean heien urteak.

³⁴ Jainkoak zituenean hiltzen,
orduan ziren harenganat itzultzen,
damutu eta haren bila zabiltzan,

³⁵ oroitzuz Jainkoa zutela beren harroka,
goi-goiko Jainkoa zutela beren askatzailea.

³⁶ Bainan ahoan zurikeria baizik ez zuten,
mihiaz enganatzen zuten;

³⁷ ez ziren bihotzez hari atxikiak,
ez zuten haren elkargoan sinesten.

³⁸ Jainkoak, halere, urrikaldurik,
hobena barkatzen zioten, eta ez hondatzen.

¹⁶¹ 78,25 *aingeruen*: H.h., *ahaltsuen* (ik. 103,20).

SALMOAK

Maiz haserreari nagusitu
eta bere sumina ixilarazten zuen,
³⁹ oroitzen baitzen jende huts zirela,
berriz etortzerik ez duen haizea bezala.

⁴⁰ Zenbat aldiz altxatu zitzaizkion kontra basamortuan,
zenbat aldiz atsegabetu zuten eremuan!

⁴¹ Behin eta berriz Jainkoa zuten frogatzen,
Israelen Saindua zirikatzen.

⁴² Ez ziren oroitzen haren eskuak
etsaiarenganik askatu zituela:

⁴³ nolako mirariak egin zituen Egipton,
nolako egintza harrigarriak Tanisko lurraldean;

⁴⁴ hango ibai eta errekek odol bilakatu zituen,
egiptoarrek handik edan ez zezaten;

⁴⁵ espereak igorri zituen heien jatera,
igelak denen hondatzera;

⁴⁶ otteeri eman ziozkaten heien uztak,
larrapoteeri lanaren fruituak;

⁴⁷ heien mahastiak suntsitu zituen bazizkorraz,
pikondoak izotzaz;

⁴⁸ heien abereak jo zituen harriaz,
artaldeak ihortziriaz;

⁴⁹ gainerat hustu zioten bere haserre-sua,
bere sumina, amorru eta suntsipena:
zorigaitzeko aingeru-taldea.

⁵⁰ Bere haserreari bidea ideki zion,
ez zituen heriotzetik begiratu,
heien bizia izurriaren menean utzi zuen.

⁵¹ Egiptoko lehen-sume guziak jo zituen,
egiptoarren¹⁶² gizontasunaren lehen fruituak.

⁵² Orduan, artzainak ardiak bezala atera zuen bere herria,
artaldea bezala ereman basamortuan barna.

⁵³ Segurtasunean gidatu zituen, izitu gabe;
heien etsaiak, berriz, itsasoak estali zituen.

⁵⁴ Bere lurralde saindurat ereman zituen,
berak eskuratu mendiraino.

¹⁶² **78,51** *egiptoarren*: H.h., *Kamen etxoletan* (ik. Has 10,6).

SALMOAK

⁵⁵ Beste herriak haizatu zituen heien aitzinetik,
eta lurraldea banatu zioten ondareztat,
han bizi zitezen Israelgo leinuak.

⁵⁶ Baina heiek, bihurriak, goi-goiko Jainkoa frogatan ezarri zuten,
haren manuak ez zituzten begiratu.

⁵⁷ Bazterrerat utzi zuten eta trahitu, arbasoek bezala,
arku tzarrak bezala huts egin.

⁵⁸ Mendixketako sasi-kultuekin sumindu zuten,
beren sasi-jainkoekin bekaizti ezarri.

⁵⁹ Hargatik zen Jainkoa haserretu
eta Israel aldebat arbuiatu;

⁶⁰ utzi zuen Xiloko egoitza¹⁶³,
jendeen artean bizitzeko eraiki zuen etxola.

⁶¹ Etsaien esku utzi zuen kutxa saildua¹⁶⁴,
Israelek bere indar eta ospe zuena.

⁶² Ezpataren menean utzi zuen bere herria,
bere ondareztat hautatua zuenarekin haserre.

⁶³ Suak irentsi zituen mutiko gazteak
neskatxentzat ez zen eztei-kantarik.

⁶⁴ Apezak ezpataz erori ziren,
eta alarguntsek ez zuten deitorerik egin.

⁶⁵ Halako batean, iratzartu zen Jauna lotarik bezala,
arnoak bizkortu gudaria bezala.

⁶⁶ Gibeletik jo zituen etsaiak,
ahalgez estali betiko.

⁶⁷ Josepen familia baztertu zuen,
Efraimen leinua alde batera utzi;

⁶⁸ Judaren leinua hautatu zuen,
Sion mendia, bere maitea.

⁶⁹ Zeru gainaren iduriko eraiki zuen bere saildutegia
eta lurra bezain sendo oinarritu betiko.

⁷⁰ David bere zerbitzaria zuen hautatu,

¹⁶³ **78,60** *Xiloko egoitza*: Israeldarren lehengo saildutegia; han egon zen kutxa saildua (ik. 1 Sm 1,3; 4,3).

¹⁶⁴ **78,61** *kutxa saildua*: H.h., *heien indarra*, erran nahi baita, Jainkoaren presentzia indartsua adiarazten zuen kutxa (ik. 1 Sm 4,19-22).

artegitik ateratu;

⁷¹ ardien gibeletik hartu eta bere herri Jakoben,
bere ondare Israelen artzain egin zuen.

⁷² Eta harek bihotz zintzoz zituen zaindu,
esku trebez gidatu.

79. (78.) SALMOA

Jainkoaren herria suntsitua. Nigar-kanta eta dei-oihua

¹ *Asafen salmoa.*

Oi Jainko, nazioneak zure ondarean dira sartu,
zure tenplu saindua dute lohitu
eta Jerusalem hondakin-meta bilakatu.

² Zure zerbitzarien gorputzak
zeruko hegaztieri eman diozkate janari,
zure fededunen haragia basihizieri.

³ Heien odola burrustaka ixuri dute Jerusalem inguruan,
eta ehorzteko nehor ez¹⁶⁵.

⁴ Auzoko herrien laido-gai bilakatu gira,
irringarri, ingurukoen trufa.

⁵ Noiz arte, Jauna, azkenik ez duen haserre hau?
Noiz arte zure maitasun mindua,
sua bezala, gure kontra pizturik?

⁶ Hutsazu haserrea ezagutzen ez zaituzten nazioeen gainerat,
dei egiten ez dauzuten erresumen gainerat,

⁷ Jakoben herria irentsi baitute,
haren lurraldea hondatu.

⁸ Ez eman gure gain arbasoen hutsak!
Laster etor bekigu zure urrikalmendua,
azkenetan baigira!

⁹ Lagunt gaitzazu, gure Jainko salbatzaile,
zeure izenaren ospeagatik,
libra gaitzazu eta barka gure bekatuak
zure izenaren ohoreagatik.

¹⁶⁵ 79,3 ehorzteko nehor ez: Madarizione izigarritzat jotzen zen ehortzi gabe gelditzea.

SALMOAK

¹⁰ Zertako erran behar dute nazioeek:

«Non dute Jainkoa?»

Nazioeek ikus dezatela, gure begien aitzinean,
zeure zerbitzarien odol ixuriaren mendekua.

¹¹ Hel daitezela zureganaino presoan intziriak,
libra zeure beso ahaltuaz heriotzera kondenatuak.

¹² Ordaint, Jauna, zazpi aldiz auzoko herriari
heiek egin dauzuten laidoa.

¹³ Eta guk, zure herriak, zuk zaindu artaldeak,
emanen daukizugu beti eskerrak,
kantatuko mendez mende zure goresmenak.

80. (79.) SALMOA

Herri hondatuaren otoitza

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Liliak» doinuan. Aitorpena. Asafen salmoa.*

² Israelen artzain, entzun zazu!

Zeure herria artaldea bezala deramazu,
izaki hegaldunen¹⁶⁶ arteko tronuan zaude;
distiraz ager zakizkiote

³ Efraim, Benjamin eta Manases leinueri!
Suspert zeure ahala eta zatozkigu salbatera!

⁴ *Oi Jainko, altxa gaitzazu,
ongi etorri egiguzu, salba gaitzen!*

⁵ Jauna, Jainko guziahalduna,
noiz arte egon behar duzu haserre,
herria otoizka ari zaizunean?

⁶ Nigarra eman daukuzu janari,
malko anitz edari.

¹⁶⁶ **80,2** zeure herria: H.h., *Josep*, erran nahi baita, Efraim eta Manasesen (3. ber.) aita. Bi leinu hauek --batzutan *Benjamin* ere eransten zaiote-- Ipar-erresumako leinu nagusiak dira. // izaki hegaldun: Hebrearrez *kerubim* deituak; elkargo-kutxaren gainean zauden (ik. Jal 25,18-21); ik. Ez 1,5 oh.

SALMOAK

⁷ Auzokoen elepide egin gaituzu,
etsaiak trufaka ari zaizkigu.

⁸ *Oi Jainko guziahalduna, altxa gaitzazu,
ongi etorri egiguzu, eta salba gaitezen!*

⁹ Egiptotik mahatsondo¹⁶⁷ bat atera zinuen
eta herri batzu haizaturik, hura landatu.

¹⁰ Haren aitzinean lurraldea garbitu zinuen,
erroak egin zituen eta lurraldea bete.

¹¹ Bere itzalaz estali zituen mendiak,
bere aihenez zedroetan gorenak.

¹² Itsasoraino luzatu zituen adarrak,
Eufrates ibairaino muskilak.

¹³ Zertako zilatu diozu inguruko hesia?
Bidekariak fruitua kentzen diote,

¹⁴ basurdeek xehatzen, basihiziek jaten.

¹⁵ Jainko guziahalduna, itzul, otoi!
Begira zerutik eta ikus!

Mahasti hau zeure gain hartzazu,

¹⁶ zeure eskuz landatu duzuna¹⁶⁸ begira zazu.

¹⁷ Gal ditzala zure aurpegiaren mehatxuak
mahastia moztu eta su eman diotenak.

¹⁸ Zure eskuak geriza dezala zuk hautatu erregea¹⁶⁹,
zeure indarraz jantzi duzun gizasemea.

¹⁹ Ez gira zureganik berriz urrunduko;
bizia emanen daukuzu eta guk zuri dei egingen.

²⁰ *Oi Jauna, Jainko guziahalduna, altxa gaitzazu,
ongi etorri egiguzu, salba gaitezen!*

¹⁶⁷ **80,9** *mahatsondo*: Mahastia herriaren adiarazteko ohiko irudia da (ik. Is 5,1-7).

¹⁶⁸ **80,16** Jatorrizkoak beste lerro bat eransten du: *Zeure indarraz jantzi duzun semea*; 18. ber.eko bigarren lerroa aitzinatzen du.

¹⁶⁹ **80,18** *zuk hautatu erregea*: H.h., *zure eskuineko gizona*.

81. (80.) SALMOA**Herriari deia Etxola Bestaren ospakizunean**

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Dolareak» doinuan¹⁷⁰. Asafen salmoa.*

² Egizue poz-oihu Jainkoari, gure indarrari,
egizue irrintzi Jakoben Jainkoari!

³ Jo soinua, jo danbolina,
eta harparekin zitara gozoa.

⁴ Jo turuta, ilargi berrian,
ilargi beteko gure besta-egunean¹⁷¹.

⁵ Hori da Israelen legea,
Jakoben Jainkoak erabakia,

⁶ Josepen familiari ezarri araua
Egiptoaren kontra zenean atera.

Mintzo ezezaguna entzuten dut¹⁷²:

⁷ «Zama kendu nauzun bizkarretik,
zure besoak askatu lan akigarrietarik.

⁸ Zapaldurik zinaudela, oihu egin zinautan,
eta libratu zintutan.

Ekaitzean gorderik ihardetsi nauzun,
Meribako iturrian frogatu zintutan.

⁹ «Entzun, ene herri, otoi!

Behingoz entzunen ote nauzu, Israel:

¹⁰ Ez ukan zeure baitan beste Jainkorik,
ez dezazula adora Jainko arrotzik.

¹¹ Ni naiz Jauna, zure Jainkoa, Egiptotik atera zintuena.
Zabal zazu ahoa, eta beteko dut.

¹² «Bainan nere herriak ez zuen nere deia entzun,

¹⁷⁰ **81,1** «Dolareak» doinuan: Ik. 8,1 oh.

¹⁷¹ **81,4** *besta-egunean*: Ilargi-egutegiari jarraikiz, hilabetearen lehen eguna besta egiten zen (ik. Zen 28,11-15; Am 8,5); zazpigarren hilabetearen lehen eguna urtearen hastea zen (ik. Lv 23,24; Zen 29,1); ondoko ilargi-betean Etxola Besta ospatzen zen (ik. Lv 23,34; Zen 29,12).

¹⁷² **81,6** *Mintzo ezezaguna entzuten dut*: Hain segur liturgi giroan Jainkoaren mezua gaurkotzeko eta batzarraren karra pizteko ezarri hitzak dira.

SALMOAK

Israelek ez zuen nitarik deusik nahi ukan.

¹³ Orduan, arbuiatu nuen bere burugogorkeriagatik:
bizi zadin bere gogara.

¹⁴ «Ai! neure herriak entzun banintza!

Israel nere bidetik ibil baladi!

¹⁵ Haren etsaiak bat-batean apal nezazke,
zapaltzaileen kontra besoa altxa nezake.

¹⁶ Azpian ezar nezozke hastio dutenak:
horra hauen zoria betiko¹⁷³

¹⁷ Neure herriari ogirik hoberena eman nezoke jatera,
bai eta eztirik gozoena».

82. (81.) SALMOA

Munduko zuzendarien gaitzespena

¹ *Asafen salmoa.*

Zerutar izakien batzarrean jeiki da Jainkoa
herri-buruzagien jujatzeko¹⁷⁴:

² «Noiz arte duzue zuzengabeki jujatuko,
noiz arte zirezte hobendunen alde jarriko?

³ Defenda zazue gizagaixoa eta umezurtza,
juja zuzen dohakabea eta behartsua!

⁴ Aska gizagaixoa eta pobrea,
gaizkileen eskutik heiek libra!»

⁵ Bainan ez dakite, ez dute konprenitzen,
ilun beltzean dabilta,
eta lurraren oinarriak kordoka dira.

⁶ Erraiten dut: «jainkoak zirezte,
Goi-goikoaren seme zirezte denak.

⁷ Bainan jendeak bezala zirezte hilen,
edozein handiki bezala lurrerat joanen».

¹⁷³ **81,16** Bigarren lerroko testua ez da argia.

¹⁷⁴ **82,1** *buruzagien jujatzeko*: Jainkoak bere gortearekin (*zerutar izakiak*, ik. Jb 1,6 oh.) egiten duen batzarra da.

⁸ Jeiki, Jainkoa, eta goberna mundua,
zu baitzira herri guzien jabea!

83. (82.) SALMOA

Israelen etsaien kontra mendeku-galdea

¹ *Kanta. Asafen salmoa*¹⁷⁵.

² Oi Jainko, ez egon ixilik,
ez egon mutu eta geldirik!

³ Horra zure etsaiak asaldaturik,
hastio zaituztenak burua altxaturik:

⁴ Zure herriaren kontra xede maltzurak dituzte,
zure gerizan daudenen kontra hitzartu dira.

⁵ Hau diote: «Ea, suntsi dezagun heien nazioea!
Ez dadila gehiago aipa Israelen izena!»

⁶ Denek azpikerian bat egin dute,
zure kontra elkargoz hitzartu dira:

⁷ edomdar eta ismaeldarrak,
moabdar eta hagartarrak,

⁸ Gebal, Amon eta Amalek,
filistear eta tiroarrak¹⁷⁶.

⁹ Asiriarrak¹⁷⁷ ere elkartu zaizkiote,
Loten ondokoeri laguntza eskaini diete.

¹⁰ Egiezu madiandarrereri egin hura bera,
Sisera eta Jabini, Kixon erreka ondoan egina.

¹¹ Endorren suntsituak izan ziren,
lurrarentzat zimaur bilakatuak.

¹² Tratazkizu heien handikiak Oreb eta Zeeb bezala,

¹⁷⁵ **83,1** *Asafen salmoa*: Asafen saileko azkena da (ik. 50,1 oh.).

¹⁷⁶ **83,7-8** *Edom*: Palestinako eguzki-hegoaldeko herria; *ismaeldarrak* eta *hagartarrak*, arabiar leinuak; *Moab* eta *Amon*, Loten ondokoak (ik. Has 19), Jordanez bestaldeko erresumak; *Gebal*, Itsaso Hilaren hegoaldeko herria; *Amalek*, Negeveko leinu nomada, maiz Israelen etsai agertzen dena (ik. Jal 17,8); *filistearrak* eta *tiroarrak*, Mediterraneo kostaldeko herriak.

¹⁷⁷ **83,9** *Asiriarrak*: Izenak Jordanez eguzkialdeko leinu bat (ik. Has 25,3.18; 2 Sm 2,9) edo Asiriari inperioa adiaraz dezake

SALMOAK

heien buruzagiak Zebah eta Tzalmuna bezala.

¹³ Hunela zioten:

«Har ditzagun Jainkoaren lurraldeak!»

¹⁴ Ene Jainko, eremazkizu ilauna zurrunbiloan bezala,
haizean lastoa bezala.

¹⁵ Oihana erretzen duen suaren pare,
mendiak kizkaltzen dituen garraren pare,

¹⁶ zapalzkizu zeure ekaitzaz,
izi zeure haize-erauntsiaz,

¹⁷ estal ahalge gorriz heien aurpegia,
bila zaitzaten, Jauna.

¹⁸ Ikaraz eta lotsaz,
gal daitezela betiko desohorez!

¹⁹ Jakin bezate zu bakarrik zirela Jauna,
lur guziaren gainean Goi-goikoa.

84. (83.) SALMOA

Jainkoarekin bizitzeko nahia. Erromes-kanta

¹ *Koru-zuzendariarentzat. «Dolareak» doinuan. Koreren semeen¹⁷⁸ salmoa.*

² Bai, maitagarria zure egoitza,
Jaun guziahalduna!

³ Xifritua nago hatsa galtzeraino
Jaunaren tenpluan sartuko ez naizeno.
Ene gorputz eta arima daude oihuz,
Jainko bizidunari buruz.

⁴ Xoriak ere badu etxea,
eta ainarak umeentzat kafia
zure aldareen ondoan, Jaun guziahalduna,
ene errege eta Jainkoa!

⁵ Dohatsuak zure etxean bizi direnak,
geldigabe goresten zaituztenak!

¹⁷⁸ **84,1** *Koreren semeak*: Ik. 42,1 oh.

SALMOAK

⁶ Dohatsuak beren indarra zure baitan dutenak,
bideak bihotzean dauzkatena¹⁷⁹!

⁷ Ibar idorra iragaitean,
iturburu dute bilakatzen:
lehen euriek benedizionez estaltzen¹⁸⁰.

⁸ Badoatzi gero eta indartsuago,
Jainkoa Sionen noiz ikusiko.

⁹ Jauna, Jainko guziahalduna, entzun ene otoitza,
itzul beharria, Jakobena Jainkoa!

¹⁰ Oi Jainko, beha gure geriza den erregeari,
zuk hautatu sagaratuari.

¹¹ Zure atarietan egun bat hobeago
mila beste nihun baino;
nahiago dut zure tenpluko ate ondoan egon
gaixtoen etxeetan bizi baino.

¹² Bai, Jainko Jauna dugu eguzki eta geriza,
Jaunak emaiten onginahi eta ohore,
harek zoriona ez ukatzen
prestuki jokatzen duteneri.

¹³ Jaun guziahalduna,
dohatsua zure baitan konfiantza duena!

85. (84.) SALMOA

Justizia eta bakearen alde

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Koreren semeen salmoa.*

² Jauna, zeure herrialdeari agertu diozu zeure maitasuna,
aldatu duzu Jakobena ondokoen zoria¹⁸¹;

³ barkatu dituzu zeure herriaren hobenak,
estali haren bekatu guziak.

⁴ Eztitu duzu zeure sumindura,
itzali zeure haserre-sua!

¹⁷⁹ **84,6** *bideak...* : Jerusalemerateko beila-bideak.

¹⁸⁰ **84,7** Ber.eko testua iluna da eta itzulpena ez segura.

¹⁸¹ **85,2** *alda...* *zoria*: Hunela ere itzul daiteke: *itzularaz Jakobena herriko erbesteratuak.*

SALMOAK

⁵ Altxa gaitzazu, Jainko gure salbatzailea,
bazter gure kontra duzun hasaerrea!

⁶ Beti sumindua egon behar ote duzu gurekin,
mendez mende kopeta ilunarekin?

⁷ Ez ote daukuzu berriz emanen bizia,
zure herria zurekin dadin bozkaria?

⁸ Erakutsaguzu, Jauna, zeure maitasuna,
eman zeure salbamena!

⁹ Jainko Jaunak diona entzun nahi dut:
bakea hitzemaiten diote bere herri eta fededuneri,
hari berriz konfiantza erakusten dioteneri.

¹⁰ Hurbil dago, harentzat errespetua dutenen salbatzeko;
bai, haren ospea gure lurraldean da kokatuko.

¹¹ Maitasunak eta leialtasunak dute elkar aurkitzen,
justiziak eta bakeak elkar besarkatzen;

¹² lurretik hozitzen da leialtasuna,
zerutik jausten justizia.

¹³ Jaunak du zoriona emaiten,
eta gure lurrak uzta ekartzen.

¹⁴ Jaunaren aitzinean doa justizia,
eta haren urratsek egiten bidea¹⁸².

86. (85.) SALMOA

Zorigaitzean otoitza

¹ *Daviden otoitza.*

Entzun zazu, Jauna, ihardets,
dohakabe eta behartsua naiz!

² Begira nere bizia, zuri atxikia bainaiz.

Zu zira ene Jainkoa:

salba zeure zerbitzaria, zutan baitut fidantzia.

³ Urrikal nitaz, Jauna:

¹⁸² 85,14 Azken lerroa iluna da jatorrizkoan.

SALMOAK

zuri deika ari naiz egun guzia.

⁴ Bozkaria zerbitzari hunen bihotza:

zuri buruz daukat gogoa, Jauna.

⁵ Ona zira, Jauna, eta urrikalkorra,
dei egiten dauzutenentzat onginahiz betea.

⁶ Itzul beharria nere otoitzera, Jauna,
entzun nere oihua!

⁷ Larrialdian dei egiten dauzut,
eta entzuten nauzu!

⁸ Ez da, Jauna, zu bezalako Jainkorik;
zure egintzak, paregabeak.

⁹ Zuk egin herri guziak
etorriko zaizkizu adoratzera,
Jauna, zuri ohore ematera.

¹⁰ Handia zira, mirarigilea,
zu bakarrik zu, Jainkoa!

¹¹ Erakuts ezadazu, Jauna, zeure bidea,
leial joka dezatan zurekin.
Bat egizu nere bihotza,
zureganako errespetuan bizi nadin.

¹² Jauna, ene Jainkoa, bihotz-bihotzez ospatuko zaitut,
beti eta beti goretsiko.

¹³ Bai, handia neretzat duzun maitasuna:
Hilen Egoitza zolatik libratu nauzu!

¹⁴ Oi Jainko, harroak oldartu zaizkit,
gogorkeriazaleek hil nahi naute,
zure axolarik gabe.

¹⁵ Bainan zu, Jauna, Jainko bihozbera eta urrikalkorra,
berant-haserre, onginahiz eta leialtasunez betea:

¹⁶ itzul nereganat, urrikal zakizkit,
emozu indar zeure zerbitzari huni,
salba zeure zerbitzariaren semea.

¹⁷ Emadazu alde zaitutalako ezaugarria!
Ahalgetuko ditu nere etsaiak
zuk, Jauna, laguntzen eta kontsolatzen nauzula ikusteak.

87. (86.) SALMOA

Sion, herrien sorleku

¹ *Koreren semeen salmoa. Kanta.*

Oi zu, mendi sainduaren gainean Jaunak oinarritua sendo!

² Sion hiri, Jaunak zu maiteago
Israelgo herri guziak baino¹⁸³.

³ Jainkoaren hiri, bai ospetsua
Jaunak zutaz diona:

⁴ «Ezagutzen nautenen artean aipatzen ditut Egipto¹⁸⁴ eta Babilon.
Hara Filistea, Tiro eta Etiopia: herri bakotxak bere sorlekua;

⁵ bainan Sionez erran daiteke: Ama!
Denek zu zaituzte sorleku!
Goi-goikoak tinko ezarri zaitu!»

⁶ Jaunak idatzi du herrien zerrenda:
«Halakoa hemen sortu da».

⁷ Bainan dantzatzuz kantatuko dute:
«Sion, denek zure baitan bizilekua!»

88. (87.) SALMOA

Etsituaren oihua

¹ *Kanta. Koreren semeen salmoa. Koru-zuzendariarentzat.
Erialdian, atsegabean. Heman ezratarraren poema¹⁸⁵.*

² Jauna, ene Jainko salbatzailea!
Gau eta egun laguntza eske nere oihua!

¹⁸³ **87,2** zu maiteago... baino: H.h., zure ateak maiteago Jakobek bizileku guziak baino.

¹⁸⁴ **87,4** Egipto: H.h., Rahab, hastapenetako kaosaren itsas munstroa (ik. 89,11; Jb 9,13 oh.).
Hemen Egipto adiarazten du (ik. Is 30,7).

¹⁸⁵ **88,1** Erialdian, atsegabean: Bi hitzen erran-nahia ez da segura (ik. 33,1). // Heman: Koreren ondokoen arteko kantari baten izena (ik. 1 Kro 6,18), eta 1 Erg 5,11n aipatu jakintsu batena ere.
// ezratar: Indigena edo han-bereko erran nahi du.

SALMOAK

³ Hel bekizu nere otoitza,
itzul beharria nere deiadarrera!

⁴ Zorigaitzez asean naiz,
Hilen Egoitza hegian da nere bizia.

⁵ Zilorat doatzinen artean naukate,
hain nago indargabetua.

⁶ Herioren esku utzia,
hil-hotzak hobian sartuak bezala:
ez zira gehiago heietaz oroitzen,
zurekilako lokarriak hautsiak dituzte;

⁷ aurtiki nauzu zilo zolarat,
leizeetako ilunpetarat.

⁸ Zure haserrea gainean dut,
zure uhain guzietan lehertua,
⁹ etxeokak urundu dauzkidazu,
heientzat higuigarri bilakatu nauzu.

Preso nago, ateratzerik gabe.

¹⁰ Atsegabearen atsegabeaz begiak ahiturik,
egun osoan deika nagokizu, Jauna,
eskuak zuregana luzaturik.

¹¹ Hilen alde eginen ote duzu miraririk?
Jeikiko¹⁸⁶ ote dira zure goresteko?

¹² Aipatzen ote da hilobian zure maitasuna,
hondamen-leizean zure leialtasuna?

¹³ Ezagutzen ote dira zure mirariak ilunpean,
zure salbamen-asmoa, oroitzerik gabeko herrialdean?

¹⁴ Bainan ni, oihuz nagokizu, Jauna,
goiz-goizetik nere otoitza doa zuregana.

¹⁵ Jauna, zergatik nauzu baztertzen,
zergatik zeure aurpegia kukutzen?

¹⁶ Haur haurretik dohakabe naiz, ahitua,
zure beldurraren zamapean lehertua¹⁸⁷.

¹⁸⁶ **88,11** *Jeikiko*. H.h., itzalak, *Hilen Egoitzan diren hilak*. Jakingarri da 7 eta 12-13 ber.etan hilen bizilekuaren adiarzteko zenbat hitz erabiltzen diren (*zilo, leizeetako ilunpe, hilobi, hondamen-leize, oroitzerik gabeko herrialde*).

¹⁸⁷ **88,16** *lehertua*: Jatorrizko hitza ezezaguna da eta itzulpena zentzuaren arabera egina.

SALMOAK

¹⁷ Zure haserrea gainetik iragan zait,
zure ikara larriak deusetaratu nau.

¹⁸ Uholdez bezala naukate egun osoan inguratua,
alde guzietarik setiatua.

¹⁹ Adiskide eta lagunak urundu dituzu niganik:
ez dut ilunpeaz beste lagunarterik.

89. (88.) SALMOA

Jaun ahaltsuari gorazarrea. Davidi egin agintzaren oroitzapena

¹ *Etan*¹⁸⁸ ezratarraren poema.

² Jauna, zure maitasun-egintzak beti ditut kantatuko,
zure leialtasuna gizaldiz gizaldi goraiapatuko.

³ Bai, zure maitasunak moldatua da zerua,
zerua bezain tinko ezarria da zure leialtasuna.

⁴ «Neure hautetsiarekin elkargo egin nuen,
David neure zerbitzariari zin eginez:

⁵ Betiko ezarriko dut zure errege-ondoregoa,
sendo sekulako zure tronua».

⁶ Zeruek zure egintza miragarriak ospatzen dituzte, Jauna,
aingeruen batzarrean¹⁸⁹ zure leialtasuna.

⁷ Nor da gain hartan Jaunaren pareko?
Nor jainkoen artean Jauna bezalako?

⁸ Beldurgarria da Jainkoa aingeruen kontseiluan,
handia eta ikaragarria inguruko guzientzat.

⁹ Jauna, Jainko guziahalduna, nor zu bezalakorik?
Ahaltsua zira Jauna, leialtasunez jantzia!

¹⁰ Zuk menperatzen duzu itsasoaren harrokeria,
zuk jabaltzen uhainak, altxatzen direnean.

¹¹ Zuk zilatu zinuen eta sarraskitu itsas munstroa¹⁹⁰,
zuk barreiatu beso bizkorrez etsaiak.

¹² Zeurea duzu zerua, zeurea lurra,

¹⁸⁸ **89,1** *Etan*: *Hemanekin* batean aipatua (ik. 1 Erg 5,11; 1 Kro 6,29); ik. 88,1 oh.

¹⁸⁹ **89,6** *aingeruen batzarrean*: H.h., *sainduen batzarrean* (ik. 8. ber.).

¹⁹⁰ **89,11** *itsas munstroa*: H.h., *Rahab*; ik. 87,4 oh.

SALMOAK

zuk sendo ezarri zinuen mundua eta hango guzia.

¹³ Zuk egin zinituen Iparra eta Hegoa;
Tabor eta Hermon¹⁹¹ mendiek zuri poz-oihu.

¹⁴ Indartsua duzu besoa,
garailea eskuina.

¹⁵ Justizia eta zuzenbidea zure erregetzaren oinarri,
maitasuna eta leialtasuna zure aurpegiaren aitzinean doatzi.

¹⁶ Zoriontsua zure gorai patzen dakien herria!
Zure aurpegiaren argitan ibiliko da, Jauna:

¹⁷ zure aitzinean alaitzen da egunoro,
zure justizia du bozkario.

¹⁸ Bai, zu zaituzte ospe eta indar,
zure onginahiak egiten gaitu garaile.

¹⁹ Bai, Jauna da gure geriza,
Israelgo saindua gure erregea!

²⁰ Lehen, ikuskari bidez,
zeure fededuneri erran zinioten:
«Laguntza eman diot beldurgabe bati,
neure herriko mutiko gazte bat berexi.

²¹ David neure zerbitzaria dut aurkitu
eta neure olio sainduaz sagaratu.

²² Nere esku azkarra berekin du ukanen,
nere besoak indartsu egingen.

²³ Etsaiak ez du enganatuko,
ez gizatzarrak makurtuko.

²⁴ Aitzinean etsaiak diozkat zapalduko
eta hastio dutenak joko.

²⁵ Nere leialtasuna eta maitasuna berekin izanen ditu,
nere laguntzak garaile egingen du.

²⁶ Eskupean ezarriko diot itsasoa,
eskuinaren pean ibaiak.

²⁷ Harek erranen daut: Zu zaitut aita,

¹⁹¹ **89,13** *Tabor eta Hermon*: Kanaandarren mendi sakratuek -- bata Galilean eta bestea Palestinako ipar-muturrean -- orai Jauna adoratzeko dute.

SALMOAK

ene Jainko, ene harroka salbatzailea!

²⁸ Eta nik neure lehen- seme eginen dut,
munduko erregerik handiena.

²⁹ Leial izanen nitzaio betiko,
harekin dutan elkargoa sendo atxikiko.

³⁰ Betiko finkatuko dut haren errege-ondoregoa,
zerua bezain iraunkor eginen haren tronua.

³¹ Haren semeek nere legea badute baztertzen
eta nere zuzenbidean ez ibiltzen,

³² nere arauak hausten badituzte
eta nere manamenduak ez begiratzen,

³³ makilaz zigortuko dut heien bihurrikeria,
eta ukaldika heien hutsa.

³⁴ Bainan ez diot kenduko Davidi neure maitasuna,
ez eta ukatuko neure leialtasuna.

³⁵ Ez dut urratuko neure elkargoa,
ez eta janen eman dutan hitza.

³⁶ Behin betiko zin egin dut neure saindutasunaz:
ez nitzaio sekula Davidi desleial izanen.

³⁷ Haren errege-ondoregoak betiko du iraunen,
eguzkiak bezala haren tronuak nere aitzinean,

³⁸ ilargiak bezala sendo, beti han,
lekuko leial hodeietan».

³⁹ Orai, ordea, zeure sagaratuarekin haserreturik,
baztertu duzu eta mespretxatu.

⁴⁰ Zeure zerbitzariarekin zinuen elkargoa ukatu duzu,
haren korona lurrerat botatu,

⁴¹ haren harresi guziak zilatu,
gotorlekuak hondakin bilakatu.

⁴² Handik iragan direnek lapurtu dute,
auzoko guziek laidostatu.

⁴³ Haren kontrakoeri eman diozute indarra,
haren etsaieri bozkarioa.

⁴⁴ Hari, berriz, ezpata-ahoa ere kamustu,
borrokan ez duzu lagundu;

⁴⁵ kendu diozu errege-makila distiratsua
eta lurrerat aurtiki tronua.

SALMOAK

⁴⁶ Haren gaztetako urteak laburtu
eta ahalgez duzu gorritu.

⁴⁷ Noiz arte, Jauna? Betikotz gorderik ote zaude?
Betikotz zure haserrea su eta gar?

⁴⁸ Oroit zaite nere bizitzako egun laburrez!
Zein huts egin duzun jendea!

⁴⁹ Nor biziko da heriotzerik ikusi gabe?
Nork ihes egingen Hilen Egoitzari?

⁵⁰ Non dira, Jauna, lehengo zure maitasun-egintzak,
Davidi zin eginez hitzeman zinion leialtasuna?

⁵¹ Gogoan har, Jauna, zeure zerbitzari laidostatua,
herrienganik jasan behar ditutan hainbat eztenkada!

⁵² Zure etsaiak laidoka ari dira, Jauna,
zuk errege sagaratuari laidoka.

⁵³ Benedikatua Jauna beti! Amen. Amen¹⁹².

90. (89.) SALMOA

Bizitza iheskor

¹ *Mois Jainkoaren gizonaren otoitza.*

Jauna, zu zintugun ihesleku gizaldiz gizaldi.

² Mendiak agertu aitzin, lurra eta mundua sortu zinituen aitzin,
Jainko zira zu betidanik eta betiko.

³ Jendea errauts bilakatzen duzu,
erranez: «Itzul lehengorat!»

⁴ Bai, mila urte zuretzat, atzoko egunaren pare,
gaueko oren baten pare.

⁵ Jendea eremaiten duzu, ametsa baizik ez da¹⁹³;
goizeko belarra bezala:

⁶ goizean loratzen da eta handitzen,

¹⁹² **89,53** *Amen. Amen:* Salmo-liburuaren hirugarren zatia bururatzen da hemen (ik. 41,14 eta 72,19).

¹⁹³ **90,5** Lehen lerroko testua zalantzakoa *da*.

SALMOAK

aratsaldean zimeltzen eta ihartzen.

⁷ Zure haserreak ahiturik gauzka,
zure suminak iziturik dardaraka.

⁸ Zeure aitzinean ezarri dituzu gure hutsak,
zeure begi-argitan gure ixileko bekatuak.

⁹ Zure suminaren aitzinean ahitzen dira gure egun guziak,
hasperen batean bururatzen gure urteak.

¹⁰ Gure bizitza hirurogeita hamar urte, azkarrenek laurogei:
gehienak neke eta atsegabe;
bizitza laster doa, hegaldatzen gira!

¹¹ Nork ezagutzen du zure hasarrearen indarra?
Nork bere baitaratua zure suminaren beldurra¹⁹⁴?

¹² Erakutsaguzu gure egunen kondatzen,
bihotzaren zuhurtziaz jabe gaitezen.

¹³ Itzul zakizkigu, Jauna! Noiz arte?
Urrikal zeure zerbitzariez!

¹⁴ Bete gaitzazu goizetik zeure maitasunaz,
bizitza guzia bozkario kantuz iragan dezagun.

¹⁵ Emaguzu zoriona orai arteko egun gaixtoen ordezt,
ikusi ditugun urte gorrien partez.

¹⁶ Zure zerbitzari hauek ikus dezagula zure ekintza,
eta gure seme-alabek zure nagusitza!

¹⁷ Guregana bedi Jaunaren, gure Jainkoaren gozoa!
Sendo zazu gure eskuen lana,
bai, sendo gure eskuen lana!

91.(90.) SALMOA

Jauna aterbe

¹ Goi-goikoaren gerizan dagonak,
Guziahaldunaren itzalean bizi denak,

² Jaunari dio:
«Ene aterbe eta gaztelua;

¹⁹⁴ 90,11 Bigarren lerroa ez da argia jatorrizkoan: *Zure beldurra bezalakoa zure samina.*

SALMOAK

ene Jainko, zutan ene fidantzia!»

³ Harek aterako zaitu ihiztariaren saretik
eta izurri galgarritik.

⁴ Bere hegalez begiratuko zaitu,
haren hegalperat ihes egingen duzu,
haren leialtasuna geriza izanen duzu.

⁵ Ez zaitu ikaratuko gaueko izialdurak,
ez eta eguneko geziaren ziztuak,

⁶ ez ilunpez dabilan izurriak,
ez eta eguerdiko kutsu hilgarriak¹⁹⁵.

⁷ Eror bite mila zure ondorat,
hamar mila zure eskuinerat,
zu deusek ez hunkiko.

⁸ Idek doi-doia begia
eta ikusiko duzu gaixtoen saria,

⁹ Jauna baita zure aterbea,
Goi-goikoa zure leihorra.

¹⁰ Gaitzik ez zaizu gertatuko,
ez makurrik zure egoitzarat hurbilduko,

¹¹ zutaz baitiote aingerueri manaturen
zure bide guzietan zaindu zaitzaten.

¹² Eremanen zaituzte beren eskuetan,
zure oinak harri zenbait jo ez dezan.

¹³ Lehoin eta sugearen gainean duzu oina finkatuko,
lehoin kumea eta herensugea dituzu zangopilatuko.

¹⁴ «Eni baitago, libratuko dut,
ene izena aitortzen baitu, begiratuko dut;

¹⁵ dei egingen daut, eta nik ihardetsiko,
berekin izanen nau hersturaldiko.

Libratuko dut eta ohorez jantziko,

¹⁶ bizitza luzez dut aseko
eta neure salbamendua diot gozaraziko».

92. (91.) SALMOA

¹⁹⁵ 91,6 *eguerdiko... kutsu*: Lehengo itzulpenek *eguerdiko debru* itzuli dute; hortik sortu da «bizitza-erdiko debru» erran-moldea.

SALMOAK

Jaunarekin zoriontsu denaren gorazarrea

¹ *Salmoa. Larunbateko kanta.*

² Eder da, Jauna, zu gorestea
eta zure izena, Goi-goiko, kantuz ospatzea.

³ Bai, eder zure maitasuna oihukatzea goizean,
eta zure leialtasuna gau osoan,

⁴ hamar hariko harpaz,
zitara-soinuaz!

⁵ Bozkariatu nauzu, Jauna, zure ekintzaz,
poz-oihuka nago zure eskuez eginaz.

⁶ Bai handiak, Jauna, zuk eginak!
Zein barnak zure gogoetak!

⁷ Ergela ez da ohartzen,
zoroak ez du konprenitzen.

⁸ Erne daitezela belarra bezain ugari gaixtoak,
lora gaizkile guziak:
betiko izanen dira hondatuak!

⁹ Bainan zu, Jauna, diren guzien gaisetik zira betiko!

¹⁰ Zure etsaiak, Jauna,
bai, zure etsaiak dira galduko,
gaizkile guziak barreiatuko.

¹¹ Bufaloaren indarra eman dautazu,
usain gozoko olioz gantzutu¹⁹⁶ nauzu.

¹² Gaizkileak nere kontra altxatzen direnean,
etsaiak ikusi eta hau entzuten dut¹⁹⁷:

¹³ «Zintzoa palmondoa bezala da handituko,
Libanoko zedroa bezala haziko;

¹⁴ Jaunaren etxean landaturik,
gure Jainkoaren ondoan handituko da.

¹⁵ Zaharturik ere fruitua du emanen,
biziz beterik eta heze iraunen,

¹⁶ Jauna zuzena dela mezutzeko,

¹⁹⁶ **92,11** *olios gantzutu*: Ongi etorriaren (ik. 23,5) eta bestaren irudia (ik. 133,2).

¹⁹⁷ **92,12** Ber.eko testua ez da argia, ez eta itzulpena ere segura.

nere harroka, gaixtakeriarik gabekoa».

93. (92.) SALMOA

Jaunari, errege ahaltsuari, gorazarrea

¹ Jauna errege da, ospez jantzia,
Jaunak indarra gerriko!
Sendo finkatu du mundua, ez da kordokatuko.
² Betikoa zira zu, Jauna!
Zure tronua betidanik sendo ezarria!

³ Ozendu dute itsas urek, Jauna,
ozendu itsas urek orroa,
ozendu itsas urek uhain-burrunba!

⁴ Bainan Jauna zero gain hartan,
itsas orroa baino,
itsas uhainak baino ahaltsuago.

⁵ Zure erabakiak fidagarriak,
zure etxea betetzen saindutasunak,
Jauna, egun eta beti.

94. (93.) SALMOA

Munduaren jujeari deia

¹ Jauna, Jainko mendekatzailea!
Ager zaite, oi Jainko mendekatzailea!

² Xuti, munduaren jujea,
emozute harroeri merezi dutena!

³ Noiz arte, Jauna, behar dute gaixtoek,
noiz arte behar dute garaile izan gaixtoek?

⁴ Ahalgerik gabe dira ahoberoak,
harro gaizkile guziak.

⁵ Jauna, zure herria dute lehertzen,
zure ondarea zapatzen,

SALMOAK

⁶ alarguntsak eta etorkinak hiltzen,
umezurtzeri bizia kentzen.

⁷ Hunela dute: «Jaunak ez du ikusten,
Jakoben Jainkoa ez da ohartzen».

⁸ Kasu emazue, ergelak!
Zentzugabe horiek, noiz konprenitu behar duzue?

⁹ Beharria ezarri duenak ez ote du entzuten?
Begia moldatu duenak ez ote ikusten?

¹⁰ Herrien zentzatzailleak ez ote du zigortuko?
Jendearen irakasleak ez ote jakinen?

¹¹ Jaunak ezagutzen ditu giza asmoak,
badaki zein diren hutsalak.

¹² Dohatsua, Jauna, zuk hezten duzuna,
zeure legean eskolatzen duzuna.

¹³ Kinka nekeetarik landa, lasai biziartzten duzu,
gaixtoeri hilobia zilatua zaioten bitartean.

¹⁴ Jaunak ez du bere herria arbuiatuko,
ez bere ondarea bazterrerat utziko.

¹⁵ Justiziaren arabera dute berriz jujatuko,
hari dira bihotz zuzenak jarraikiko.

¹⁶ Nork defendatuko nau gaixto horien kontra?
Nor alde aterako gaizkile horien kontra?

¹⁷ Jaunak lagundu ez banindu,
herio-ixilpean¹⁹⁸ nintaike oraikotz.

¹⁸ Erortzer nizala uste dutanean,
zure maitasunak, Jauna, xutik nauka.

¹⁹ Bihotza kezkaz betea badut ere,
zeure kontsolamenduaz gozaten nauzu.

²⁰ Lagun izanen ote dituzu juje hiltzaileak,
legea mesprextatuz zorigaitza sortzen dutenak?

²¹ Zintzoari oldartzen zaizkiote, hiltzeko,
hobengabeari heriotzera kondenatzeko.

²² Bainan nik Jauna dut gotorleku,
harroka den Jainkoa, geriza.

¹⁹⁸ **94,17** *herio-ixilpean*: Hilen Egoitzan (ik. 88,11. oh.; 115,17).

SALMOAK

²³ Beren bidegabekeriaren ordaina emanen diote,
beren gaixtakeriengatik suntsituko ditu:
gure Jainko Jaunak suntsituko ditu!

95. (94.) SALMOA

Jaunaren gorestera gomita

¹ Zatozte, bozkarioz oihu egin diezogun Jaunari,
bozkarioz irrintzi salbatzen gaituen harrokari!

² Goazen hari eskerren emaitera,
bozkario-irrintziz eta kantuz.

³ Jauna Jainko handia baita,
jainko guzien gainetik errege handia.

⁴ Eskuan dauzka lurpeko leizeak,
berek ditu mendi-kaskoak.

⁵ Berea du itsasoa, berak egina,
eta leihorra, bere eskuz moldatua.

⁶ Zatozte, adora dezagun ahuspez,
belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren aitzinean!

⁷ Hura da gure Jainkoa,
eta gu harek alhatzen duen herria,
harek gidatzen duen artaldea.

Kasu eginen ahal diozue gaur haren erranari!

⁸ «Ez gogor bihotzak zuen arbasoek Meriban bezala,
Masako¹⁹⁹ egun hartan basamortuan bezala,

⁹ desafiatu eta frogatu baininduten,
nik heien alde egina ikusirik ere.

¹⁰ Berrogei urtez, gizaldi harek okaztatu ninduen,
eta erran nuen: Herri galdua da, bihotzez desleiala,
nere bidetik ibili nahi ez duena.

¹¹ Orduan, zin egin nuen, neure haserrean:
Ez, ez dira sartuko ene atsedeen-tokian!»

¹⁹⁹ **95,8** *Meriba*: Auzi erran nahi du, eta *Masa*- k *tentazione*, *frogaldi*. Jal 17,1-7 eta Zen 20,1-13ko gertakizunak aipatzen dira.

96. (95.) SALMOA

Mundu osoak bere erregeari gorazarrea

¹ Kanta Jaunari kantu berri,
kanta Jaunari, lur guziak,
² kanta Jaunari, benedika haren izena!

Oihuka zazue egunez egun salbatzaile dela,
³ zabal haren ospea atzerrietan,
haren mirariak herri guzietan!
⁴ Handia baita Jauna, guziz goresgarria,
jainko guzien gainetik beldurgarria.
⁵ Hutsalak dira atzerritarren jainko guziak;
Jaunak ditu, ordea, egin zeruak.
⁶ Distira eta handitasuna ditu inguruan,
indarra eta edertasuna haren saindutegian.

⁷ Gorets Jauna, munduko herriek,
gorets Jaunaren ospea eta indarra,
⁸ gorets Jaunaren izen ospetsua!
Sar haren aintzinerat eskaintzak eremanez,
⁹ adora Jauna, saindutasunez agertzen denean.
Lur guzia, ikara zaite haren aitzinean!

¹⁰ Errazue nazioeen artean: «Errege da Jauna!
Sendo finkatua du mundua, kordokaezina;
zuzenbidez ditu herriak jujatzen».
¹¹ Bozkaria bedi zerua, alaitu lurra,
egin beza burrunba itsasoak eta hura betetzen duenak,
¹² egin besta, landa zabalak eta han den guziak,
egizue poz-oihu oihaneko zuhaitzek oro,
¹³ badatorren, lurraren gobernatzera datorren
Jaunaren aitzinean.
Justiziaz gobernatuko du mundua
eta leialtasunez herriak.

97. (96.) SALMOA

Errege da Jauna

¹ Errege da Jauna! Bozkaria bedi lurra,
alai bite uharteak!

² Hodei beltz-ilunez inguratua,
justizia eta zuzenbidea ditu haren tronuak oinarri.

³ Sua doakio aitzinean,
kizkaliz inguruko etsaiak.

⁴ Haren ximistek munduan argi:
hori ikustean, lurak dardara.

⁵ Ezkoa bezala urtzen dira mendiak Jaunaren aitzinean,
lur osoaren Jabearen aitzinean.

⁶ Zeruek haren justizia dute iragartzen,
herri guziek haren ospea ikusten.

⁷ Ahalge dira sasijainkozale guziak,
huskeria horietaz harro daudenak.

Ahuspeka zaitezte Jaunaren aitzinean beste jainko guziak!

⁸ Sionek entzun du, pozten da,
Judako hiriak alaitzen dira
erabaki duzunagatik, Jauna!

⁹ Zeren, Jauna, goi-goikoa zira,
lur osoaren gaineratik,
jainko guzien gaineratik.

¹⁰ Gaizkia hastio dutenak maite ditu Jaunak,
bere fededunen bizia zaintzen du:
gaixtoen eskutik libratzen ditu!

¹¹ Argiak distirutzen du zintzoarentzat²⁰⁰,
bozkarioak bihotz zuzenekoentzat.

¹² Bozkaria zaitezte Jaunarekin, zintzoak,
goretsazue, saindua dela gogoratuz!

²⁰⁰ 97,11 Argiak... : H.h., *Argia erein da zintzoarentzat*; lehengo itzulpenek *sortzen da* diote.

98. (97.) SALMOA

Kantu berria munduaren erregeari

¹ *Salmoa.*

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu gauza harrigarriak:
garaile egin du bere eskuak,
bere beso sailduak.

² Bere garaipena erakutsi du Jaunak,
bere salbamen-ekintza agertu nazioeen aitzinean.

³ Oroitu da bere maitasunaz,
Israel herriaren alderako leialtasunaz.
Mundu-bazter guziek ikusi dute
gure Jainkoaren garaipena.

⁴ Egiozu irrintzi Jaunari, lur guzia,
egiozu poz-oihu eta kantu, jo soinua!

⁵ Ospa Jauna zitaraz,
zitaraz eta kantu ederrez!

⁶ Turuta eta adar-hotsez,
egin irrintzi errege den Jaunari!

⁷ Egin beza orro itsasoak eta han den guziak,
munduak eta han bizi direnek!

⁸ Egin bezate esku-zarta ibaiek,
poz-oihu denek batean mendiek

⁹ Jaunaren aitzinean, heldu baita
lurraren gobernatzera.
Justiziaz gobernatuko du mundua,
zuzenbidez herriak.

99. (98.) SALMOA

Jauna errege eta saildu

¹ Errege da Jauna: dardara bite herriak!

SALMOAK

Izaki hegaldunen²⁰¹ gainean du tronua: ikara bedi lurra!

² Handia da Jauna Sionen,
herri guziak baino gorago.

³ Gorets bezate haren izen handi eta beldurgarria!
Saindua da Jauna!

⁴ Errege ahaltzu zira, justiziazale:
zuk ezarri duzu zuzenbidea munduan,
zuk egiten justizia eta zuzenbidea Israelen.

⁵ Goraipa Jauna, gure Jainkoa,
ahuspeka haren oin-alkiaren²⁰² aitzinean!
Saindua da Jauna!

⁶ Haren apezten artean ziren Mois eta Aaron,
haren izenari dei egiten ziotenetan Samuel:
dei egiten zioten Jaunari, eta harek ihardesten.

⁷ Hodei-habetik hitz egiten zioten,
eta heiek haren manamenduak begiratzen,
harek eman legea betetzen.

⁸ Jauna, gure Jainkoa, zuk ihardesten zinioten,
heientzat Jainko barkabera izan zinen,
bainan heien gaixtakeriak zigortzen zinituen.

⁹ Gora Jauna, gure Jainkoa,
ahuspeka haren mendi sainduaren²⁰³ alderat!
Saindua da Jauna, gure Jainkoa!

100. (99.) SALMOA

Jainko-herriaren gorespena, tenplurat sartzean

¹ *Gorespen-oparitarako salmoa.*

Egin irrintzi Jaunari, lur guziak!

²⁰¹ **99,1** *Izaki hegaldun*: Ik. 80,2 oh.

²⁰² **99,5** *oin-alki*: Hala deitzen da elkargo-kutxa (ik. 132,7), nahiz eta hemen Sion mendia bera ere izan daitekeen (ik. 2 eta 9 ber.ak).

²⁰³ **99,9** *mendi saindua*: Sion mendia, tenplua eraikia zen mendia.

SALMOAK

² Zerbitza pozik Jauna,
sar oihu alaietan haren gana.

³ Aitor Jauna Jainko dela.
Harek eginak eta harenak gira²⁰⁴,
haren herri eta haren larreko artaldea.

⁴ Sar haren tenpluko ateetarik eskerrak emanaz,
haren atarietan gorazarrez.
Ospa zazue, benedika haren izena!

⁵ Bai, ona da Jauna, haren maitasuna betierekoa,
haren leialtasuna mendez mendetako.

101. (100.) SALMOA

Erregeak nolakoa izan behar lukeen

¹ *Daviden Salmoa.*

Maitasuna eta justizia nahi ditut kantatu,
zuretzat, Jauna, nik soinua jo.

² Jokabide prestua zoin den jakin nahi nuke:
noiz etorriko zira nereganat?

Zintzo jokatuko dut etxekoen artean.

³ Ez dut ikusi nahi
neholako itsuskeriarik.

Hastio dut arnegatzea,
ez dut holakorik onartuko.

⁴ Urrunt nereganik bihotz makurrekoa!
Gaixtoaganik ez dut deusik nahi.

⁵ Aldeko lagunaren izena ixilka belzten duena
suntsituko dut.

²⁰⁴ **100,3** *eta harenak*: Hebrearezko eskuizkribu gehienek eta grekozko itzulpenak *eta ez guk* diote.

SALMOAK

Harro eta handizaleak ez ditut jasanen.

⁶ Herritar fidagarriak hautatuko ditut kontseilari,
jokabide prestuko gizonak zerbitzari.

⁷ Ez da enganatzailerik biziko nere etxean,
ez du gezurtiak iraunen ene aitzinean.

⁸ Goiz guziz lurraldeko gaixtoak ditut ixilaraziko.
Gaizkile guziak Jaunaren hiritik iraitziko.

102. (101.) SALMOA

Zorigaitzean otoitza

¹ *Lur jorik dagon dohakabearen otoitza: Jaunari pleinu da.*

² Entzun ene otoitza, Jauna,
hel bekizu ene oihua!

³ Larrialdian ez eni gorde zure aurpegia,
itzul enegant beharria,
onar laster ene deia!

⁴ Ketan doatzi nere egunak,
itxindiak bezala erretzen ari zaizkit hezurak.

⁵ Belarra bezala zimeldu zait bihotza,
jatea ere ahanzten zait.

⁶ Intziriaren intziriz,
hezur eta larru bilakatua naiz.

⁷ Iduri dut basamortuko hontz-zuria,
hiri-ondakinen arteko gau-hontza.

⁸ Ezin lo eginez nago, intzirika,
xori bakartia teilatuan bezala.

⁹ Egun osoan ari zaizkit etsaiak laidoka,
amorraturik ni madarika.

¹⁰ Hautsa dut janari,
nigarrak edari.

¹¹ Zeure haserre-suminez
altxatu eta urrun bota nauzu.

¹² Badoatzi nere egunak, desagertzera doan itzala iduri,

SALMOAK

zimeltzen ari naiz belarra iduri.

¹³ Zu, ordea, Jauna, errege zira betiko,
zure erregetza menderen mendetako.

¹⁴ Sionez urrikalduko zira berriz,
bai, barka dezazun ordu da!

¹⁵ Zure zerbitzariak maite dituzte hango harriak,
penaturik dauzka hango hondamendiak²⁰⁵.

¹⁶ Errespetu ukanen dute nazioeek Jaunaren izenarentzat,
lurreko errege guziek zure aintzarentzat,

¹⁷ Jaunak Sion berriz eraikiko duenean,
aintzaz agertuko denean,

¹⁸ zapatuen otoitza entzunen du,
ez ditu baztertuko heien eskariak.

¹⁹ Bego hau idatzirik ondoko gizaldiarentzat,
berriz kreatua izanen den herriak Jauna goretz dezan.

²⁰ Jaunak bere saindutegi goretetik beheiti,
zerutik lurrerat behatu du,

²¹ presoen intzirien entzuteko
eta hiltzera kondenatuen askatzeko.

²² Jaunaren izen ahaltsua oihukatuko dute Sionen,
haren gorespena Jerusalem,

²³ herriak beren erregeekin
Jaunaren adoratzera bilduko direnean.

²⁴ Bidean ene indarrak ahitu ditu,
nere egunak laburtu.

²⁵ Nik erran nuen: «Ene Jainko,
ez nezazula ereman sasoinik hoberenean! »

²⁶ Zure urteek gizaldiz gizaldi diraute.
Hastetik sendo ezarri zinuen lurra,
zure eskuek egina da zerua:

²⁷ heiek galduko dira, bainan zuk iraunen;
jantzia bezala dira higituko,
soinekoa bezala dituzu aldatuko,
eta heiek beren tokia utziko.

²⁸ Zu, ordea, beti bera,

²⁰⁵ **102,15** *hondamendiak*: H.h., *errautsak*.

zure urteak azkengabeak.

²⁹ Zure zerbitzarien seme-alabek aterbe dute ukanen,
heien ondokoek zure aitzinean iraunen.

103. (102.) SALMOA

Eskerrak Jainkoari

¹ *Daviden salmoa.*

Ene arima, benedika zazu Jauna,
naizen guziak benedika beza haren izen saildua!

² Ene arima, benedika zazu Jauna,
ez ahantz haren fagoreak!

³ Hoben guziak dauzkizu barkatzen,
gaitz guziak sendatzen,

⁴ zure bizia Herio Leizetik ateratzen,
maitasun eta samurtasunez inguratzen;

⁵ bizitza osoan bere ontasunez zaitu asetzen²⁰⁶,
arranoa bezain gazte zira egoiten.

⁶ Jaunak egiten du justizia,
harek zaintzen zapatuen eskubidea.

⁷ Bere xedeak erakutsi ziozkan Moisi,
bere egintza handiak israeldarrerri.

⁸ Bihozbera eta urrikalkorra da Jauna,
berant-haserre eta maitasunez betea.

⁹ Ez da beti erasiaka aritzen,
ez du aihergorik betikotz atxikitzen.

¹⁰ Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
ez dauku ordaintzen gure hutsen arabera.

¹¹ Zerua lurretik gora den bezain handia
Jainkoaren maitasuna
haren errespetua dutenentzat.

¹² Eguzkialdea mendebaldetik urrun,

²⁰⁶ 103,5 Lerroaren testua ez da argia.

SALMOAK

gutarik berdin urrun ezartzen ditu gure hobenak.

¹³ Aita bere seme-alabentzat samurra da,
Jauna, haren errespetua dutenentzat, berdin samurra.

¹⁴ Badaki, harek, zertaz giren eginak,
oroit da errautsa baizik ez girela.

¹⁵ Jendearen egunak belarraren pare:
landako lorea bezala da loratzen

¹⁶ eta, haizeak jo orduko, galtzen,
zagon tokian ez du hatzik uzten.

¹⁷ Bainan Jaunaren maitasunak sekulako dirau
haren errespetua dutenentzat;

haren salbamen-asmoa gizaldiz gizaldi doa

¹⁸ haren elkargoa begiratzen
eta legeak betetzen dituztenentzat.

¹⁹ Jaunak zeruan ezarri du bere tronua,
eta mundu osorat zabaltzen da haren erregetza.

²⁰ Benedika zazue Jauna, zuek, haren aingeruek,
harek errana entzun orduko
betetzen duzuen izaki indartsuek!

²¹ Benedika Jauna, haren armada guziek,
haren nahia egiten duzuen zerbitzariak!

²² Benedika Jauna, harek egin guziek,
menpeko dituen toki guzietan!
Ene arima, benedika zazu Jauna!

104. (103.) SALMOA

Jainko kreaizaile eta zaindariari gorazarrea

¹ Ene arima, benedika zazu Jauna!
Jauna, ene Jainkoa, hain zira handia!

Distiraz eta edertasunez jantzia,

² soineko duzu argia.

Oihal-etxola bezala hedatzen duzu zerua,

³ gaineko uretan eraikitzen zeure egoitza;
hodeiak egin dituzu zeure karro²⁰⁷,

haizearen hegaletan zabilta.

²⁰⁷ **104,3** Biblian, ortzia ganga gogortzat da, eta gangaren gainean gaineko urak daude (ik. Has 1,7; Sal 148,4).

SALMOAK

⁴ Haizeak dituzu mezulari,
ximixta kizkalgarriak zerbitzari.

⁵ Bere oinarrietan ezarri zinuen lurra
eta ez da kordokatuko sekula.

⁶ Itsasoz estali zinuen, jantziz bezala,
urek mendiak azpian hartzen zituztela;

⁷ bainan ihes egin zuten, zuk mehatxaturik,
zure ortzantzak iziturik

⁸ mendietan gora, ibarretan behera,
zuk izendatu lekura.

⁹ Ureri ezarri diozute ezin gaindituzko muga,
estal ez dezaten berriz lurra.

¹⁰ Iturburuak erreketara dituzu gidatzen,
mendi arteetan harat joan daitezen.

¹¹ Basihiziek han dute edaten,
basastoek egarria asetzen.

¹² Ur-bazterretan dira zeruko xoriak bizi
hostopean kantari.

¹³ Goiko zeure geletarik dituzu mendiak ureztatzen,
zeure lanaren emaitzez lurra asetzen.

¹⁴ Abereentzat sor arazten dituzu belarrak,
jendeek lantzen dituzten landareak.

Lurretik ateratzen dute jatekoa,

¹⁵ bihotza alaitzen duen arnoa,
aurpegia distiratsu egiten duen olio
eta giza indarrak berritzen dituen ogia.

¹⁶ Urez ase dira Jaunaren zuhaitzak,
harek landatu Libanoko zedroak;

¹⁷ han egiten dute xoriek ohantzea,
zipresetan zikoinak etxea.

¹⁸ Ahuntzek beren mendi gorak,
muxarren aterbe harrokak.

¹⁹ Aldiak neurtzen ditu ilargiak,
badaki noiz sar eguzkiak.

²⁰ Zuk iluna hedatzean horra gaua:

SALMOAK

orduan basihizia harat-hunat dabila,

²¹ lehoinek orro egiten dute harrapakin bila,
Jainkoari janari galdeka.

²² Eguzkia ateratzean, heiek barnera,
beren gordegietan etzatera.

²³ Orduan jendea doa bere egin-beharretara,
arratsa arte lanera.

²⁴ Zein diren ugariak, Jauna, zuk eginak!
Zuhurtziaz egin dituzu denak,
zure sorkariz betea da lurra.

²⁵ Handi eta zabal, horra itsasoa:
hor dabilta, ezin kondatuak,
animale ttipi eta handiak.

²⁶ Hor dabilta ontziak batetik bestera,
bai eta itsas munstroa²⁰⁸, zurekin jostatzeko zuk moldatua.

²⁷ Denak zuri daude,
zuk tenorez jatera eman beha:

²⁸ zuk eman eta heiek biltzen,
zuk eskua zabaldu eta heiek ontasunez asetzen.

²⁹ Zuk aurpegia gordetzean, heiek izitzen,
zuk hatsa kentzean, hil eta ziren errautsera dira itzultzen.

³⁰ Zeure hatsa igorri eta sortzen dituzu,
lurraren aurpegia berritzen duzu.

³¹ Betiko izan bedi Jaunaren ospea!

Berak eginekin bozkaria dadila Jauna!

³² Harek lurrari behatu eta lurra dardara,
harek mendiak hunki eta ketan jartzen dira.

³³ Bizi naizeno diot Jaunari kantatuko,
dirautano neure Jainkoari soinua joko.

³⁴ Atsegin bekio nere kanta:

Jaunaren baitan dut neure poza!

³⁵ Gal bite bekatariak mundutik,
ez bedi izan gehiago gaizkilerik!

²⁰⁸ **104,26** *itsas munstroa*: Jatorrizkoak *Leviatan* dio; ik. 74,14 oh..

Jauna benedika beza ene arimak! Alleluia! Gora Jauna²⁰⁹!

105. (104.) SALMOA

Jaunaren egintza bikainak Israelen historian

¹ Goretsazue Jauna, dei egin hari,
jakinaraz herrien artean haren egintza bikainak!

² Kanta, jo soinu harentzat,
konda haren egintza miresgarriak!

³ Harro izan zaitezte hartaz, Jainko sainduaz,
bozkaria, Jaunaren bila zabilzaten guziak!

⁴ Bila zazue Jaun indartsua,
bila geldigabe haren aurpegia.

⁵ Gogoan atxik harek egin mirariak,
haren egintza harrigarriak eta manamendu zuzenak,

⁶ zuek, haren zerbitzari Abrahamen jatorrikoek,
Jakoben ondokoek, harek hautatuek!

⁷ Hura da Jauna, gure Jainkoa,
lur osoaren gobernaria.

⁸ Gogoan du betiko bere elkargoa,
mila gizalditako hitzema:

⁹ Abrahamekin egin zuen elkargoa,
Isaaki eman hitza,

¹⁰ Jakobi legetzat segurtatua,
Israeli betiko elkargotzat emana,

¹¹ erran ziolarik: «Zuri dauzut emanen Kanaan lurraldea,
hura da zuen ondare-zatia».

¹² Guti baizik ez zirenean,
deus guti eta arrotz lurralde hartan;

¹³ nazione batetik besterat zabilzanean,
erresuma batetik beste herrialderat,

¹⁴ Jainkoak ez zuen nehor utzi heien zapaltzera,
heiengatik erregeak mehatxatu zituen:

²⁰⁹ **104,35** *Gora Jauna*: Hitz hauek *Alleluia* hebrearrezko hitzaren erran-nahia adiarazten dute eta horrengatik ezarri ditugu, *alleluia* ere atxikiz, liturgian eta hizkera arruntean ere sartua baita. Hemendik aitzina, salmo askotan agertuko da *alleluia*, *hastean edo azkenean*, *edo bietan*.

SALMOAK

¹⁵ «Ez hunki nik hautatuak²¹⁰,
ez egin kalterik nere profeteri! »
¹⁶ Gosea erakarri zuen lurralderat,
janari-erresalbu oro kendu.
¹⁷ Bainan gizon bat igorri zuen aitzinetik,
Josep, esklabotzat saldua.
¹⁸ Oinak katez lotu ziozkaten,
burdinazko lepokoa ezarri,
¹⁹ harek iragarria bete zen arte,
hobengabea zela Jaunaren hitzak frogatu arte.
²⁰ Orduan, erregeak zuen askarazi,
herrien nagusiak giltzapetik librarazi.
²¹ Bere jauregiko buru egin zuen
eta bere ontasun guzien kudeatzaile.
²² Harek behar zituen handikiak eskolatu
eta kontseilariari zuhurtzia irakatsi.

²³ Orduan, Jakob Egiptorat zen joan
Kamen lurraldean²¹¹ atzerritar gisa bizitzera.
²⁴ Jainkoak bere herria anitz ugaltu zuen
eta etsaiak baino indartsuago egin.

²⁵ Egiptoarreri bihotza aldatu zioten,
Jakoben herria hastia zezaten
eta haren zerbitzariak maltzurki erabili zituzten.

²⁶ Orduan, igorri zuen Moises bere zerbitzaria
eta Aaron berak hautatua.
²⁷ Egiptoarren kontra egin zituzten Jainkoak manatu guziak
Kamen lurraldean egintza harrigarriak.
²⁸ Jaunak ilunpea igorri eta dena zen ilundu,
bainan heiek ez zituzten haren egintzak konprenitu²¹².
²⁹ Urak odol bilakatu ziozkaten
eta hango arrainak hilarazi.

²¹⁰ **105,15** *hautatuak*: Jatorrizkoak *gantzutu/mesias* hitza dakar. Iduriz, patriarkez eta Israelgo gainerateko gidariez errana da.

²¹¹ **105,23** *Kamen lurraldea*: Egipto adiarazteko beste gisa bat, Kam, Noeren semea (Has 7,13), egiptoarren arbasotzat emaiten baitzen (ik. Has 10,6).

²¹² **105,28** *bainan... konprenitu*: Hebrearezkoak hau dio: *bainan ez zioten kontra egin heien hitzeri*; lehengo itzulpenek, berriz, *kontra egin zioten* diote.

SALMOAK

³⁰ Lurraldean igelak agertu ziren burrustaka, erregearen geletaraino.

³¹ Jainkoak manatu eta espare eta sistuliak zabaldu ziren bazter guzietan.

³² Euriaren ordeaz, bazizkorra igorri zioten eta ximistak heien lurralderat.

³³ Mahasti eta pikondoak zituen hondatu eta zuhaitz guziak puskatu.

³⁴ Harek manatu eta etorri ziren otteak, ezin kondatuzko larrapoteak;

³⁵ lurraldeko landare guziak jan zituzten, lurreko fruituak oro jan.

³⁶ Jo zituen Egiptoko lehen- seme guziak, heien gizontasunaren lehen fruituak.

³⁷ Zilar eta urrez beterik atera zituen israeldarrak, heien leinuetako nehor ez zen kordokatu.

³⁸ Poztu zen Egipto, atera baitziren, heienganako beldurrak hartuak baitzituen.

³⁹ Hodeia zabaldu zuen heien estaltzeko eta sua gauaz argi egiteko.

⁴⁰ Heiek eskatu eta galeperrak igorri ziozkaten, zeruko ogiz ase zituen.

⁴¹ Harek harroka ideki eta ura atera zen, eta ibaika joan basamortuan barna.

⁴² Oroit zen bere hitz sakratua emana ziola Abraham bere zerbitzariari.

⁴³ Bozkariotan atera zuen bere herria, poz-oihuka bere hautetsiak.

⁴⁴ Nazione arrotzen lurraldeak eman ziozkaten eta herrien ontasunez jabetu ziren,

⁴⁵ haren arauak bete eta legeak begira zitzaten.

Alleluia!

106. (105.) SALMOA

Herriaren bekatuzko historia eta Jaunaren leialtasuna

SALMOAK

¹ Alleluia!

Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.

² Nork erran dezazke Jaunaren egintza handiak?
Nork du aski goretsiko hura?

³ Dohatsu zuzenbidea begiratzen
eta beti justizia dutenak egiten!

⁴ Oroit zaite nitaz, Jauna,
zeure herriaren alderako onginahiagatik,
zatozkit salbatzera!

⁵ Ikus dezadala zure hautetsien zoriona,
poz nadila zure herriaren pozarekin,
harro zureak direnekin.

⁶ Bekatu egin dugu arbasoek bezala,
gaizki jokatu dugu, hobendun gira.

⁷ Gure arbasoek, Egiptotik haste,
ez zituzten konprenitu zure egintza harrigarriak,
ahantzi zituzten zure maitasunaren ezaugarri ugariak,
Goi-goikoaren kontra bihurtu ziren, Itsaso Gorri ondoan.

⁸ Halere Jaunak salbatu zituen,
bere izenaren ohoreagatik eta bere ahalaren erakusteko.

⁹ Mehatxu eginez, Itsaso Gorria idortu zuen,
basamortuan barna bezala pasarazi zituen itsaso zolatik.

¹⁰ Salbatu zituen hastio zituztenen eskutik,
askatu etsaien menpetik.

¹¹ Urak estali zituen heien erasotzaileak,
bakar bat ere ez zen bizirik gelditu.

¹² Orduan, Jaunak errana sinetsi zuten
eta kantuz hura goretsi.

¹³ Bainan laster ahantzi zituzten haren egintzak,
ez zuten esperantzarik ezarri haren xedeetan.

¹⁴ Beren gutziari eman ziren basamortuan,
Jainkoa tentatu zuten eremuan.

¹⁵ Jainkoak eman zioten eskatzen zutena,

SALMOAK

Asetzekoa²¹³ igorri zioten.

¹⁶ Moisez eta Aaron Jainkoak sagaratuaz
bekaizti izan ziren kanpalekuan.

¹⁷ Orduan, lurra zabaldu zen eta Datan irentsi,
Abiramen lagun-taldea estali.

¹⁸ Suak erre zuen heien taldea,
garrak kizkali gaixtoak.

¹⁹ Horeb mendian²¹⁴ zezenkoa egin zuten,
metalki puska baten aitzinean ahuspekatu ziren.

²⁰ Beren ospe zuten Jainkoaren ordeztan,
belar-jalea den zezenkoaren irudia ezarri zuten.

²¹ Ahantzi zuten Jainkoa, beren salbatzailea,
Egipton gauza ikusgarriak egin,

²² Kamen herrialdean egintza harrigarriak
eta Itsaso Gorri aldean ikaragarriak egin zituen.

²³ Heien xehatzekotan zen Jainkoa,
bainan Mois haren hautetsia
tinko jarri zitzaion aitzinean,
haserrez suntsi ez zitzaion.

²⁴ Lurralde atsegingarria mespretxatu
eta ez zuten Jainkoaren hitza sinetsi.

²⁵ Beren oihal-etxoletan marmaran,
ez zuten Jaunak errana entzun.

²⁶ Harek, orduan, eskua altxatu eta zin egin zuen
basamortuan zituela hilen,

²⁷ heien ondokoak nazioneetan sakabanatu
eta paganoen artean barreiatuko zituela.

²⁸ Peorko Baal jainkoaren uztarripen jarri ziren
eta jainko hileri eskaini oparigaiak²¹⁵ jan zituzten.

²⁹ Jokabide hori gaitzitu zitzaion Jaunari
eta izurritea jautsi zitzaizoten gainerat.

³⁰ Bainan orduan Pinhas jeiki zen, auzia trenkatu,

²¹³ **106,15** *asetzekoa*: Hebrearrezko hitzaren erran-nahia ez da seguru; zenbaitek *eroraldia* konprenitzen dute; grekozko itzulpenak *asea* dio.

²¹⁴ **106,19** *Horeb mendia*: Sinai mendiaren beste izen bat; ik. Jal 3,1 oh.

²¹⁵ **106,28** *jainko hileri eskaini oparigaiak*: Edo hilen ohorezko opariak.

SALMOAK

eta gelditu zen izurritea.

³¹ Horrengatik, Jainkoak zuzentzat hartu zuen gizaldiz gizaldi betiko.

³² Meribako iturrian Jainkoa haserretu zuten, eta heien hobenez Moisek jasan zuen kaltea.

³³ Zeren barnea samindu baitzioten, eta harek zentzugabeki hitz egin.

³⁴ Herriak ez zituzten Jaunak manatu bezala suntsitu.

³⁵ Paganoekin nahasi ziren eta heien ohidurak hartu.

³⁶ Heien sasijainkoak adoratu zituzten eta heiek berentzat galbide gertatu.

³⁷ Beren seme-alabak opari eskaini ziozkaten debrueri.

³⁸ Odol hobengabea ixuri zuten, beren seme-alaben odola kanaandar sasijainkoeri oparitan eskainiz: lurraldea odolez busti zuten eta profanatu.

³⁹ Hola jokatu, beren buruak kutsatu eta Jainkoari desleial izan²¹⁶ zitzaizkion.

⁴⁰ Jaunaren haserrea piztu zen bere herriaren kontra eta hastiatu zuen bere ondarea.

⁴¹ Nazioeen eskuetarar eman zituen, eta hastio zituztenak nagusitu zitzaizkioten.

⁴² Etsaiek zapaldu zituzten eta menpean hartu.

⁴³ Behin eta berriz libratu zituen, bainan bihurri heiek beren hutsean tematu ziren.

⁴⁴ Jaunak ikusi zituen beren larrialdian eta heien oihuak entzun.

⁴⁵ Oroitu zen heiekin egina zuen elkargoaz eta bere maitasun handiaz gidatu zituen.

²¹⁶ **106,39** *desleial izan*: H.h., *prostituzionean ari*; idolatriaren desleialkeria adiarazten du (ik. Os 1,2 oh.).

⁴⁶ Heienganako urrikalmendua piztu zuen
erbesterat ereman zituztenen baitan.

⁴⁷ Salba gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa,
bil gaitzazu nazioeen artetik,
zure izen sainduari eskerrak emanez,
zure gorespina harro kanta dezagun.

⁴⁸ Benedikatua Jauna, Israelen Jainkoa,
betitik betira!
Herri osoak erran beza: «Amen»²¹⁷.

Alleluia!

107. (106.) SALMOA

Larrialdian askatzaile den Jauna goresteko deia

¹ Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betierekoa baita.

² Jaunak askatuek erran bezate
zapaltzailearen eskutik dituela askatu

³ eta herrialde guzietarik bildu:
eguzkialde eta mendebaldetik, iparralde eta hegoaldetik.

⁴ Harat-hunat zabiltzan basamortuan,
bide bakartietan, bizitzeko hiririk ezin aurki,
⁵ gose eta egarri,
hiltzen ari.

⁶ *Bainan larrialdian Jaunari oihu egin
eta hersturatik libratu zituen.*

⁷ Bide zuzenetik ereman zituen,
bizitzeko hirirat heldu arte.

⁸ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizasemeen alde egiten dituen
gauza harrigarriengatik.*

⁹ Egarrizirenak ditu ase,

²¹⁷ 106,48 48. ber.eko benedizioez Salmo-liburuaren laugarren zatia bururatzen da (ik. 41,14 oh.)

SALMOAK

gosetuak ontasunez bete.

¹⁰ Ilunperik beltzenean zauden,
burdinaz eta miseriaz loturik,

¹¹ Jainkoaren manamenduen kontra baitziren altxatu
eta Goi-goikoaren xedea mespretxatu.

¹² Sofrikarioan umilarazi zituen,
lur jo zuten, eta laguntzailerik ez.

¹³ *Bainan larrialdian Jaunari oihu egin
eta hersturatik salbatu zituen.*

¹⁴ Ilunperik beltzenetik atera zituen
eta heien lokarriak hautsi.

¹⁵ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizasemeen alde egiten dituen
gauza harrigarriengatik.*

¹⁶ Brontzezko ateak baititu hautsi,
burdinazko morroiloak erauzi.

¹⁷ Beren jokaera tzarrarengatik zauden ahuldurik,
beren hobenengatik zirtzildurik.

¹⁸ Janari guzien okaztan,
heriotzearen atarian.

¹⁹ *Bainan larrialdian Jaunari oihu egin
eta hersturatik salbatu zituen.*

²⁰ Bere hitza igorri zioten sendagarri
eta hondamenditik atera.

²¹ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizasemeen alde egiten dituen
gauza harrigarriengatik.*

²² Eskaint dezaztela gorespen-opariak
eta poz-oihuz konda haren egintzak.

²³ Ontzietan itsasoratu zirenek,
ogibidea ur handietan zutenek

²⁴ ikusi zituzten Jaunaren egintzak,
itsaso zabalean haren egintza harrigarriak.

²⁵ Haren erranera, haizea jauzi zen,

SALMOAK

eta uhain handiak altxatu.

²⁶ Zeruatarat goiti, leizerat beheiti ibili ziren,
eri, hiltzerainokoan,

²⁷ itzulika eta balantzaka, mozkorrak bezala,
beren trebetasun guzia alferrik zutela.

²⁸ *Bainan larrialdian Jaunari oihu egin
eta hersturatik atera zituen.*

²⁹ Ekaitza haize gozo bilakatu zuen
eta uhainak ixildu ziren.

³⁰ Poztu ziren uren jabaltzeaz,
eta beren gogoko porturat ereman zituen Jainkoak.

³¹ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizasemeen alde egiten dituen
gauza harrigarriengatik.*

³² Goraipa bezate herri-batzarrean,
gorets zaharren kontseiluan.

³³ Basamortu bilakatzen ditu ibaiak,
lur idor iturburuak,

³⁴ gatzaga lur gizenak,
tokiko jendearen gaixtakeriagatik.

³⁵ Basamortua, berriz, urtegi bilakatzen du
eta lur idorra iturburu.

³⁶ Gose direnak han biziartzten ditu,
eta bizitzeko hiriak eraikitzen dituzte,

³⁷ alorretan ereiten, mahastiak landatzen
eta uztak biltzen.

³⁸ Jainkoak benedikatzten ditu,
gero eta ugaltzenago dira,
heien abere-saldoak ez ditu uzten hurritzera.

³⁹ Zapalkuntzak, ezbehar eta atsegabeak
zauzkaten gutiturik eta apaldurik.

⁴⁰ Jainkoak mespretxua hedatzen du handikien gainera,
errebeltzen ditu biderik gabeko basamortuan;

⁴¹ bainan behartsuak miseriatik ditu altxatzen,
heien familiak artaldeak bezala ugaltzen.

⁴² Gauza hauek ikustean, zuzenak bozkariatzen dira, gaixtoak, berriz, mutu gelditzen.

⁴³ Zuhurrak har bitza hauek guziak gogoan eta konpreni beza ona dela Jauna.

108. (107.) SALMOA

Gorespen-kanta. Laguntza-eskea

¹ *Kanta. Daviden salmoa.*

² Lasaitua²¹⁸ naiz, ene Jainko, kantatuko eta soinua joko dauzut; iratzar zaite, ene bihotza!

³ Iratzar, harpa eta zitara; iratzar dezatan goiz-argia.

⁴ Herrien artean, Jauna, zaitut goretsiko, nazioneen artean kantatuko.

⁵ Bai, zerurainokoa zure maitasuna, hodeietarainokoa zure leialtasuna.

⁶ Xuti zaite, ene Jainko, zeruez goiti! Zure aintza izan bedi lur osoan nagusi!

⁷ Emaguzu garaipena zeure ahalaz, eta entzun, zeure maite-maiteak libra ditzazun.

⁸ Jainkoak²¹⁹ bere saindutegitik erran du: «Hau poza, Sikem hiria dut banatuko, Sukot harana neurtuko.

⁹ Neurea dut Galaad, neurea Manases, neure kaska dut Efraim, neure buruzagi-makila Juda,

¹⁰ ikuzteko ontzia Moab; oina ezartzen diot gainean Edomi, garaipen-oihu egiten Filisteari».

¹¹ Nork eremanen nau hiri gotorturat,

²¹⁸ **108,2** *Lasaitua*: 2-6 zatiak 57, 8-12a errepikatzen du kasik h.h.

²¹⁹ **108,8** *Jainkoak*: 7-14 zatia 60,7-14aren berdina da; ik. hango oh.ak.

SALMOAK

nork gidatuko Edomerat,

¹² ez ote zuk, arbuiatu gaituzun Jainkoak,
gure armadarekin gehiago joaiten ez zirenak?

¹³ Emaguzu laguntza etsaien kontra,
giza laguntza alferretakoa baita.

¹⁴ Jainkoarekin guk eginen ditugu gauza handiak,
harek zangopilatuko ditu gure etsaiak.

109. (108.) SALMOA

Salatzaileen eta juje maltzuraren kontra.

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

Ene gorespenetako Jainko, ez egon mutu,

² aho gaixtoa ideki baitute nere kontra,
gezurrez pertsegitzen naute,

mihi gezurtiz mintzo zaizkit;

³ herra hitzez naute inguratzen,
arrazoinik gabe erasotzen.

⁴ Neure maitasunaren ordain, salatzen naute,
eta nik, heien alde otoitz egiten.

⁵ Ongiaren ordain heiek eni gaizkia,
maitasunaren ordain herra.

⁶ Izenda²²⁰ zazu gaixto bat haren kontra,
bego salatzailea haren ondoan.

⁷ Kondenatua izan bedi auzian,
haren otoitza bekatutzat hartua.

⁸ Labur bite haren egunak,
har beza beste batek haren kargua.

⁹ Izan bite umezurtz haren haurrak,
alarguntsa haren emaztea.

¹⁰ Ibil bite haren haurrak harat-hunat eskale,
haizatuak beren etxe hondatuetarik²²¹.

²²⁰ **109,6** *Izenda*: Iduri du 6-19 zatian salmogileak 2-3ko etsaiek beraren kontra egiten dituzten salaketak eta botatzen dituzten madarizioneak biltzen dituela. 20. ber.ean salatzaileen kontra itzultzen ditu madarizione horiek. Pentsa daiteke ere, etsaien salaketak onartu eta heiekin bat egin duen epailearen kontra zuzendua dela 6-19 zatia.

²²¹ **109,10** Bigarren lerroko testua iluna da.

SALMOAK

- ¹¹ Ken bezo hartzedunak bere ontasuna,
bere irabaziak arrotzek harrapa.
- ¹² Ez bekio nehor maitasunez hurbil,
ez haren umezurtzak urrikari izan.
- ¹³ Suntsituak izan bite haren ondokoak,
gizaldi bakar haren izena galdua.
- ¹⁴ Oroit bedi Jauna haren arbasoen hobenez,
ez beza ken amaren bekatua:
- ¹⁵ izan bitza beti Jaunak begien aitzinean
eta suntsi beza lurretik heien oroitzapena!
- ¹⁶ Zeren, ez da maitasunez jokatzera entseatu,
dohakabea eta behartsua zapaldu
eta bihotz-eroria hil nahi ukan ditu.
- ¹⁷ Madarizionea zuen gogoko: eror bekio gainerat!
Benedizionerik ez zuen eman nahi: gabe egon bedi bera!
- ¹⁸ Madarizionea derama soingaineko:
sar bekio barneraino ura bezala,
hezurretaraino olio bezala!
- ¹⁹ Estal beza, soinekoak bezala,
lot beza betiko, gerrikoak bezala!
- ²⁰ Hori izan bedi Jaunarenganiko zigorra nere salatzaileentzat,
gaizki-erranka ari zaizkitanentzat.
- ²¹ Bainan zuk, ene Jainko Jauna,
zerbait egizu nere alde zure izenagatik,
zirena zirelakotz²²², guziz ona,
libra nezazu.
- ²² Dohakabea naiz eta behartsua,
bihotza neure baitan daukat urratua.
- ²³ Banoa, arratseko itzalaren pare,
ottea bezala haizatzen naute.
- ²⁴ Baruraren baruraz, zangoak kordoka ditut,
gorputza mehats eta eihar.
- ²⁵ Laido-gai bilakatu nitzaiote,
ni ikustean, burua higika ari dira.
- ²⁶ Lagun nezazu, Jauna, ene Jainkoa!
Salba nezazu, maitekorra baitzira!
- ²⁷ Jakin bezate zure eskua dela,

²²² **109,21** *zirena zirelakotz*: Ik. 25,11 oh.

SALMOAK

zu, Jauna, nere alde zirela.

²⁸ Madarika nezatela: zuk benedika nezazu;
ahalgea nere kontrakoeri,
bozkarioa zeure zerbitzari huni.

²⁹ Estal bite laidoz nere salatzaileak,
bil bitza ahalge gorriak soingainekoak bezala!

³⁰ Aho beteka emanen diozkat eskerrak Jaunari,
jendetzearen erdian dut goretsiko,

³¹ behartsuaren eskuin aldean baitago,
kondenatu nahi zutenen eskutik salbatzeko.

110. (109.) SALMOA

Jaunak erregea ezarri

¹ *Daviden salmoa*²²³.

Jaunak ene jaunari dio erran:

«Jar zaite nere eskuin aldean,
etsaiak oin-alki ezarriko dauzkizutan artean».

² Siondik zure errege indarra zabalduko du Jaunak:
menperazkizu inguruko etsaiak!

³ Zu nagusi garaipen-egunean;
Saindua agertzean, hura izanen duzu indar-emaile,
hura goiz-argi eta gaztetasun-ihintz²²⁴.

⁴ Zin egina du Jaunak eta ez zaio damutuko:

«Apez zira zu betiko,
Melkisedeken iduriko²²⁵».

⁵ Jauna zeure eskuin aldean daukazu:

bere haserre-egunean erregeak ditu suntsitu.

⁶ Nazioeen kontra epaia eman du:
hilak metatu, buruak lur zabalean kraskatu.

²²³ **110,1** Salmo hau T.B.an aipatuena da. Testua ez da batere argia. // *jaun* hori erregea da.

²²⁴ **110,3** Ber.eko testua biziki iluna da eta itzulpena zalantzazkoa.

²²⁵ **110,4** *Apez...* *iduriko*: Hebrearezkoan den *malki-tzedek*: *legezko nere errege*, grekozkoak izen bezala interpretatu du: Melkisedek (ik. Heb 5-7 eta 5, 6 oh.)

⁷ Bidean doala, errekatik edaten du;
horrengatik burua du altxatu.

111. (110.) SALMOA

Bere egintzetan handi den Jaunari gorespen-kanta

¹ Alleluia!²²⁶

Bihotz-bihotzez goretsiko dut Jauna,
batzarrean zuzenekin elkaturik.

² Handiak dira Jaunak eginak,
gogoko dituzten guziek hausnartuak.

³ Haren egintzek ospez eta ederrez distiratzen,
haren zuzentasunak betikotz irauten.

⁴ Bere egintza harrigarriak eman dauzkigu gogoratzera:
urrikalkor da Jauna eta bihozbera.

⁵ Haren errespetua duteneri janaria²²⁷ emaiten diote;
bere elkargoaz oroit da betiko.

⁶ Bere egintzetan ahala agertu dio herriari,
beste nazioeen lurraldeak emanez hari.

⁷ Haren egintzak leial eta zintzoak,
haren legeak fidagarriak,

⁸ beti-betiko ezarriak,
leialtasun eta zuzentasunez burutuak.

⁹ Bere herriari askatasuna eman dio,
heiekin elkargoa finkatu du betiko.
Haren izena saindua eta beldurgarria!

¹⁰ Jaunarenganako errespetua da zuhurtziaren oinarria:
zuhurrak hunen arabera jokatzen dutenak²²⁸.
betiko dirau Jaunaren gorespenak.

²²⁶ **111,1** Salmo alfabetikoa da; ik. 9,1 oh.

²²⁷ **111,5** *janaria*: Jatorrizkoak *harrapakin* hitza erabiltzen du, alfabetismoak galdeginik.

²²⁸ **111,10** *hunen arabera jokatzen dutenak*: Edo *heiek* (legeak; ik. 7. ber.) *begiratzen dituztenak*.

112. (111.) SALMOA

Zintzo eta ongile denaren zorientasuna

¹ Alleluia!²²⁹

Dohatsua Jaunaren errespetua duena
eta haren manamenduak atsegin dituena.

² Ahaltsua izanen da lurraldean haren askazia,
benedikatua zuzenaren ondoregoa.

³ Ugari haren etxean ontasunak,
betiko dirau haren eskuzabaltasunak.

⁴ Ilunpean argia bezala jauzten da zuzenentzat:
Jainkoa urrikalkorra da, bihozbera eta zintzoa²³⁰.

⁵ Dohatsua urrikalduz laguntzen dakiena,
bere egitekoak zuzen deramatzana.

⁶ Zintzoa ez da nehoiz kordokatuko,
haren oroitzapenak bizirik iraunen betiko.

⁷ Ez du berri txarren beldurrik,
tinko dago, Jauna baitan fidaturik;

⁸ segur bihotza, ez du deuseren beldurrik;
azkenean, etsaien porrota ikusiko du.

⁹ Esku beteka emaiten diote behartsueri,
haren eskuzabaltasunak iraunen beti:
ohorez altxatuko du kopeta.

¹⁰ Hori ikustearekin, haserre dago gaixtoa,
hortz karrasketan, eroria;
gaixtoen ametsa galduko da.

113. (112.) SALMOA

Behartsuaz urrikaltzen den Jainkoari gorazarrea

¹ Alleluia!²³¹

²²⁹ **112,1** Salmo alfabetikoa da; ik. 9,1 oh.

²³⁰ **112,4** *Jainkoa... zintzoa*: Hunela ere itzul daiteke: *hura* (erran nahi baita, zuzena) *urrikalkorra*, *bihozbera eta zintzoa da*, Jaunaren berezitasunak (ik. 111,4) zintzoari aplikatuz.

SALMOAK

Goretsazue, Jaunaren zerbitzariak,
gorets Jaunaren izena!

² Benedikatua izan bedi Jaunaren izena
orai eta beti!

³ Eguzkiaren sorlekutik sarlekura,
goretsia izan bedi Jaunaren izena!

⁴ Jauna nazione guzien nagusi da,
zeruak baino gorago haren ospea.

⁵ Nor da gure Jainko Jauna bezalakoa?

Gorenean ezarria du tronua,

⁶ bainan gain hartarik du behatzen,

⁷ gizagaixoa errautsetik altxatzen,
behartsua ondarkinetarik ateratzen

⁸ eta handikien artean,

bere herriko nagusien artean, jarrarazten.

⁹ Emazte agorrari haurrak diozka emaiten
eta etxean ama zoriontsu egiten.

Alleluia!

114. (113 A) SALMOA

Jaunaren mirariak basamortuan

¹ Israel²³² atera zenean Egiptotik,

Jakoben ondorea herri basatik,

² Jaunaren saindutegi bilakatu zen Juda,
haren jabego Israel.

³ Hura ikustean, itsasoak²³³ ihes,
gibelerat egin zuen Jordanek,

⁴ marroek bezala jauzi mendiek,

²³¹ **113,1** *113--118 Salmoek Hallel* deitu gorespen-kanta osatzen zuten. Toki berezia zuen Israelgo besta nagusietan, Bazkoz bereziki (ik. Mk 14,26 oh.).

²³² **114,1** *114--115 Salmoek* bat bakarra (113.A) osatzen dute lehengo grekozko eta latinezko itzulpenetan.

²³³ **114,3** *Hura ikustean*: Jatorrizkoak *ikustean* bakarrik dio; beraz, *Jainkoa* edo *herria* izan daiteke. // *itsasoa*: Itsaso Gorria edo Itsaso Hila, salmoak Kanaan sartzea ospatzen baitu.

SALMOAK

bildotsek bezala mendixkek.

⁵ Zer zinuen, itsaso, iheska,
eta zuk, Jordan, gibelka?

⁶ Zer zinuten jauzika, mendiek, marroak bezala,
eta zuek, mendixkek, bildotsak bezala?

⁷ Bozkaria zaite, oi lur, Jaunaren aitzinean,
Jakoben Jainkoaren aitzinean!

⁸ Harroka bilakatu zuen urtegi,
suharria iturri.

115. (113 B) SALMOA

Egiazko Jainko bakarrari benedizione-eskea

¹ Ez guri, Jauna, ez guri,
emazu ospe zeure izenari,
zeure maitasun eta leialtasunagatik!

² Zergatik erran behar dute nazioeek:
«Non dute Jainkoa?» »

³ Gure Jainkoa zeruan dago
eta nahi duen guzia egiten du.

⁴ Heien sasiainkoak, berriz, zilar eta urre,
jendearen eskulan dituzte.

⁵ Ahoa bai, eta ez dira mintzatzan;
begiak bai, eta ez ikusten;

⁶ beharriak bai, eta ez entzuten;
sudurra bai, eta ez usaintzen;

⁷ eskuak bai, eta ez hunkitzen;
oinak bai, eta ez ibiltzen;

zintzurretik hotsik ez ateratzen.

⁸ Heien iduriko bilaka bite beren egileak
eta heieri fidatzen direnak!

⁹ Israeldarrak, Jaunari fida zaitezte:
laguntzaile eta geriza, hura duzue!

¹⁰ Aarondarrak, Jaunari fida zaitezte:
laguntzaile eta geriza hura duzue!

SALMOAK

¹¹ Jaunaren errespetua duzuenak, Jaunari fida zaitezte:
laguntzaile eta geriza hura duzue!

¹² Gutaz oroitzen da Jauna, benedika gaitzala:
benedika ditzala israeldarrak, benedika aarondarrak,

¹³ benedika haren errespetua dutenak,
ttipiak eta handiak.

¹⁴ Ugal zaitzatela Jaunak,
zuek eta zuen seme-alabak.

¹⁵ Benedika zaitzatela Jaunak,
zeru-lurren egileak.

¹⁶ Zerua Jaunaren zerua da;
lurra, berriz, jendearen esku utzi du.

¹⁷ Ez dute Jauna goresten hilek,
ez eta herio-ixilpera²³⁴ jautsi direnek.

¹⁸ Guk dugu Jauna goresten,
orai eta beti.

Alleluia!

116. (114-115.) SALMOA

Esker onezko kanta heriotz-hirriskuaren ondotik

¹ Maite dut Jauna,
entzuten baitu nere galde-oihua;

² bai, itzuli du nereganat beharria
dei egin diotanean.

³ Herio-lokarriek inguratu ninduten,
Herioren kateek nindaukaten,
herstura eta larrialdian,

⁴ bainan Jaunari dei egin nion:
«Otoi, Jauna, libra nezazu!»

⁵ Bihozbera da Jauna eta zintzoa,
urrikaltzen da gure Jainkoa.

⁶ Jaunak zaintzen ditu xumeak:

²³⁴ 115,17 *herio-ixilpe*: Hilen tokia adiarazteko izen poetikoa (ik. 88,11 oh. eta 94,17).

SALMOAK

lur jorik nindagon eta salbatu nau.

⁷ Itzul zeure bakerat, ene arima,
ona izan baita zurekin Jauna.

⁸ Bai, libratu daut bizia heriotzetik,
begiak nigarretik, oinak erortzetik.

⁹ Ibiliko naiz Jaunaren aitzinean,
bizien lurraldean.

¹⁰ Azkar²³⁵ nindagon fedean, erranik ere:
«Dohakabea naiz!».

¹¹ Kinka larrian erraiten nuen:
«Jende oro gezurtia da! »

¹² Nola ordainduko diot Jaunari
egin dautan ongi guzia?

¹³ Salbamen-kopa altxatuko dut,
Jaunari dei egingen diot.

¹⁴ Beteko diozkat Jaunari botuak,
bere herri osoaren aitzinean.

¹⁵ Mingarri zaio Jaunari
bere fededunen heriotzea.

¹⁶ Bai, zure zerbitzaria naiz, Jauna,
zure zerbitzaria, zure neskatoaren semea;
askatu dituzu nere lokarriak!

¹⁷ Gorespen-oparia eskainiko dauzut, Jauna,
eta zure izenari dei egingen.

¹⁸ Beteko diozkat Jaunari botuak,
bere herri osoaren aitzinean,

¹⁹ Jaunaren etxeko atarietan,
Jerusalem, zure erdian.

Alleluia!

117.(116.) SALMOA

²³⁵ 116,10 10. ber. arekin hasten da 115. salmoa grekozko eta latinezko itzulpenetan.

Jauna goresteko deia

¹ Goretsazue Jauna, nazione guziek,
ospa zazue, herri guziek!

² Sendoa da guretzat haren maitasuna,
beti-betikoa Jaunaren leialtasuna.

Alleluia!

118. (117.) SALMOA

Garaipena ospatuz, eskerrak Jaunari

¹ Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betierekoa baita.

² Israeldarrek erran bezate:
«Haren maitasuna betierekoa».

³ Aarondarrek erran bezate:
«Haren maitasuna betierekoa».

⁴ Jaunaren errespetua dutenek erran bezate:
«Haren maitasuna betierekoa».

⁵ Atsegabeen dei egin nion Jaunari,
eta entzun ninduen, lasai ezarri.

⁶ Jauna nere alde, ez naiz beldur:
zer egin diezadake jendeak?

⁷ Jauna nere alde, nere sendogarri:
etsaien porrota ikusten dut.

⁸ Hobe da Jauna baitan gerizatzea
jendeari fidatzea baino.

⁹ Hobe da Jauna baitan gerizatzea
handikieri fidatzea baino.

¹⁰ Nazioneek inguratu ninduten:
Jaunari esker suntsitu nituen²³⁶.

¹¹ Inguratu ninduten, inguratu:
Jaunari esker suntsitu nituen.

²³⁶ 118,10 *suntsitu nituen*: Hebrearezkoak *ebakiarazi nituen* dio (ik. 1 Sm 18,25-27).

SALMOAK

¹² Inguratu ninduten leizorrek bezala,
sua sasia zartaka bezala:

Jaunari esker suntsitu nituen.

¹³ Gogor bultzatu ninduten²³⁷ aurtikitzeko,
bainan Jaunak lagundu ninduen.

¹⁴ Nere indar eta kantua Jauna!

Hura nere salbamena.

¹⁵ Poz eta garaipen-oihuak zintzoen etxoletan:

«Handiak egin ditu Jaunaren eskuinak,

¹⁶ Jaunaren eskuina altxatu da,
handiak egin ditu Jaunaren eskuinak».

¹⁷ Ez, ez naiz hilen, biziko naiz,

Jaunaren egintzen kondatzeko.

¹⁸ Bai, gogor zigortu nau Jaunak,

bainan ez heriotzerat ereman.

¹⁹ Zabal neri zuzenak direnen atearak,

Jaunaren gorestera sar nadin.

²⁰ Huna Jaunaren atea²³⁸:

hortik sartzen dira zuzenak!

²¹ Eskerrak zuri, Jauna, entzun bainauzu,

nere salbatzaile izan baitzira zu.

²² Etxegileek arbuiatu harria
giltzarri bilakatu da.

²³ Jaunak egin du hori,

gure begien miresgarri.

²⁴ Hau da Jaunak egin eguna:

alai gaitezen eta bozkaria!

²⁵ Otoi, Jauna, eman salbamena!

Otoi, Jauna, eman arrakasta!

²⁶ Benedikatua Jaunaren izenean datorrena!

²³⁷ **118,13** *bultzatu ninduten*: Lehengo itzulpenen arabera; hebrearezkoak *zuk bultzatu ninduzun* dio.

²³⁸ **118,20** *Jaunaren atea*: Segurenik, tenpluko sarrera aipatzen da.

Jaunaren etxetik benedikatzen zaitugu.

²⁷ Argi egin dauku Jainko den Jaunak.
Zoazte elkarrekin²³⁹, hostailak eskuetan,
aldarearen adarretaraino.

²⁸ Zu nere Jainko, eskerrak zuri!

Ene Jainko, gora zu!

²⁹ Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.

119. (118.) SALMOA

Legea, dohain zoragarria.

1

¹ Dohatsuak²⁴⁰ zintzoki jokatzen dutenak,
Jaunaren legean dabiltzanak!

² Dohatsuak, haren manuak betez,
bihotz-bihotzez hura bilatzen dutenak,

³ gaizkirik egin gabe,
haren bideetan dabiltzanak!

⁴ Jauna, zeure legeak ezarri dituzu,
artaz bete ditzagun.

⁵ Daudela nere urratsak tinko,
zure arauen begiratzeko.

⁶ Orduan, ez naiz ahalgetuko,
zure manamendu guziera so.

⁷ Bihotz zintzoz goretsiko zaitut,
zure erabaki zuzenak ikasirik.

⁸ Zure arauak nahi ditut begiratu:
ez nezazula nehoiz neure ber utz!

2

²³⁹ **118,27** *Zoazte elkarrekin*: Jatorrizkoaren hitzaren erran-nahia ez da argia.

²⁴⁰ **119,1** Salmo luze hau alfabetikoa da; 22 estrofa baditu, hebrearezko alfabetoak dituen bezainbat letra, eta estrofa bakoitzeko zortzi lerroak letra berberaz hasten dira. Legearen gorai-pamen eta legeri buruzko hausnarketa den salmo huntan sinonimo asko erabiltzen da, bertsoz bertso errepikatzen direnak: *lege, manu, arau, manamendu, erabaki, hitz, botu, hitzeman, irakaspén...*

SALMOAK

⁹ Nola egon daiteke gaztea bide zuzenean?

Zure hitza begiratu.

¹⁰ Bihotz-bihotzez bilatzen zaitut:

ez nezazula utz zure manamenduetarik urruntzera.

¹¹ Gogoan atxikitzen dut zuk hitzema,

zure kontra bekatu ez egiteko.

¹² Benedikatua zu, Jauna!

Irakats neri zure arauak.

¹³ Neure ahotsez iragartzen ditut

zuk eman erabaki guziak.

¹⁴ Zure manueri jarrakitzea neretzat pozgarriago

aberastasun guziak baino.

¹⁵ Zure legeak nahi ditut hausnartu,

zure bideak begien aitzinean eduki.

¹⁶ Zure Legea dut gozamen:

zure hitzak ez ditut ahanzten.

3

¹⁷ Egiozu ongi zeure zerbitzari huni: bizi nadin
eta zure hitza begira dezadan.

¹⁸ Idek nere begiak, ikus ahal ditzadan
zure Legearen dohain harrigarriak.

¹⁹ Arrotza naiz herrian:

ez gorde neri zeure manamenduak!

²⁰ Ahiturik ditut barne-indarrak,
zure erabakien geldigabeko gutiziaz.

²¹ Mehatxatzen dituzu urguluntzi madarikatuak,
zure manamenduetarik urrun galtzen direnak!

²² Urrunt nereganik laidoa eta mespretxua,
begiratzen baititut zure manuak.

²³ Nahiz eta handikiak diren nere kontra hitzartzen,
zure zerbitzari hunek zure arauak ditu hausnartzen.

²⁴ Bai gozo zaizkit zure manuak,
kontseilari zure legeak!

4

SALMOAK

- ²⁵ Lur jorik nago, errautsean,
biziberri nezazu, hitzeman duzunaren arabera!
- ²⁶ Neure joan-jinen berri eman dauzut, eta ihardetsi dautazu:
irakats neri zeure arauak!
- ²⁷ Konpreniaraz neri zeure legeen bidea,
eta zure dohain harrigarriak hausnartuko ditut.
- ²⁸ Nigarrez ari naiz bihozminez:
altxa nezazu, zuk hitzemanaren arabera!
- ²⁹ Bazter nereganik gezur-bidea,
eta emadazu dohain zeure Legea.
- ³⁰ Leialtasunaren bidea hautatu dut,
zure erabakien egarri naiz.
- ³¹ Zure manueri atxikia naiz:
Jauna, ez nezazula utz ahalgegarri!
- ³² Zure manamenduen bidetik lasterka noa,
bihotza zabaltzen baitautazu.

5

- ³³ Zeure arauen bidea erakuts neri,
hari jarrakitzea izanen dut sari²⁴¹.
- ³⁴ Konpreniaraz iezadazu zeure Legea, eta begiratuko dut,
bihotz-bihotzez beteko.
- ³⁵ Gida nezazu zeure manamenduen bidetik,
ez dut nik beste atseginik.
- ³⁶ Itzul nere gogoa zeure manuetarat
eta ez irabazietarat.
- ³⁷ Urrunt nere begiak ameskerietarik,
zuk nahi bezala bizi nadin.
- ³⁸ Bete zazu zerbitzari huni eman diozun hitza,
zure errespetua dutenentzat egina.
- ³⁹ Bazter nereganik izitzen nauen iraina;
zure erabakiak bakarrik dira onak!
- ⁴⁰ Ikus nola ditutan zure legeak gutiziatzen:
zuzena zira, biziberri nezazu!

6

²⁴¹ **119,33** *hari... sari*: Hunela ere itzul daiteke: *azkeneraino* (edo *zehatz-mehatz*) *jarraikiko nitzaio*.

SALMOAK

- ⁴¹ Zure onginahia, Jauna, neregana dadila,
zure salbamendua, hitzeman duzun bezala.
- ⁴² Ukanen dut orduan laido egileari zer ihardets,
zure hitzari fidatzen bainaiz.
- ⁴³ Nere hitza hitz izan dadila,
zure erabakietan baitut esperantza.
- ⁴⁴ Geldigabe zure legea begiratuko dut,
beti eta beti.
- ⁴⁵ Bide zabalean ibiliko naiz,
zure legeen ondotik.
- ⁴⁶ Zure manuez erregeen aitzinean
mintzatuko naiz ahalgerik gabe.
- ⁴⁷ Zure manamenduetan gozatuko naiz,
maite baititut.
- ⁴⁸ Zure manamendueri buruz ditut eskuak altxatuko,
zure arauak hausnartuko.

7

- ⁴⁹ Oroit zaite zeure zerbitzari huni eman hitzaz:
hori egin duzu nere esperantza.
- ⁵⁰ Hori dut atsegin nere atsegabean,
zuk hitzemanak bizi nau.
- ⁵¹ Urguluntziek bainaute ere gogorki trufatzen,
ni ez naiz zure Legetik urruntzen.
- ⁵² Lehengo zure erabakiez oroitzean,
kotsolatzen naiz, Jauna.
- ⁵³ Haserre-sutan jartzen naiz gaixtoengatik,
zure Legea bazter uzten dutenengatik.
- ⁵⁴ Zure arauak kantugai ditut
erbestealdi huntan.
- ⁵⁵ Gauaz, zure izena dut gogoan, Jauna,
zure Legea begiratu nahi baitut.
- ⁵⁶ Huna neri dagokitana:
zure legeak begiratzea.

8

SALMOAK

- ⁵⁷ Jauna, ene ontasun bakarra,
zure hitzen begiratzea da²⁴².
- ⁵⁸ Bihotz-bihotzez bilatzen dut zuri atsegín emaita:
urrikal zaite nitaz, hitzemaña duzu!
- ⁵⁹ Gogoan erabili dut neure jokabidea,
eta neure urratsak zure manuetarat nahi ditut bideratu.
- ⁶⁰ Gogotik lehiatzen naiz, berandu gabe,
zure manamenduen begiratzera.
- ⁶¹ Gaixtoek sokaz inguratu naute,
bainan ez dut zure Legea ahantzi.
- ⁶² Gauerditan jeikitzen naiz zure goresteko,
zure erabakiak zuzenak direlako.
- ⁶³ Zure errespetua duten guzien lagun naiz,
zure legeak begiratzen dituztenen lagun.
- ⁶⁴ Jauna, zure maitasunak mundua betetzen du!
Irakats neri zeure arauak!

9

- ⁶⁵ Ongia egin diozu zeure zerbitzari huni,
Jauna, hitzemaña duzunaren arabera!
- ⁶⁶ Irakats neri zentzu ona eta jakintza,
zure manamendueri fidatzen bainaiz.
- ⁶⁷ Atsegabea jasan aitzin, galdurik nindabilen;
orai, zuk errana dut begiratzen.
- ⁶⁸ Ona zira eta ongilea:
irakats neri zeure arauak!
- ⁶⁹ Gezurrez estaltzen naute urguluntziek;
nik bihotz-bihotzez betetzen ditut zure legeak.
- ⁷⁰ Gantzan itoa bezala dute gogoa;
zure Legea da nere gozoa.
- ⁷¹ Neure onetan dut atsegabea jasan,
zure arauak ikas ditzatan.
- ⁷² Zure ahotik atera Legea neretzat baliosago,
urre eta zilarrezko milaka pieza baino!

10

²⁴² **119,57** Jauna... da: Hunela ere itzul daiteke: *Nere zoria, Jauna --erraiten dut-- , zure hitzen betetzea da.*

SALMOAK

- ⁷³ Zure eskuek egin ninduten eta finkatu:
emadazu adimena, zure manamenduen ikasteko.
- ⁷⁴ Poztuko dira, ni ikusiz, zure errespetua dutenak,
zure hitzean ezarria dutalaketz esperantza.
- ⁷⁵ Badakit, Jauna, zure erabakiak zuzenak direla,
leiala zirelaketz atsegabetu nauzula.
- ⁷⁶ Otoi, kontsola nezazu zeure maitasunaz,
zeure zerbitzari huni hitzeman diozunaz.
- ⁷⁷ Zatozkit urrikalkor, biziberri nezazun,
zure Legea baitut gozamen!
- ⁷⁸ Ahalgea urguluntzieren, gezurrez bainaute lehertzen;
nik zure legeak ditut hausnartzen.
- ⁷⁹ Neregana daitezela zure errespetua dutenak,
ezagut ahal ditzaten zure manuak.
- ⁸⁰ Egon bedi nere bihotza zure araueri osoki emana;
ahalgerik ukan ez dezatan.

11

- ⁸¹ Xifriturik nago zure salbamenduaren beha,
zure hitzean dut esperantza;
- ⁸² begiak erreak ditut zuk hitzemanaren beha:
noiz kontsolatuko nauzu?
- ⁸³ Zahagi zahar zimurra bezala²⁴³ nago;
ez ditut, ordea, zure arauak ahanzten.
- ⁸⁴ Zenbat egunez bizi naiteke oraino?
Noiz zigortuko dituzu zapaltzen nautenak?
- ⁸⁵ Urguluntziek ziloak egin dauzkidate bidean,
zure Legearen mespretxuan.
- ⁸⁶ Fidagarriak dira zure manamendu guziak;
maltzurkeriaz zapaltzen naute: zatozkit laguntzera!
- ⁸⁷ Xahutzer ninduten lurretik;
bainan nik ez nituen zure legeak bazter utzi.
- ⁸⁸ Biziaraz nezazu zeure maitasunaz!
Begiratuko dut zuk eman manua.

12

²⁴³ **119,83** *Zahagi zimurra bezala*: H.h., *Zahagi keztatua bezala*.

SALMOAK

- ⁸⁹ Zure hitza, Jauna, betierekoa,
zerua baino iraunkorragoa!²⁴⁴
- ⁹⁰ Zure leialtasuna menderen mendetako,
finkatu duzun lurra baino sendoagoa!
- ⁹¹ Gaurdaino dirau orok zure erabakiz,
menpeko baitituzu gauza guziak.
- ⁹² Zure Legea izan ez banu atsegin,
nereak egina ukanen zuen atsegabez.
- ⁹³ Ez ditut, ez, zure legeak sekula ahantziren,
horien bidez bainauzu biziarazten.
- ⁹⁴ Zeurea nauzu: salba nezazu,
zure legeen ondotik bainabil!
- ⁹⁵ Gaixtoak barrandan daude ni galtzeko,
bainan ni zure manuetarat erne nago.
- ⁹⁶ gauzarik bikainenak ere badu bere muga,
zure manamendua ezin zabalagoa.

13

- ⁹⁷ Zein maite dutan zure legea!
Hura dut hausnargai egun osoan.
- ⁹⁸ Etsaiak baino zuhurrago egiten nau zure manamenduak,
neurekin baitut aldioro.
- ⁹⁹ Nere irakasle guziak baino argiago naiz,
zure manuak hausnartzen ditutalakotz.
- ¹⁰⁰ Zaharrak baino trebeago naiz konprenitzeko,
zure legeak begiratzten ditutalakotz.
- ¹⁰¹ Ez naiz abiatzen neholako bide tzarretik,
zure hitza begiratzeagatik.
- ¹⁰² Ez naiz zure erabakietarik urruntzen,
zu izan baitzaitut irakasle.
- ¹⁰³ Zein gozoa zuk hitzeman,
ahoa ezta baino gozoagoa!
- ¹⁰⁴ Zure legeek egiten naute gai konprenitzeko;
horrengatik hastio dut gezurkabide oro.

14

²⁴⁴ **119,89** *zerua baino iraunkorragoa*: Hunela ere itzul daiteke: *tinko dago zeruan*.

SALMOAK

- ¹⁰⁵ Zure hitza kontseilu da nere oinentzat,
argi nere bidearentzat.
- ¹⁰⁶ Zin egin dut, eta hitza hitz atxikiko,
zure erabaki zuzenen begiratzeko.
- ¹⁰⁷ Biziki atsegabeturik nago, Jauna:
geriza nere bizia, hitzeman duzunaren arabera!
- ¹⁰⁸ Onarzkizu, Jauna, nere otoitzak
eta ezagutaraz neri zeure erabakiak.
- ¹⁰⁹ Nere bizia beti hirriskuan izanagatik,
ez dut zure irakaspena ahanzten.
- ¹¹⁰ Gaixtoek artea ezarri dautate;
ni, ordea, ez naiz zure legeetarik urrundu.
- ¹¹¹ Zure manuak dira nere ondare betiko,
heiek dira ene bihotzaren bozkario.
- ¹¹² Zure arauen betetzera emana dut bihotza:
nere sari dira betiko.

15

- ¹¹³ Fede gaixtokoak hastio ditut,
nik zure legea maite dut.
- ¹¹⁴ Zu zaitut ene gordeleku eta geriza,
zure hitza da ene esperantza.
- ¹¹⁵ Urrunt eneganik, gaizkileak,
beteko ditut neure Jainkoaren manamenduak.
- ¹¹⁶ Lagunt nezazu, hitzeman duzun bezala, eta biziko naiz;
ez dakidala neure esperantza huts gerta.
- ¹¹⁷ Emadazu eskua eta salbatuko nauzu,
begien aitzinean ukanen ditut beti zure arauak.
- ¹¹⁸ Mespretxatzen dituzu zure arauetarik urruntzen direnak,
gezur huts baitira horien asmoak.
- ¹¹⁹ Zabortzat dauzkazu munduko gaixto guziak;
horrengatik maite ditut zure manuak.
- ¹²⁰ Zure beldurrez nago ikara,
zure errespetuz dardara.

16

SALMOAK

- ¹²¹ Zuzenbidez eta justiziaz dut jokatu:
ez nezazula utz zapaltzaileen esku.
- ¹²² Segurta bide onean zeure zerbitzari hau,
urguluntziek zapal ez nezaten.
- ¹²³ Erreak ditut begiak zure salbamenduaren beha,
zuk hitzeman justiziaren beha.
- ¹²⁴ Egizu zeure zerbitzari hunekin, zure maitasunaren arabera:
irakats neri zeure arauak!
- ¹²⁵ Zeure zerbitzaria nauzu: emadazu adimena,
zure manuak ezagut ditzadan.
- ¹²⁶ Zerbait egizu, Jauna, ordu da:
hautsi dute zure legea!
- ¹²⁷ Nik, ordea, maite ditut zure manamenduak,
urrerik finena baino maiteago.
- ¹²⁸ Zuzenak iduritzen zaizkit zure manu guziak,
eta hastio dut jokabide maltzur oro.

17

- ¹²⁹ Miresgarriak dira zure manuak!
Horrengatik ditut gogoan atxikitzen.
- ¹³⁰ Ager zeure hitz argigarriak,
egizu xumeek adi ditzaten.
- ¹³¹ Ahoa zabalik nago tirriaz,
zure manamenduen gutizia biziak.
- ¹³² Itzul nereganat eta urrikal zakizkit,
zure izena maite dutenekin ohi duzun bezala.
- ¹³³ Sendo bitza zuk hitzemanak nire urratsak,
ez nezala menpera neholako tzarkeriak.
- ¹³⁴ Aska nezazu zapaltzaileen eskutik
eta begiratuko ditut zure legeak.
- ¹³⁵ Ongi etorri egiozu zeure zerbitzari huni,
irakats zeure arauak eni!
- ¹³⁶ Ene begietako nigarrak erreketan doatzi,
zure Legea begiratzen ez dutenen gatik.

18

- ¹³⁷ Zintzoa zira zu, Jauna,
zuzenak dira zure erabakiak.

SALMOAK

- ¹³⁸ Manu zuzenak ezarri dituzu,
zinez fidagarriak.
- ¹³⁹ Maitasun-garrak nau erretzen,
nere etsaiek zure hitza dutelakotz ahanzten.
- ¹⁴⁰ Ongi egiaztatua da zuk hitzeman,
zure zerbitzari hunek zinez maitatua.
- ¹⁴¹ Ttipia izanik ere eta mespretxatua,
ez ditut zure legeak ahanzten.
- ¹⁴² Zure justizia behin betiko justizia,
zure irakaspena fidagarria.
- ¹⁴³ Atsegabeak eta hersturak joa nagolarik ere,
gozo zaizkit zure manamenduak.
- ¹⁴⁴ Zure manuak, behin betiko, zuzenak:
egizu konpreni ditzatan, eta biziko naiz.

19

- ¹⁴⁵ Bihotz-bihotzez dei egiten dauzut:
ihardets, Jauna, eta zure arauak begiratuko ditut.
- ¹⁴⁶ Dei egiten dauzut: salba nezazu,
eta zure manuak beteko ditut.
- ¹⁴⁷ Eguna argitu baino lehen, oihu egin dauzut laguntza eske:
zuk hitzemanean dut esperantza!
- ¹⁴⁸ Gau-beilan zuregana dauzkat begiak,
zuk hitzemanen hausnartuz.
- ¹⁴⁹ Entzun nere ahotsa zeure maitasunez!
Jauna, biziberri nezazu, erabaki duzun bezala!
- ¹⁵⁰ Zapaltzaile gaixtoak hurbiltzen ari zaizkit,
urrun dira zure Legetik.
- ¹⁵¹ Bainan hurbil zaitut zu, Jauna;
zure manamendu guziak fidagarriak dira.
- ¹⁵² Aspalditik badakit zure manuak
betiko dituzula ezarriak.

20

- ¹⁵³ Begira nere atsegabeari eta libra nezazu,
ez baitut ahantzi zure Legea.
- ¹⁵⁴ Defenda nere auzia eta aska nezazu,

SALMOAK

geriza nere bizia, hitzeman duzunaren arabera!

¹⁵⁵ Urrun dago gaixtoenganik zure salbamera,
zure arauak ez baitituzte bilatzen.

¹⁵⁶ Neurrigabe zira bihozbera, Jauna:
biziberri nezazu, zeure erabakien arabera!

¹⁵⁷ Anitz dira zapaltzen nauten etsaiak;
ez naiz, halere, zure manuetarik baztertzen.

¹⁵⁸ Desleialen ikusteak nau okaztatzen:
ez baitute zuk manatua begiratzen.

¹⁵⁹ Ikus zein maite ditutan zure legeak!
Biziberri nezazu zeure maitasunaz!

¹⁶⁰ Zure hitzaren funtsa, leialtasuna,
betierekoak zure erabaki zuzenak.

21

¹⁶¹ Handikiek arrazoinik gabe naute zapaltzen,
bainan ni zure hitzek bakarrik ikaratzen.

¹⁶² Pozik nago zuk hitzemanagatik,
altxor handia aurkitu duena bezala.

¹⁶³ Hastio eta higuin dut maltzurkeria,
zure legea dut maite.

¹⁶⁴ Egunean zazpi aldiz gorai patzen zaitut,
zure erabaki zuzenengatik.

¹⁶⁵ Bake osoan bizi dira zure legea dutenak maite:
behaztopatzekorik ez dute.

¹⁶⁶ Salbatuko nauzula esperantza dut, Jauna,
eta zure manamenduak betetzen ditut.

¹⁶⁷ Begiratzen ditut zure manuak,
hain ditut maite.

¹⁶⁸ Betetzen ditut zure lege eta manuak:
begien aitzinean dituzu nere ibilbide guziak.

22

¹⁶⁹ Hel bedi zutaraino, Jauna, nere oihua:
argi nezazu hitzeman duzunaren arabera!

¹⁷⁰ Hel dadila zure aitzinerat nere eskaria:
libra nezazu, hitzeman duzunaren arabera!

¹⁷¹ Ixur bezate nere ezpainen zure gorespina,

SALMOAK

zeure arauak irakatsi baitauzkidazu.

¹⁷² Nere ahoak kanta ditzala zure hitzak,
zuzenak baitira zure manamendu guziak.

¹⁷³ Luza eskua ene laguntzeko,
zure legeak baititut hautatu.

¹⁷⁴ Zure salbamenduaren gutizia dut, Jauna,
eta zure Legea da ene gozamina.

¹⁷⁵ Luzaz bizi nadila zure goresteko,
lagunt nezatela zure erabakiek!

¹⁷⁶ Ardi galdua bezala joan-jinka nabil,
bila zazu zeure zerbitzari hau,
ez baititut zure manamenduak ahanzten.

120. (119.) SALMOA

Erasotuaren dei larria

¹ *Beilari-kanta*²⁴⁵.

Larrialdian Jaunari dei egin nion eta harek ihardetsi.

² Jauna, libra nezazu ezpain gezurtietarik,
mihi maltzurretik!

³ Jaunak nola zigortuko zaitu,
mihi maltzur hori?

⁴ Ipuru-ikatz gorietan zorroztu gudari-geziz!

⁵ Zer zorigaitza dutan Mexeken bizitzea,
Kedarko²⁴⁶ oihal-etxoletan egoitea!

⁶ Luzazegi bizi izan naiz hemen
bakea hastio dutenekin!

⁷ Nik bakea baizik ez ahoan;
heiek, berriz, beti borrokan.

²⁴⁵ **120,1** *Beilari-kanta*: H.h., *Igan-kanta*. 120-134 *Salmoek* izenburu hori deramate. Beilariak, bereziki hiru besta nagusietarako (ik. Jal 23,14-17) Jerusalemerat igaitean kantatzen zituztenak dira. Horrengatik, *Beilari-kanta* deitu ditugu.

²⁴⁶ **120,5** *Mexek*: Kaukasoko herrialdea da; *Kedar*, berriz, Arabiako tribu nomada; urruneko lurraldeak adiarazten dituzte, bata hegoaldean eta bestea iparraldean.

121. (120.) SALMOA

Israelen zaintzailea

¹ *Beilari-kanta.*

Begiak altxatzen ditut mendietara,
nondik etorriko zaitan laguntza?

² Jaunarenganik datorkit laguntza,
harek egin ditu zerua eta lurra.

³ Jaunak ez zaitu erortzera utziko,
zure zaintzailea ez dago lo.

⁴ Ez, ez du sekula lorik egiten
Israelen zaintzaileak.

⁵ Jauna duzu zaintzaile, Jauna itzalpe:
aldean duzu beti.

⁶ Ez dauzu kalterik eginen eguzkiak egunaz,
ez ilargiak ere gauaz.

⁷ Jaunak zaitu gaitz orotarik zainduko,
harek zure bizia zainduko.

⁸ Jaunak ditu zure joan-jinak zainduko
oraidanik eta betiko.

122. (121.) SALMOA

Jerusalemi agurra

¹ *Beilari-kanta. Davidena.*

Ene bozkarioa, erran zaitanean:
«Goazen Jaunaren etxerat!»

² Gure oinak gelditzen dira orai
zure ateetan, Jerusalem!

³ Jerusalem, hiri ederra,
den-dena tinko bildua!

SALMOAK

⁴ Horrat igaiten dira leinuak, Jaunaren leinuak,
Israelgo legea baita, Jaunaren izenaren govestea;
⁵ hor jartzen baitira erregeak,
Daviden jauregian, justiziaren egiteko.

⁶ Galdegizue bakea Jerusalemzentzat:
«Lasai bizi bite maite zaituztenak!
⁷ Bakea izan bedi zure harresien barnean,
lasaitasuna zure jauregietan!»

⁸ Neure haurride eta lagunen izenean ere,
hau diot: «Bakea zuretzat!»
⁹ Jaunaren, gure Jainkoaren etxearengatik,
zoriona eskatzen dut zuretzat.

123. (122.) SALMOA

Herri mespretxatuaren deia

¹ *Beilari-kanta.*

Begiak altxatzen ditut zureganat,
zeruan errege ziren horrenganat.

² Nola mutilen begiak nagusien eskuetarat,
nola neskatoaren begiak etxekanderearen eskuetarat,
hala daude gure begiak
Jaunarenganat, gure Jainkoarenganat,
noiz urrikalduko zaikun beha.

³ Urrikal gutaz, Jauna, urrikal!
Aseak gira mespretxuz,
⁴ ase-beteak ozarren trufaz,
harroen mespretxuaz.

124. (123.) SALMOA

Eskerrak hirriskua pasatu ondoan

SALMOAK

¹ *Beilari-kanta.*

Alde ukan ez baginu Jauna
–erran bezate israeldarrek–,
² alde ukan ez baginu Jauna,
etsaiak oldartu zitzaizkigunean,
³ bizirik irentsiko gintuzketen orduan,
hain haserre-suminduak ziren gure kontra;
⁴ urek eremanen gintuzketen,
gaisetik iraganen uholdeak;
⁵ gaisetik iraganen
ur oldartsuak.

⁶ Benedikatua Jauna,
heien hortzen harrapakin egin ez gaituena!
⁷ Xoriak ihiztarien saretik bezala gira libratu:
sarea urratu da eta gu libre gelditu.

⁸ Jauna dugu laguntzailea, zeru-lurren egilea.

125. (124.) SALMOA

Jaunak bereak gaitzetik begiratu

¹ *Beilari-kanta.*

Jaunaren baitan fidantzia dutenak
Sion mendiaren pareko dira:
hau ez da kordoka,
betiko dirau.

² Nola mendiek Jerusalem,
hala du Jaunak bere herria inguratzen,
oraidanik eta betiko.

³ Gaixtoen nagusigoak ez du iraunen
Jaunak zintzoeri eman lurraldean,
zintzoak ere has ez daitezen bidegabekeria egiten.

⁴ Jauna, egiezu ongia zintzoeri,

SALMOAK

eta bihotz zuzenekoeri.

⁵ Bide okerretarat makurtzen direnak, berriz,
haiza bitza Jaunak gaizkileekin batean!

Bakea Israeli!

126. (125.) SALMOA

Jaunak herriaren zoria aldatu

¹ *Beilari-kanta.*

Jaunak Sionen zoria aldatu zuenean²⁴⁷,
ametsetan bezala ginauden.

² Irriz bete zitzaikun ahoa, poz-oihuz ezpainak.

Nazionek ere erraiten zuten:

« Jaunak handizki jokatu du heien alde!»

³ Jaunak handizki jokatu du gure alde
eta pozez ginauden.

⁴ Jaunak aldatu du gure zoria,
erauntsiek basamortua bezala²⁴⁸.

⁵ Nigarretan erein zutenek
bozkariotan dute biltzen!

⁶ Nigarretan joan ziren, hazi-zakua eremanez;
poz-oihuka heldu dira, gari-espalak ekarriz.

127. (126.) SALMOA

Jaunarenganik dator dena

¹ *Beilari-kanta. Salomonena.*

Jaunak ez badu etxea eraikitzen,

²⁴⁷ **126,1** *Sionen zoria aldatu zuenean:* Hunela ere itzul daiteke: *Siongo erbestertuak itzularazi zituenean.*

²⁴⁸ **126,4** *erauntsiek basamortua bezala:* H.h., *erreka-urak Negeven bezala; Negev Judaren* hegoaldeko lurralde idorra da, bat-bateko erauntsiek biziberritzen dutena.

SALMOAK

alferrik ari dira etxegileak.
Jaunak ez badu hiria zaintzen,
alferrik erne daude hirizainak.

² Alferrik duzue goizik jeikitzea eta berant etzatea,
nekearen nekez irabazi ogiaren jatea
Jaunak ogia emaiten diolarik
lo dagon bere adiskideari!²⁴⁹

³ Seme-alabak, horra Jaunak eman ondarea,
sabeleko fruitua, harenganikako saria.

⁴ Gudariaren eskuan geziak bezala,
berdin gaztetako seme-alabak.

⁵ Dohatsua gizona, geziontzia heietaz betea duena!
Ez du ahalgetzekorik
hiriko atean bere etsaiekin auzitan delarik²⁵⁰.

128. (127.) SALMOA

Zintzoaren zoriona

¹ *Beilari-kanta.*

Dohatsua Jaunaren errespetua duena
eta haren bideetarik dabilana!

² Zeure lanetik biziko zira eta zoriontsu izanen,
dena ongi zaizu joanen.

³ Emaztea mahatsondo emankorraren iduriko
izanen da zure etxe-xokoan,
seme-alabak olibondo gazteen iduriko
zure mahai inguruan.

⁴ Horra nola izanen den benedikatua
Jaunaren errespetua duena!

²⁴⁹ 127,2 bere... *Jaunak*: Lehengo itzulpenek hau diote: *Jaunak loa emaiten diote bere adiskideeri.*

²⁵⁰ 127,5 hiriko... *delarik*: Hunela itzuli ohi da: *etsaiekin plazan (h.h., atean) eztabaidatzean;*
atean, erran nahi baita, hiri-sargian, erabakitzen ziren herritarren arteko arazo eta auziak.

SALMOAK

⁵ Benedika zaitzala Jaunak Siondik,
goza zaitezela bizitza osoan Jerusalemen zorionaz,
⁶ ikus ditzazula zeure hurren haurrak!

Bakea Israeli!

129. (128.) SALMOA

Herriaren zapaltzaileen kontra

¹ *Beilari-kanta*

«Zein gaizki erabili nauten gaztedanik
–aitor dezake Israelek–,

² zein gaizki erabili nauten gaztedanik!

Bainan ez dautate gaina hartu.

³ Goldeaz bezala irauli dautate bizkarra,
ildo luzeak marratuz.

⁴ Bainan Jaunak, zuzena baita,
hautsi ditu gaixtoen lokarriak».

⁵ Gibela bite, ahalgeturik,
Sion hastio dutenak!

⁶ Izan bite teilatuko belarraren iduriko!
errotik atera aitzin ihartzen da;

⁷ mozten duenak ez du egiten harekin eskutrarik,
ez eta espal estekatzaileak besatrarik;

⁸ ez diote nehork erraiten, ondotik pasatzean:

« Jaunak benedika zaitzatela!

Jaunaren izenean benedikatzten zaituztegu²⁵¹».

130. (129.) SALMOA

Jaunari barkamendu eske

¹ *Beilari-kanta.*

²⁵¹ **129,8** Zenbait itzultzailek azken lerroa berex emaiten dute; horien arabera, bigarren lerroa bakarrik izanen litaike pasatzen direnek uzta-biltzaileeri zuzendu benedizioea (ik. Rt 2,4).

SALMOAK

Barnarik oihu egiten dauzut, Jauna:

² Entzun, Jauna, nere deia!

Erne daudela zure beharriak nere otoitzari.

³ Hutsen konduak atxikitzen badituzu, Jauna,
oi Jauna, nork iraun dezake?

⁴ Bainan barkatzen duzu
izan dezagun zureganako errespetu.

⁵ Jaunaren beha nago, bihotz-bihotzez beha,
eta haren hitzean dut esperantza.

⁶ Gau-beilaria goiz-argiaren iguriki dago,
ene arima Jaunaren igurikiago.

⁷ Israel, emazu esperantza Jauna baitan,
Jaunarena baita maitasuna, Jaunarena askapen betea.

⁸ Harek askatuko du Israel bere huts guzietarik.

131. (130.) SALMOA

Bakean Jaunaren eskuetan

¹ *Beilari-kanta. Davidena.*

Jauna, ez dut harro bihotza,
ez eta ozar begia;
ez nabil xede handien ondotik,
ez eta gauza miragarrien gibeletik.

² Laño eta ixil nago;
amaren altzoan haurtxoaren iduriko,
haurtxoa bezala nago.

³ Israel, zure esperantza Jauna izan bedi
orai eta beti!

132. (131.) SALMOA

**Davidek Jaunari egoitza hitzeman,
Jaunak Davidi betiko erregegoa**

¹ *Beilari-kanta.*

Jauna, oroit zaite Davidez, oroit haren neke guziez;

² nola zin egin zion Jaunari,
botu Jakoben Jainko indartsuari:

³ «Ez naiz etxean sarturen,
ez ohean etzanen,

⁴ ez dut begirik hetsiko,
ez loak hartzera utziko,

⁵ Jaunari lekua,
Jakoben Jainko indartsuari egoitza aurkitu arte».

⁶ Jaunaren kutxa Efratan omen zen,
eta Jaar aldean²⁵² aurkitu dugu.

⁷ Goazen Jaunaren egoitzarat,
ahuspeka gaitezen haren oin-alkiaren alderat!

⁸ Jeiki, Jauna, zato zeure egonlekurat,
zure indarra dagon kutxarekin!

⁹ Jantz bite zure apezak salbamen-indarrez,
egin bezate poz-oihu zure fededunek.

¹⁰ David zeure zerbitzariaren maitasunagatik,
ez arbuia zuhaurek sagaratu erregea²⁵³!

¹¹ Jaunak Davidi zin egin dio,
janen ez duen hitza eman dio:
«Zure odoleko bat ezarriko dut zure tronuan.

¹² Zure ondokoak, nere elkargoa
eta nik eman legeak begiraten badituzte,
betiko jarriko dira zure tronuan».

¹³ Zeren Jaunak Sion hautatu baitu

²⁵² **132,6** *Jaar aldea, hain segur, Kiriath-Jearim* da, han egon baitzen elkargo-kutxa filistearrek itzuli ondoan (ik. 1 Sm 7,1-2).

²⁵³ **132,10** *zuhaurek sagaratu*: H.h., *zeure gantzutua/mesias*; ik. 2,2 oh.

SALMOAK

eta gogoko izan han bizitzea:

¹⁴ «Hau da ene betiko pausa-lekua,
hemen biziko naiz, gogoko baitut.

¹⁵ «Ausarki emanen diot bizitzekoa,
ogiz aseko ditut behartsuak.

¹⁶ Salbamen-indarrez jantziko ditut apezak
eta poz-oihu egingen dute fededunek.

¹⁷ «Kimu indartsua diot Davidi sorraraziko,
nik sagaratu erregearentzat argi bat²⁵⁴ piztuko.

¹⁸ Haren etsaiak ditut ahalgez estaliko,
haren buruan, aldiz, korona loretuko».

133. (132.) SALMOA

Anaitasunaren kanta

¹ *Beilari-kanta. Davidena.*

Zein eder, zein gozo, haurrideak elkarrekin bizitzea!

² Gantzutzeko oliorik hoberena bezala da,
buruan ixuri eta bizarrari behera,
Aaronen²⁵⁵ bizarrari behera,
soinekoetaraino jausten den usain-gozoko olio bezala,
³ Sion mendirat jausten den,
Hermongo izar-ihintza bezala.

Sionen emaiten du Jaunak benediziona: bizia betiko!

134. (133.) SALMOA

Gaueko gorespenerako deia

²⁵⁴ **132,17** *Kimu indartsua*: H.h., *Adarra*, indarraren irudia. // *argia*: Ondoregoaren bidez luzatzen den (ik. 1 Erg 11,36) eta irauten duen biziaren irudia (ik. Er 13,9; 24,20).

²⁵⁵ **133,2** *Aaron*: Israelgo apezzen arbasoa; haren gantzuketa Lv 8an kondatzen da.

SALMOAK

¹ *Beilari-kanta.*

Benedika zazue Jauna, Jaunaren zerbitzariak,
gaua haren etxean iragaiten duzuen guziek!

² Altxa eskuak saindutegi alde eta benedika Jauna!

³ Benedika zaitzatela Siondik Jaunak, zeru-lurren egileak.²⁵⁶

135. (134.) SALMOA

Goizeko gorazarrea tenpluan

¹ Alleluia!

Goretsazue Jaunaren izena,
goretsazue, Jaunaren zerbitzariak,

² Jaunaren etxean,

gure Jainkoaren etxeko atarietan zaudeztenek.

³ Goretsazue Jauna, ona baita,
kanta haren izena, maitagarria baita.

⁴ Jaunak Jakob hautatu du,
Israel bere jabego berezitzat hartu.

⁵ Badakit, bai, handia dela Jauna,
jainko guziak baino handiagoa gure Jauna.

⁶ Nahi duen guzia egiten du Jaunak
zeruan eta lurrean, itsaso eta osinetan.

⁷ Hodeiak zerumugan gora ditu iganarazten,
erauntsiak ximisten artean leherrarazten,
haizea bere gordelekuetarik jalgiazten.

⁸ Harek jo zituen Egiptoko lehen-sortuak,
jende eta abere.

⁹ Mirariak eta egintza harrigarriak egin zituen Egipto, zure erdian,
faraonaren eta haren funtzionarioen kaltetan.

¹⁰ Herri anitz suntsitu zuen,

²⁵⁶ **134,3** Benedizioe hunek, menturaz apezak beilarieri zuzenduak, *beilari-kanten* saila hesten du (ik. 120,1 oh.).

SALMOAK

errege ahaltzuak hil:

¹¹ Sihon, amortarren erregea, Og baxandarrena eta Kanaango erresuma guziak.

¹² Eta heien lurraldea ondareztat eman zion, ondareztat Israel bere herriari.

¹³ Jauna, zure izenak betiko dirau, Jauna, zure oroitzapenak mendez mende.

¹⁴ Bai, Jaunak bere herria du zaintzen, eta bere zerbitzariak da urrikaltzen.

¹⁵ Zilar eta urre dira nazioeen sasijainkoak, jende eskuz eginak.

¹⁶ Ahoa badute, bainan ez mintzatzen; begiak, bainan ez ikusten;

¹⁷ beharriak, bainan ez entzuten; hatsik ez dute ahoan.

¹⁸ Heien iduriko bilaka bite heien egileak eta heieri fidatzen direnak!

¹⁹ Israeldarrek, benedika Jauna!

Aarondarrek, benedika Jauna!

²⁰ Levitarrek, benedika Jauna!

Jaunaren errespetua duzuenek, benedika Jauna!

²¹ Benedikatua izan bedi Siongo Jauna, Jerusalem bizi dena!

Alleluia!

136. (135.) SALMOA

Jaunaren maitasuna betikoa da

¹ Eskerrak²⁵⁷ eman Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.

² Eskerrak eman jainkoen Jainkoari,

²⁵⁷ **136,1** Litanian gisako salmo hau *Hallel handia* deitzen zuten juduek, eta Pazkoz kantatzen zuten, *Hallel txikiaren* ondotik (ik. 113,1 oh.). Leloa —*haren maitasuna betikoa baita*— herri osoak abesten zuen (ik. 2 Kro 7,3).

SALMOAK

haren maitasuna betikoa baita.

³ Eskerrak eman jaunen Jaunari,
haren maitasuna betikoa baita.

⁴ Hura bakarrik egintza miresgarrien egile,
haren maitasuna betikoa baita.

⁵ Zuhurtziaz egin du zerua,
haren maitasuna betikoa baita.

⁶ Uren gainean tinko ezarri lurra,
haren maitasuna betikoa baita.

⁷ Argi handiak egin ditu,
haren maitasuna betikoa baita;

⁸ eguzkia, egunaren nagusi,
haren maitasuna betikoa baita;

⁹ ilargia eta izarrak, gauaren nagusi,
haren maitasuna betikoa baita.

¹⁰ Egiptoko lehen-sumeak jo zituen,
haren maitasuna betikoa baita.

¹¹ Israel handik atera zuen,
haren maitasuna betikoa baita;

¹² ahal handiz, esku indartsuz,
haren maitasuna betikoa baita.

¹³ Itsaso Gorria bi zati egin zuen,
haren maitasuna betikoa baita;

¹⁴ eta Israel herria erditik pasarazi,
haren maitasuna betikoa baita;

¹⁵ faraona eta haren armada Itsaso Gorrian amildu zituen,
haren maitasuna betikoa baita.

¹⁶ Basamortuan barna gidatu zuen bere herria,
haren maitasuna betikoa baita.

¹⁷ Errege handiak jo zituen,
haren maitasuna betikoa baita;

¹⁸ errege ospetsuak hil,
haren maitasuna betikoa baita:

¹⁹ Sihon, amortarren erregea,
haren maitasuna betikoa baita;

²⁰ eta Og, Baxango erregea,

haren maitasuna betikoa baita.

²¹ Eta heien lurraldea ondareztat eman zuen,

haren maitasuna betikoa baita;

²² ondareztat eman Israel bere zerbitzariari,

haren maitasuna betikoa baita.

²³ Ginen zapalduz oroitu zen,

haren maitasuna betikoa baita;

²⁴ eta etsaienganik askatu gintuen,

haren maitasuna betikoa baita.

²⁵ Bizidun guzieren janaria emaiten diote,

haren maitasuna betikoa baita.

²⁶ Eskerrak eman zeruko Jainkoari,

haren maitasuna betikoa baita.

137. (136.) SALMOA

Erbestean herri-minez

¹ Babilongo ibai bazterretan
jarririk ginauden nigarretan,
Sion gogoan.

² Ur ondoko sahatsetan
utziak ginituen zitarak dilindan.

³ Eta han, kantu eske ari zitzazkigun
erbestera gintuztenak,
kantu alai eske gure zapatzaileak²⁵⁸:
«Kanta iezaguzue Siongo kantu zenbait».

⁴ Nola kanta Jaunaren kanturik
atzerriko lurraldean?

⁵ Ahanzten bazaitut, Jerusalem,
eihar bekit eskua;

⁶ ahosabaiari lotua geldi bekit mihia,
beti gogoan ez bazaitut,

²⁵⁸ **137,3** *zapaltzaileak*: Testuinguruaren arabera itzulia, hebrearezko hitza ez baita beste nihun agertzen.

SALMOAK

Jerusalem neure pozik handiena ez badut.

⁷ Jauna, ez ahantz edomdarrek egina,
erranka ari izan baitziren
Jerusalem erori zen egun hartan²⁵⁹:
«Suntsi, suntsi oinarrietaraino!»

⁸ Babilon, suntsituko zaituena,
dohatsua egin daukuzunaren ordaina emanen dauzuna!

⁹ Dohatsua, zure haurtxoak hartu
eta harrokaren kontra xehatuko dituena!

138. (137.) SALMOA

Jainko salbatzaileari esker kanta

¹ *Davidena.*

Bihotz-bihotzez, Jauna, eskerrak dauzkizut emaiten,
ene ahoko hitzak entzun dituzulakotz
beste jainkoen²⁶⁰ aitzinean zaitut kantuz ospatzen.

² Zure tenplu saindu alderat naiz ahuspekatzen,
zure izenari eskerrak emaiten:
zeure maitasun eta leialtasunaz,
hitzeman baino gehiago egin duzu.

³ Dei egin dauzutanean, entzun nauzu,
indar eman dautazu.

⁴ Eskerrak emanen dauzkizute, Jauna, munduko errege guziek,
zuk hitzeman jakitean.

⁵ Zure egintzak kantatuko dituzte:
«Handia da Jaunaren ospea!»

⁶ Bai, gora da Jauna,
bainan apalari dio behatzen;

²⁵⁹ **137,7** *Jerusalem erori zen egun hartan*: H.h., *Jerusalem egunean*, erran nahi baita, K.a. 587an Nabukodonosorren eskuetarat erori zen egunean; edomdarren orduko jarrerari buruz, ik. Ab 11.

²⁶⁰ **138,1** *beste jainkoak*: Ik. 82,1 oh. Lehengo itzulpenek ezberdinki irakurri dute hitza: *aingeru*, *epaile*, *errege*, *jainko*.

SALMOAK

harroa, berriz, urrunetik ezagutzen.

⁷ Atsegabeen naizelarik, zuk nauzu biziartzten
ene etsaien haserrearen kaltetan,
zuk eskua luzatu eta nauzu salbatzen.

⁸ Dena eginen du Jaunak nere alde.
Jauna, zure maitasuna betikoa!
Ez bazterrerat utz, zeure eskuen lana.

139. (138.) SALMOA

Jaunak dena ikusten eta jakin

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Davidena.*

Jauna, ikertzen nauzu eta ezagutzen:

² badakizu noiz naizen jartzen eta noiz jeikitzen,
ene gogoetak urrundik dituzu zilatzen.

³ Ibil nadin ala etzan, ikusten nauzu,
ene urrats guziak ezagunak dituzu.

⁴ Hitza ez dut mihiaren gainean oraino
eta jadanik, Jauna, badakizu oro.

⁵ Gibel eta aitzin inguratzen nauzu,
eta eskua gainean ezartzen dautazu.

⁶ Jakitate miresgarria, enetzat gehiegia,
ni hartaraino heltzeko goregia.

⁷ Norat nindoake urrun zureganik?

Norat ihes egin urrun zure aitzinetik?

⁸ Zerurat igan banendi, han zaude, zu,
Hilen Egoitzan etzan banendi, han ere, zu!

⁹ Goiz-argiaren hegalak hartu-ta,
joan banendi itsas mugetaraino bizitzera:

¹⁰ han ere zure eskuak nau gidatzen,
zure eskuina zait lotzen.

¹¹ Erraiten badut: «Ilunpeak estal nezala,
egun-argia, nere inguruan, gau bilaka dadila!»,

¹² ilunpea bera ez da zuretzat ilunpe,
eta gauak argitzen du egunaren pare.

SALMOAK

- ¹³ Ene gorputza moldatu duzu,
amaren sabelean eho nauzu.
- ¹⁴ Gora zu, egin nauzulakotz hain harrigarri,
zuk eginak hain dira miresgarri!²⁶¹
Bai, badakit horren berri.
- ¹⁵ Nere hezurak ez ziren gordeak zure aitzinean,
sortzen ari nintzelarik ixilean,
moldatua nintzelarik lurraren barnean²⁶².
- ¹⁶ Nintzen umegaia, zure begiek ikusten ninduten,
eta zure liburuan ene egun guziak idatzirik zauden,
nahiz heietarik oraino bat ere ez zen²⁶³.
- ¹⁷ Oi Jainko, bai nekeak neretzat zure gogoetak,
hain dira anitzak!
- ¹⁸ Kondatzen hasten banaiz, hondarra baino dira ugariago,
bururaino heldu eta zurekin naiz oraino!
- ¹⁹ Oi Jainko, hiltzen bazinitu gaixtoak!
Urrunt eneganik, odolzaleak!
- ²⁰ Maltzurki dira zutaz mintzatzen
eta zure kontra alferrik altxatzen.
- ²¹ Nola nik ez hastio ukan, Jauna, zu hastio zaituztenak?
Nola nik ez higuin ukan kontra altxatzen zaizkizunak?
- ²² Herra osoz herratzen ditut,
zure etsaiak nereak baititut.
- ²³ Oi Jainko, iker nezazu eta ezagut ene bihotza,
froga nezazu eta ezagut ene kezka.
- ²⁴ Ikus galbidetik ote nabilan,
gida nezazu betirako bidean.

140. (139.) SALMOA

Zapaldua justizia eske

²⁶¹ **139,14** Lehen bi lerroak ilunak dira jatorrizkoan, nahiz eta erran-nahi orokorra argi den.

²⁶² **139,15** *lurraren barnean*: Ama sabelaren irudia (ik. Jb 1,21; Si 40,1).

²⁶³ **139,16** Azken bi lerroetako testua iluna da eta itzulpena ez segura.

SALMOAK

¹ *Koru-zuzendariarentzat. Daviden salmoa.*

² Libra nezazu, Jauna, gaixtoenganik,
zaint indarkeria-zaleenganik:

³ beren bihotzean gaixtakeria baizik ez dute asmatzen
eta egunoro borroka sortzen;

⁴ sugeak bezain zorrotza dute mihia,
ezpainetan suge gorriaren pozoina.

⁵ Begira nezazu, Jauna, gaizkileenganik,
zaint indarkeria-zaleenganik,
nola behaztoparaziko nauten baitabiltza.

⁶ Harroek arteak ezartzen dauzkidate gordean,
gizatarrek sarea hedatzen, lakioak ezartzen bidean.

⁷ Jaunari erran diot: «Zu nere Jainkoa!»
Jauna, entzun zazu nere oihua.

⁸ Jauna, ene Jainkoa, zu nere indar salbatzailea,
guduan zuk gerizatzen dautazu burua.

⁹ Jauna, ez amor eman gaixtoen gutizieri,
ez utz beren xede maltzurren betetzera.

¹⁰ Ez bezate bururik altxa²⁶⁴ inguratzen nautenek;
estal bitza beren ezpainetako makurkeriak!

¹¹ Eror bekizkiote gainerat ikatz goriak,
eror bite leizetarat, eta handik ez atera!

¹² Gaizki-erraileek ez bezate iraun herrialdean,
zorigaitzak harrapa beza bat-batean indarkeriazalea!

¹³ Badakit Jaunak duela dohakabeari justizia egiten;
behartsuen eskubideak harek ditu zaintzen.

¹⁴ Bai, zintzoek goretsiko zaituzte, Jauna,
zure aitzinean biziko da zuzena.

141. (140.) SALMOA

²⁶⁴ **140,9-10** *Ez bezate bururik altxa*: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoa ezin konprenitua da.

Idolatriak tentatu Jainkozalearen otoitza

¹ *Daviden salmoa.*

Deika nagokizu, Jauna, zatozkit laster!
Entzun nere ahotsa, nik dei egitean.

² Nere otoitza izan bedi zure aitzinean intsentsua bezala,
nere esku altxatuak arrats-oparia²⁶⁵ bezala.

³ Ezar, Jauna, begirale bat nere ahoari,
zaintzaile bat nere ezpainetako ateari.

⁴ Ez utz nere bihotza gaizki alde lerratzeraz,
ez nezazula utz tzarkeria egitera,
ez eta gaizkileen apairu gurien jastatzera.

⁵ Jo nezala gizon zuzenak, zentzaraz jainkozaleak,
bainan ez dezala nere buruan distira gaixtoen olioak;
heien gaixtakerien kontra nik beti otoitza.

⁶ Juje duten Harrokaren kontra amilduko dira,
eta nere hitzak entzunen dituzte, atseginak baitira.

⁷ «Heien hezurak Hilen Egoitzaren ahoan barreiatuak izanen dira,
lurra irauli eta ilausten denean bezala²⁶⁶».

⁸ Zuri buruz ditut begiak, ene Jaun eta Jainko,
zure baitan dut geriza, ez nezazula glltzera utz.

⁹ Begira nezazu hedatu dautaten saretik,
gaizkileen arteetarik.

¹⁰ Eror bite denak beren sareetan,
nik ihes egingen dutan bitartean.

142. (141.) SALMOA

Larrialdian Jaunari oihua

¹ *Daviden poema. Harpean zagoneko otoitza.*

²⁶⁵ **141,2** *arrats-oparia*: Egunoro Jerusalemgo tenpluan eskaintzen zen oparia.

²⁶⁶ **141,5-7** Testua iluna da eta itzulpena ez segura.

SALMOAK

² Oihuka dei egiten diot Jaunari,
oihuka otoitz egiten Jaunari.

³ Haren aitzinean ixurtzen dut nere pleinua,
hari erraiten nere atsegabea.

⁴ Hatsa itzaltzen zaitanean,
badakizu norat noan;
nabilen bidean sarea hedatu dautate.

⁵ Beha inguruan eta ikus: ez nau nehork ezagutzen,
ez dut aterberik, ez da nehor nitaz axolatzen.

⁶ Oihuka ari nitzaizu, Jauna,
diotalarik: «Zu zaitut aterbe,
nere ondare, bizien lurraldean!»

⁷ Zaude adi nere oihuari, lur joa bainaiz!
Libra nezazu zapaltzaileenganik,
ni baino indartsuagoak direnenganik.

⁸ Atera nezazu presondegitik,
eta eskerrak emanen dauzkizut.
Bil dakizkitala fededunak inguruan,
ongia eginen dautazunean.

143. (142.) SALMOA

Jainkoaren zerbitzariaren eskaria larrialdian

¹ *Daviden salmoa.*

Jauna, entzun ene otoitza,
itzul beharria nere galdeari!
Zuzena zirelakotz eta leiala, ihardets neri!

² Ez auzitan sar zeure zerbitzari hunekin,
ez baita bizidunik zure aitzinean hobengabe denik.

³ Etsaiak zapaltzen nau,
ene bizia lurraren kontra zanpatzen;
ilunpeetan biziartzten nau, behin betiko hilak bezala.

⁴ Hatsaren galtzen ari naiz,

SALMOAK

atsegabea bihotzean.

⁵ Aspaldi hartako garaiak ditut gogoan,
zure egintza guziak derabilzkit buruan,
zuk eginak hausnartzen ditut.

⁶ Zure ganat luzatzen ditut eskuak,
zure egarri naiz, lur idorra bezala.

⁷ Ihardets laster, Jauna, hatsik gabe bainaiz.
Ez gorde neri zeure aurpegia,
ez nadin bilaka zilorat doatzinen idurikoa.

⁸ Emadazu goizean zeure maitasunaren berri,
zuri bainago beti.

Erakuts ezadazu bidea,
zureganat altxatua baitut gogoa.

⁹ Libra nezazu, Jauna, etsaienganik,
ez dut zutaz beste gerizarik²⁶⁷.

¹⁰ Erakuts neri zure nahiaren egiten,
zu baitzaitut Jainko.
Zeure izpiritu ongileaz
gida nezazu bide ordokian.

¹¹ Zirena zirelakotz²⁶⁸, Jauna, atxik nezazu bizirik,
zeure justiziagatik atera nezazu larrialditik;

¹² zeure maitasunagatik, suntsizkizu nere etsaiak,
honda nere erasotzaileak,
zure zerbitzaria bainaiz.

144. (143.) SALMOA

Garaipena eta ongizaita eskatzeko otoitza

¹ *Davidena.*

Benedikatua Jauna, nere harroka,

²⁶⁷ **143,9** *gerizarik*: Grekozko itzulpenaren arabera; hebrearezkoa ezin konprenitua da.

²⁶⁸ **143,11** *Zirena zirelakotz*: Ik. 25,11 oh.

SALMOAK

eskuak gudurako, ukabilak borrokarako trebatzen dauzkitana;
² ene indar eta gaztelua, ene gotorleku eta askatzailea,
ene erredola eta geriza.
Harek dauzkit herriak menperatzen.

³ Jauna, zer da jendea, zu hartaz arduratzeko,
zer jende hilkorra, zuk hari pentsatzeko?
⁴ Jendea hatsaldi baten iduriko da,
haren egunak itzal iheskorra bezala.

⁵ Idek zerua, Jauna, eta jauts,
hunki mendiak eta jar bite ketan.
⁶ Dirdiraraz ximistak, eta sakabana etsaiak,
igor zeure geziak, eta barreiazkizu.
⁷ Luza eskua gain hortarik, aska nezazu,
libra uholdetik, atzerritarren eskutik!
⁸ Heien ahoa faltsukeria erraile,
heien eskuina gezurrezko zin egile.

⁹ Kantu berria kantatuko dauzut, ene Jainko,
hamar hariko harpa zuretzat joko:
¹⁰ zuk eman zinion erregeari garaipena,
zuk askatu zinuen David, zeure zerbitzaria.
¹¹ Aska nezazu zorigaitzeko ezpatatik²⁶⁹,
libra atzerritarren eskutik!
Heien ahoa faltsukeria erraile,
heien eskuina gezurrezko zin egile.

¹² Izan bite gure semeak landareen idurikoak,
gaztedanik ongi haziak;
gure alabak zutabeen idurikoak,
jauregiaren edertzeko landuak.
¹³ Beterik izan daitezela gure selauruak,
uzta oroz hornituak;
ugal bite artaldeak milaka eta milaka gure larreetan;
¹⁴ gizen bite gure abereak.
Gure harresietan urrakorik ez, ihes egiterik ez,

²⁶⁹ **144,11** *zorigaitzeko ezpatatik*: Hitz hauek hebrearezkoan 10. ber.ari lotuak dira; 11.ari lotuz geroz, grekozko itzulpenak egin duenaz, erritmoa orekatuago gertatzen da.

gure plazetan oihurik ez.

¹⁵ Dohatsua hauek guziak dituen herria!

Dohatsua Jauna Jainko duen herria!

145. (144.) SALMOA

Jainko erregeari, Jaun ongileari, gorespen-kanta

¹ *Daviden gorespen-kanta*²⁷⁰.

Goretsiko zaitut, ene Jainko, ene errege,
benedikatuko dut zure izena betiere.

² Benedikatuko zaitut egunoro,
zure izena betiere goraiatuko.

³ Handia da Jauna, guziz goresgarria,
haren handitasuna ezin neurtuzkoa.

⁴ Gizaldi batetik besterat goraiatzen dira zure egintzak,
iragartzen zure egite ahaltsuak.

⁵ Zure aintza eta ospe distiratsua ditut aldarrikatzen,
eta zure egintza miresgarriak adiarazten.

⁶ Zure balentria ikaragarriak dira aipatzen,
eta nik zure egintza handiak kondatzen.

⁷ Ona zirelako oroitzapena da zabaltzen
eta zure salbamendua pozik oihukatzen.

⁸ Urrikalkorra eta bihozbera da Jauna,
berant-haserre eta onginahi handikoa.

⁹ Ona da Jauna guzientzat,
samurra berak egin guzientzat.

¹⁰ Gorets zaitzatela, Jauna, zuk egin guziek,
benedika zeure fededunek.

¹¹ Aipa bezate zure erregetza ospetsua,
mintza bite zure ahalaz,

¹² jendeeri agertuz zure egite ahaltsuak,
zure erregetzaren ospe distiratsua.

²⁷⁰ 145,1 Salmo alfabetikoa da; ik. 9,1 oh.

SALMOAK

¹³ Zure erregetza menderen mendetako erregetza,
zure boterea gizaldi eta gizaldietako boterea.

Fidagarria da Jauna bere hitz guzietan,
leiala bere egintza orotan²⁷¹.

¹⁴ Erortzer direnak, xutik ditu Jaunak atxikitzen,
Lur-joak altxatzen.

¹⁵ Zuri so daude denak haiduru,
eta zuk jatera emaiten tenorean;

¹⁶ eskua zabaldu eta bizidun oro asetzen duzu.

¹⁷ Zuzena da Jauna jokabide guzietan,
leiala egintza orotan.

¹⁸ Hurbil da Jauna dei egiten diotenenganik,
egiaz dei egiten dioten guzienganik.

¹⁹ Haren errespetua dutenen nahia egiten du,
heien oihuak entzun eta salbatzen ditu.

²⁰ Maite dutenak ditu Jaunak begiratzen,
gaixto guziak suntsitzen.

²¹ Egin beza nere ahoak Jaunaren gorespena
eta benedika bezate izaki guziek haren izen saindua
beti eta beti!

146. (145.) SALMOA

Jainko ahaltzu eta ongileari gorazarrea

¹ Alleluia!

Ene arimak Jauna gorets beza!

² Goretsiko dut Jauna, dirautano,
soinua joko neure Jainkoari, bizi naizeno.

³ Ez fida handikien baitan,
salba ez dezaketen gizasemeen baitan:

⁴ azken hatsa emanik, lurrera dira itzultzen,
eta heien xedeak han bururatzen.

⁵ Dohatsua Jakobena Jainkoa lagun duena,
bere esperantza Jainko Jauna baitan duena!

²⁷¹ **145,13** *Fidagarria... guzietan:* Bertso hau, alfabetismoaren arabera beharrezkoa, falta da hebrearezko testuan, baina Qumrangoko testuak eta lehengo itzulpenek begiratu dute.

SALMOAK

⁶ Jaunak egin ditu zeru-lurak eta itsasoa,
eta horietan dagon guzia;
betiko atxikitzen du bere hitza.

⁷ Zapalduen eskubideak ditu zaintzen,
gose direneri ogia emaiten.

Jaunak ditu presoak askatzen,

⁸ Jaunak argitzen itsuen begiak,
Jaunak altxatzen lur jorik daudenak,
Jaunak maitatzen zintzoak.

⁹ Jaunak ditu etorkinak gerizatzen,
umezurtz eta alarguntsak sustengatzen,
bainan gaixtoen xedeak hutsean uzten.

¹⁰ Jauna errege da betierean,
zure Jainkoa, Sion, menderen mendetan!

Alleluia!

147. (146–147.) SALMOA

Jerusalem zahar-berritzen duen Jainkoari gorazarre

¹ Alleluia!

Bai eder, gure Jainkoa kantuz ospatzea,
bai gozo, haren gorestea!

² Jaunak du Jerusalem eraikitzen,
Israelgo erbesteratuak biltzen,

³ bihotz-hautsiak sendatzen,
heien zauriak lotzen.

⁴ Izarrak ditu kondatzen
eta bakotxa bere izenaz deitzen.

⁵ Handia da gure Jauna, guziz indartsua,
haren zuhurtzia neurrigabea.

⁶ Jaunak altxatzen ditu umilak,
lurreraino apaltzen gaixtoak.

SALMOAK

⁷ Kanta esker onez Jaunari,
jo zitarra gure Jainkoari:

⁸ zerua hodeiz du estaltzen,
lurrarentzat euria prestatzen
eta mendietan belarra luzarazten.

⁹ Janaria emaiten diote abereeri
eta karranka ari zaizkion belekumeeri.

¹⁰ Ez du maite zaldiaren indarra,
ez du atsegin lasterkariaren balentria.

¹¹ Haren errespetua dutenak ditu atsegin Jaunak,
haren maitasunean fidatzen direnak.

¹² Ospa²⁷² Jauna, Jerusalem!
Gorets zeure Jainkoa, Sion!

¹³ Zure ate-morroiloak azkartu baititu
eta seme-alabak zure baitan benedikatu.

¹⁴ Zure lurralderat bakea ekarri du,
irin hoberenez asetzen zaitu.

¹⁵ Manuak igortzen ditu lurrerat
eta haren hitza laster doa bere helbururat.

¹⁶ Artilea iduri, emaiten du elurra,
hautsa iduri, zabaltzen lantzurda.

¹⁷ Burrustaka botatzen du izotza;
nork jasan dezake haren hotza?

¹⁸ Harek manatu eta urtzen da izotza,
haizeari ufarazi eta urak ixurian doatza.

¹⁹ Bere hitza agertzen dio Jakoben herriari,
bere erabaki eta legeak Israeli.

²⁰ Beste herrieri ez diote holakorik egin,
haren erabakiak ez dituzte ezagutzen.

Alleluia!

²⁷² **147,12** *Ospa*: Grekozko eta latinezko lehengo itzulpenek beste salmo bat hasten dute hemen, 147.a; hola, bi zenbaketak (ik. 10,1 oh.) bateratzen dira.

148. SALMOA

Jaunari gorespen zeru-lurretan

¹ Alleluia!

Goretsazue Jauna zerutik,
gorets zeru gorenetik!

² Goretsazue, haren aingeru guziek,
gorets, haren gudari²⁷³ guziek!

³ Goretsazue, eguzki ilargiek,
gorets, izar argitsuek!

⁴ Goretsazue, zeru zabalek
eta zeru gaineko urek²⁷⁴!

⁵ Gorets bezate Jaunaren izena,
harek manaturik sortu baitziren;

⁶ betikotz ezarri zituen,
nehoiz indarra galduko ez duen legea eman zioten.

⁷ Goretsazue Jauna lurretik
itsas-herensuge eta leizeek.

⁸ Goretsazue, su eta bazizkor, elur eta lanoek,
eta haren erranera zaudezten haize-erauntsiek;

⁹ mendi eta mendixka guziek,
fruitu-arbola eta zedro guziek,

¹⁰ basabere eta etxabereek,
herrestari eta hegaztiak.

¹¹ Goretsazue, munduko errege eta herriek,
buruzagi eta gobernari guziek,

¹² mutiko eta neska, xahar eta haurrek.

¹³ Gorets bezate Jaunaren izena, izen goren bakarra,
haren ospea zeru-lurren gainean gora.

¹⁴ Bere herriari garaipena emaiten dio.
Gorespena zor diote bere fededun guziek,
gorespena bere-berea duen herri Israelek.

²⁷³ **148,2** gudari: *Aingeruak* daitezke.

²⁷⁴ **148,4** zeru gaineko urek: Ik. 104,3 oh.

Alleluia!

149. SALMOA

Garaipen-kantua

¹ Alleluia!

Kanta Jaunari kantu berri,
goretsazue fededunen batzarrean!

² Bozkaria bedi Israel bere Egileaz,
alai bite siondarrak beren Erregeaz.

³ Gorets bezate dantzan haren izena,
harentzat joz danbolin eta zitara.

⁴ Jaunak bere herria maite baitu,
umilak garaipenez janzten ditu.

⁵ Fededunak alai bite ospe emanaz,
egin bezate poz-oihu bai eta ere gauaz.

⁶ Jainkoaren gorespina ukan bezate ahoan,
eta bi ahotako ezpata eskuan,

⁷ nazioneeri mendekatzeko
eta beste herrien zigortzeko,

⁸ heien erregeak katez eta handikiak trabaz lotzeko,

⁹ Jainkoak idatzi jujamenduaren betetzeko;
hori da haren fededun guzientzat ohorezko!

Alleluia!

150. SALMOA

Azken gorespen-kanta²⁷⁵

²⁷⁵ **150,1** Salmo-liburuaren azken *gorespen-kanta* liburu osoari baitoakio, beste lau zatikoen *benediziona* (ik. 106,48 oh.) baino osoagoa da. Soinu eta kantuari hain toki handia emaiten dion otoitz-liburu hau orkestra betean eta bizidun orok osatu koruz abesteko gorazarrez bururatzen da.

SALMOAK

¹ Alleluia!

Goretsazue Jainkoa bere saindutegian,
gorets bere zeru-sabai indartsuan.

² Goretsazue bere egintza ahaltuengatik,
gorets bere handitasunagatik.

³ Goretsazue adar-soinuaz,
gorets harpa eta zitaraz.

⁴ Goretsazue danbolin eta dantzaz,
gorets hari-soinuz eta xirulaz.

⁵ Goretsazue zinbal ozenez,
gorets zinbal indartsuez.

⁶ Gorets bezate Jauna hasdun guziek !

Alleluia !
